

KONFESIO

INKONFESABLEAK

Xabier Amuriza

*Abade egon nintzen herriei
Gizaburuaga eta Amorotori
non nire bizitzako urterik
emankorrenak izan nituen*

AURKIBIDEA

Perfumeak	3
Neire	8
Itxina	15
Donina	28
Umeen konfesioa	37
Erretiro eguna	50
Barbara eta Gari	57
Dobal	66
Xune eta Karpo	76
Elkarrizketa sibilino bat	102
Neure alaba mojatxoak	106
Ezkonberrien erdian	114
Guztiak ate beretik	118
Basakabi I	122
Basakabi II	130
Sotana bat behi artean	133
Gatzatu-jan bat	137
Markinako mojetan	145
Helenaren hiru agerpenak	151
Talita I	158
Talita II	177
Talita III	188

PERFUMEAK

Armairu bertikal bat, bi metro gora, bat zabal. Metro bat altuerako atea. Goranzko baoa bi gortinak ixten, albo banatarantz konoan zabalgarri. Konfesatokia. Gizonezkoek, gortinak alboratuz, atearen pausalekura makurtzen gorputza, ukondoan gainean. Altueren arabera, makurtze txikiak, ertainak, handiak. Handien kasuan, ipurdiak nabarmenki irteten. Txikien kasuan, marmarra: «Horrek ez dauka ipurdirik ere». Ertainen kasua ez da kontsideratzen. Armairuak albo banatan tranpaldo baxu bat dauka. Emakumeek, horietako batean belauniko, sareta forratudun leihoxka txiki batera arrimatu behar dute ahoa. Beste aldean belarri bat, apaiz edo fraide batena. Iluntasuna. Honek dena irensten du.

Apaiztu nintzenean konturatu nintzen perfumeen erabilera, konfesioetan, ez zela banitate dandy bat, adeitasun pastoral bat baizik. Zuzenbide kanonikoak, baimentzen ez ezik, behartzen gintuen kontaktu karnal indibidualetan, gizonezkoen burua, gortinape ilunean distantzien kontrol ezinezkoa bide, golkoraino sartzen zitzaizun. Barrukoaren eta kanpokoaren buruak, biak handiak baziren, normalak alegia, talka edo marruska inebitablea zen.

Urtean konfesio bat, gutxienez, nahitaezko betekizuna zen, bekatu mortalaren pean.

Nahitaezko betekizuna zen bezala aurreko konfesiotik zenbat denbora zen aitortzea.

– ¡Ave Maria purissima!

– ¡Ave! Zenbat denbora?

– Hamahiru urte, jauna.

– Hamahiru urte? –muturtzen konfesorea–. Ezagun duk, bai, plantakeran ere!

- Eurt! –pentsatzen du gizonak, atzerantz eginez.
- Orain hoa orain aldare nagusiraino!
- Egingo ote diat apaiz arranpalo honen gusturik?
- pentsatzen du gizonak berriro.
- Hamahiru urte nola baina?
- Ameriketan egon naiz, jauna.
- Han ez al zen Jainkorik?
- Izango zen, baina urrun, jauna.

«Armairu eta guzti» botatzea ere pentsatu zuen. Seigarren aginduko bekatuak, egintzak zein pentsakizunak, zenbait xehetasunez emanez gero, konfesorearen gustua errazago egiten zen. Bestela, han buruz buru, belarriz belarri, konfesoreak, arauzko barauan, aho gozoa behar zuen, Arantzazura «urtean behingo eginbeharra» betetzera joaten ziren bi gizonena gertatuko ez bazen.

– Zer nolako konfesorea diagu? –atzekoak aurrekoari, eta honek:

– Ondo-ondo ez diat ikusi, baina uste diat ipurdiz gora dagoela.

Hainbesteraino iritsi gabe, bazen nahiko kezkarri hain etxola estu, altu eta tximinia gabean bi arnasak ondo elkar hartzea. Nahi ez zen putzen batek ere nahi gabe alde egin zezakeen. Baina beste gehigarri gabe ere, arnasa guztiek daukate usain bat, ez beti atsegina. Batzuetan, gaitz bat ere bai, ahopetsa edo halitosia. Arnasa ustela bezalakoa. Ahoa ondo garbiturik, usaindurik eta gorputza ere zerbait lurrindurik eraman ezik, konfesatokian aise sor zitekeen silo bateko atmosfera. Konfesanteek, noiz behinkakoak izanik, prebentzio zerbaitekin etorri ohi ziren.

Baina prebentzioek ere ez zuten beti lortzen nahi zen efektua. Erretzaile edo edale baten kasuan, adibidez, hortz-ore eta kolonia guztiekin ere, gerta zitekeen emaitza ez izatea

lurrin nahasi eta larri bat besterik, borondate onak bakarrik salbatzen zuena. Apaiz edo fraide konfesorea libre zegoen ardura horiek hartzetik, okerreanean ere, zaila baitzen hari inork konturik hartzea. Horrela, ez zen zaila Arantzazukoaren antzekoak gertatzea. Ez dut maite tximinia gabeko etxolarik, ezta hilkutxa bada ere. Eskerrak emakumeak saretaz kanpotik belaunikatzen ziren. Baina hauek ere, ohi duten usnaz eta ohiko mantilak buruan, derrigor igarri behar zuten barruko edozein usain. Edo kirats.

Gizonezkoak aurrez aurre. Konfesorea eta biak, talkan huts eginiko ahariak bezala, baina akoplatuago, adarren faltan. Zuzenbide kanonikoak nahiago baitzuen ez-jakin egitea sexu berdinen arteko «desbiazio horribleei», euron prebentzio arautua baino. Hau bizio orokorrerako inimizazio bat izan zitekeen. Arriskua saihesteko, aukera ezkutuak eskaintzen hasiz gero, sakristian edo abadetxean, adibidez, nola garantizatu sakramentuaren inkorruptzioa, gehi bide batezko ondorio instituzional nefastoagoak?

Okerkuntza guztiak batera saihesteko sistemarik ez baitago, nik uste dut banakako konfesioaren erritua apropos pentsaturik zegoela, enkubritu nahi zenaz harago, homosexurantz subtilki tiratzeko. Edo tiratuta zeuden konfesoreek aukera ez nabarmengarri bat izan zezaten. Ondorio indirekto bezala beti ere, helburu direktoa konfesoreak emakumeen kontaktutik apartatzea baitzen. Ez dakit prebentzio hori kaltegarriago ez ote zen, zeren emakumeenganako tentazioa ia malignoki hurbiltzen baitzen hiru zentimetrora. Gortinatxo batez forraturiko sareta burgoi baina ahulegi baten pentzudan, norekin mintzo zinen ere ezin jakiteak aieruen zirimola bizitu baizik ez zuen egiten.

Urteak geroagoko emailetan bezalatsu, zirkunstantziak salbu. Ezagutzen ez dudan baten mezua jaso dut eta

erantzun dezaket: «Aupa, Amaia... Kaixo, Maddi... besarkada bat». Ez dakit nori erantzun diodan. Batzuetan, «besarkada bat» ezabatu egin dut, hurbilegi iruditu zaidalako. «Izan ondo». Hasierako «kaixo» edo «aupa» ere lagunkoiegi iruditu zaizkit, nor den ez dakidan bati ipintzeko. «Andere agurgarri hori». Eta andereñoa bada? «Andereño» ipiniko dut, halakoa ez dena ere loriatuko baita. Edo ez, beharbada. Gaizki asmatzeko arriskua beti.

Zeberioko nire ikaskide baten «meza berria» zen. Lagun batzuk bezperatik batu ginen bere etxean, denok apaiz egin berri. Poza, emozioa eta gaztetasuna gainez, ia gau osoa solasean eman genuen. Biharamunean, igandeko hamarretan, aipatu «meza berria» izango zen. Herri bateko gertakari erlijioso handienetakoa. Eliza mukurua betean, ordua baino lehenago, konfesio ilara luzeak egin ziren. Herriko parrokoak eskatu zigun apaiz berriok ere laguntzeko konfesioetan. Lehen aldia zen konfesatokian sartzen nintzena. Beste askoren artean, konfesante femenino batek aitortu zituen bekatu hutsaletatik eta ahotsaren koloretik, hirurogei bat urteko emakumea iruditu zitzaidan. Niretzat orduan, «amama» bat. Eta halako bati zegozkion aholkuak eta penitentzia ematen saiatu nintzen.

Konfesioa amaitzean, neska batek nire begien pareko pasilloa ahalik astiroen eta erakusguren zeharkatu zuen, sei bat zentimetroko takoiaren gainean ipurmasailei garbosa eraginez. Egin bide nion iraina aurpegira itzultzearen, dudarik gabe. Huraxe izango zen abagune bat non berriro ohartu bainintzen nire baitan jende asko bizi zela. Bat lotsaz hiltzear zen bitartean, beste batzuek asko estimatu zuten detailea. Eta ikuskizuna. Lehen esperientzia izateko, nahiko erreakzio konstruktiboa izan nuen, erabaki bainuen, aurrerantzean, arimek bakarrik hitz egingo niela. Adin gabeko gorputzei.

Nire erabakiak ez zuen askorik balio izan, hurbiltasun fisikoak hantxe jarraitzen baitzuen. Eta ez konfesioan bakarrik. Arimen gidaritzak gorputzen hurbiltasuna eskatzen zuen. Saia nintekeen urruntasun zintzoari eusten. «Ez utzi abadetxera sartzen, gutxiago bulegora, inola ere ez bulego-logelara». Alferrik! Hurbiltasuna gure eginkizun apostoliko bat zen, «bekatariak» erakarri nahi baziren. Bestalde, hurbiltzera beharturik aurkitzen ziren arimak nola bidali behar genituen distantzia batera? Ahaztu gabe, noski, paranoia kanokikoetatik kanpora ere, metro bateko distantzia bazela sobera bistoso eta kilikagarri. Konfesioaren egintza distantzia ia ezabatuan gertatzen zelako, ez genituen kristauak atzerantz botako bi mila urteko bidaiatik.

Batzuk zorteko ginen. Elizako ardura «Mariaren alabek» zeramaten herrietan, konfesatokia eurek zaintzen eta lurrintzen zuten. Baina ahoa norberak jarri behar zuen. Nahi ziren gortina, sotana eta iluntasun guztiekin ere, hura ia kontaktu karnala zen, faziala bederen. Koloniak eta usaingarriak ia osagai sakramentalak ziren. Animaliek bestelako lasaitasunean jarduten dute. Haragi ustelak jan berri ere, ahoak elegantziaz ekidin ahal dituzte estalketan. Emakumeen konfesioetan, saretak banatzen gintuen, lehen jaunartze aurreko neskatxoekin izan ezik, zazpi-zortzi urte goia eurok. Behin jaunartzea egindakoa, alboko saretatik etorri behar zuten, bost edo sei urteko haurtxo goiztiarrak baziren ere. Sakramentua maleziaren estreinaldia bailitzan.

Konfesioak eta aurrekariak zerbait azaldu ditut, baina perfumeen kontuak hantxe jarraitzen zuen, bereiz - bereiz, bere - berean. Bakoitzaren lurrina neu atsegintzeko asmatu zela pentsatuz zoriontzen nintzen, baina neuk ere ikasi behar izan nuen lurrin-flasko bat hutsik gabe edukitzen, konfesatokiaren barruko zoko batean.

NEIRE

Zer egin, Ameriketatik itzulitako familia batean, jaunartzerik egiteke agertu zen hamasei urteko neskarekin? Prestakuntza berarekin bakarrean? Besteekin batera? Bai, jauna. Niri ez dit ardura batera zein bestera. Poztu ninduen haren prestasunak, ez exzitazio puntu bat gabe, jakinik ezen, eginkizun sakratu eta saihestezinak tarteko zirela ere, ezingo ginela maiseoren bat sortzeke gelditu. Diktadura politiko - apostoliko hartan, errebelde famako abadeen edozein hari puntari tiratzeko zelatan zeuden herrietako «indar biziak», katoliko kolaboratzaileak barne.

Neire. Halaxe zeritzon neskari. Ameriketatik, ingeles-euskaren nahastearekin batera, egiazko adina baino garapen aurrerratuagoa ekarri zuen. Hari pare bat urte gehituz eta nire hogeita laurei sotana eta pare bat urte kenduz, aise irudika zitekeen hamazortzi eta hogeita bi urteko bikote alazoa. Kontu horiek guztiak aterarazi zizkidan nahitaez etorri behar zuen konfesioa imajinatzeak. Umeek, beti bezain ume, beti bezain krudel –krudeltasun handiena inozentzia bera izan daiteke–, Neire lotsarazteko, ni estutzen ninduten galderen txandan.

– Jaunartzea hainbeste urtean atzeratzea ez al da bekatu, jauna?

– Ez dauka izan beharrik. Ameriketan gauzak beste era batera dira.

– Han beste Jainko bat al dago?

– Ez. Jainkoa bat bera da denean, baina lekuak eta garaiak ez dira berdinak. Hara! Lehentxoago aipatzen genuen Moisesek, adibidez, ez zuen egin jaunartzerik, eta begira nor izan zen. Jesukristok berak ere ez zuen egin jaunartzerik, ezta bere amak ere. Neirerekin, pentsa ezazue Ama Birjina daukazuela ondoan.

Haurrei gauzak esplikatzeari ez da beti erraza, baina engainatzea ere ez da zaila. Azaldu beharreko guztiak azaldu eta gero, osteratzen, konfessioaren entsegua iristean, zer egin behar genuen? Neirei alboko sareta eskaini eta txikiak malezia aurreratu, Neirei ere, agian, diskriminazioa sentiaraziz? Ala txikiak bezala aurretik hartu eta neskaren erreparatzen probatzen bortxatu? Azkenean, erabakitzeak koldarregi naizen guztietan bezala, gauzei euren nahikara gertatzen utzi nien. Dena neure buruko nahasmene besterik ez izatea itxaroten nuen.

– Orain, neskatxoak, benetako egunean trankil etor zaitezten, probatu bat egingo dugu. Ni konfessatokian eseriko naiz. Zuek banan-banan pasatu eta, amaitu ahala, segi kanpora. Baina ez etxera, ezustetxo bat baitaukat zuentzat.

Neirek azken geratzeko zentzua izan zuen, baita aurreko neskatxoa elizatik irten arte itxaroteko arreta ere, pentsatu nuen nik, oker, seguruenik. Hurreratuz zetorrela, konfessatokitik irten eta esan nion:

– Gura baduzu, andrezkoen aldetik hartuko zaitut.

Duda endredosoan geratu zela igarri nion. Posibilitate hori bururatu ere ez zitzaion egin, antza.

– Esan gura dut, zu zelan nagusia zaren... –lagundu nahi izan nion, aukera lasaia hauta zezan.

Beharbada, nerabe-erreflexu landugabeaz edo, seguruenik, pentsamendu garatuaren gaintasunez, erantzun zuen:

– Nik tokatzen den moduan egin gura dut.

Oraingoan, neure geratu nintzen dudak, zer tokatzen zen. Konfessatokian eseri nintzen, berriz ere gauzei euren kabuz gertatzen utzirik. Egia esan, aukerak utzi beharrean, emakumeen aldetik etortzeko komenentzia azaldu nahi izan banio, arrazoi errazak neuzkan, baina nire barruko zerbaitek ziotan ezin nuela dilema unilateralki erabaki. Besoak atearen

kokalekuan tolesturik, Neire aurrez aurre neukan, nahi banuen hiru zentimetrora, nahi banuen bira. Arnasaren barruan, nolanahi ere. Niretzat biolentoa zen, baina, behingoz, biolentzia xarmagarria. Konfesioa ohiko formulena ez izatea izan zen gogoratu zitzaidan ekarpen egokiena.

– Ameriketara ez al zenuen abaderik ezagutu?

– Gu bizi ginen herrian denak ziren mormoiak.

– Eta eskolan?

– Eskolara ere mormoiak etortzen ziren, baina ni ez nintzen haien dotrinara joaten. Gure aitak esaten zuen Jainkoa, lehengoa ere nahikoa genuela.

– Abade katolikorik ez al zebilen handik?

– Behin Lekeitio aldeko bat agertu zen, euskaldun artzainak bisitatzen zetoarela esanez. Gurean lo bi eginda, mendira joan zen, lehenengo jaunartzea hurrengo etorreran egingo genuela esanik, baina gehiago ez zen agertu.

– Errezuak-eta egingo zenituzten etxean baina.

– Larregi ez, jauna. Gure aitak esaten zuen Jainkoak eta horrelako gauzek norbere herrian balio dutela. –«Larregi ez» hori susmatu nuen zelan ulertu. Bat ere ez, hainbaten. Berbetan - berbetan, esan nion:

– Ederto, ba! Amerika Amerikarako utzita, orain bekatuak esateko txanda litzateke, baldin bazenitu. Jarraian «neure Jesukristo Jauna» hortxe belauniko errezatu, gero beste hiru «agur Maria» penitentziatzat, eta eginda.

– Bekaturik ez banu, penitentzia errezatu beharko nuke?

– Honezkero, antzemango zenion bekatuak baduzun ala ez.

– Handi-handirik ez dut uste.

– Orduan, penitentzia ere txiki - txikia ipiniko dizut. Txit Santuari hiru erreberentzia, eta kanpora.

Susmatu nuen haren beldurra errezorik ez jakitea izan zitekeela, aitarenik ere ez baitzuen egin ganoraz.

Jaunartzea izango zen asteko egun guztietan, dotrina ondoren, konfesio entsegua egingo genuen, ez konfiantza har zezaten bakarrik, baizik ikusten nuelako, lehen jaunartzearen handitasunari zenbat eta gehiago eragin, hainbatago gozatzen zutela aurreko prestakuntzetan. Zer litzateke edozein handitasun, sarritan lainoan igarotzen dena bera, aurreko prestakuntza ohartuki gozatuagatik ez balitz? Nire kasuan, hala ere, lehen jaunartzearen egintza bera gehiago izan zen larritasuna gozamina baino, eliza ingurutik aldendu nintzen arte.

«Badakizuela eta trankil egongo zaretela uste baduzue, ez daukazue entseguan parte hartu beharrik, entzun?», errepikatzen nien, Neiregatik batez ere. Baina denak etortzen ziren, Neire barne. Txikiekin, umekeria batzuk esanez, ondo libratzen nintzen, baina Neirerekin ez nekien zeri ekin hainbeste egunetan. Hark fikzio sakramentala baino gehiago zirudien solas ezkutu bat, beti azken bera, biok bakarrik, eliza handiko konfesatoki txiki eta ilunean. Eguna hain pozik igarotzen nuen entsegu haren zain, biolentzia xarmagarri hartara hain atxikitzen hasia nintzen non, lehen jaunartzea baino egun batzuk lehenago, Neireren gurasoei planteatu bainien:

– Zuen alaba gajo horrek ezin du, hain denbora laburrean, behar den prestakuntzarik hartu. Ahalegintzen da, baina igual esaten dizu Moisesek Erroman predikatu zuela edo Ama Birjina Adani agertu zitzaiola. «Neure Jesukristo Jauna» ere ez daki zuzen - zuzen.

– Agindu hori bazenik ere ez dut sekula entzun –dio aitak.

– Ez da agindua. Otoitz bat da.

– O! Gugatik, berorrek jakingo du ondoen gauzak zelan egin behar diren.

Gurasoena eginik, neskari nola adierazi falta zen, maitatzen hasia nintzenari min egiteko bezain astoa ez izateko moduan.

– Hara, Neire! Konturatuko zara ez zaudela ondoegi prestatuta, ezta? Ez dakit zure jaunartzea ez ote genukeen atzeratu beharko.

– Zenbat denboran?

– Hemen lehenengo jaunartzeak urtean behin izaten dira.

– Bitartean, konfesatu ere ezingo naiz egin?

– Bai, gura baduzu, proba moduan, eta andreen aldetik.

– Zergatik andreen aldetik?

– Ba, zure adinean...

– Nabarmena ez ote da izango jaunartu aurretik albotik hastea?

– Ez dut uste. Hala ere, urtebetez atzeratzea gogorregi egiten bazaizu, oso ulertzekoa denez, jaunartzea normal egin eta prestakuntza ondoren osatuko dugu.

– Nik gurago dut gauzak tokatzen den ordenan egin.

– Dena dela, ez daukazu urte guztian zehar konfesio entseguan ibili beharrik. Eginda daukazunarekin, nahikoa duzu jaunartze aurreko astean, behin entseatzea, gogoratze alde bakarrik.

– Eta sarriago gura banu?

– Hori zeure gogoaren arabera.

Eta nik horrelakoxeak entzun nahi! Hala, dotrinako umeak konfesatzen ziren guztian (gutxi izanik, sarritan astero), Neire ere hantxe etorriko zen, beti azken, eliza handiko konfesatoki txikian, biok bakarrik gelditzeko, nahi

bazen hiru zentimetrora, nahi bazen hamarrera, nahi bazen bat eta erdira. Eta harenak konfesio soila izan ezin zuenez gero, solasa ere behar zen zerbait, neuk gidatu behar nuela suposatzen zena, baina hori aiseago eta gogozago prestatuko nuen igandeko sermoia baino. Eta hala, hamabi hilabetez, astero - astero, Neireren golkoa, lehendik ere aurreratua, urtebete garatzen ikusiko nuen, neure beso dardarati eta esku izerdikorren artean.

Argitu gaitezen! Biolentzia espiritual baten egintza izan zitekeen gehiegikeria hori guztia ez nuen, noski, benetan burutu. Bakarrik erakutsi nahi nuen egoera zein propizioa zen benetan burutzeko esku-eskura zetorren tentazioa. Konfesioaren egitura fisikoa eta morala antolaturik zegoen halako astakeria bat naturaltzat baliatua izateko moduan. Neirek besteekin batera egin zuen bere lehen jaunartzea, eta aurrerantzean, neska guztienak bezala, emakumeen aldetik egin izan ziren haren konfesio ez sarriegiak. Baina artean, entseguak eta benetako lehen konfesioa bide, nahiko eraginda ibili nintzen neska batekiko aurrez - aurre hain hurbiletan. Eta intimoetan, konfesioa geruza horietaraino iristeko ezarria izan baitzen.

Aipatu arrazoietatik aparte, ez nuen gehiegikeria hura burutu, ez bakarrik kristauekiko zintzotasunak eta zintzotasun orokorrak eragozten zidatelako, edo zoraldi hura isil eta lau igarotzeko zailtasunak lotsaizun larrira arrasta nintzakeelako, baizik gehiago gozatzen nuelako osotasun pentsatuan biziz, puskatasun problematikoan menturatuz baino. Errealitatea behin bakarrik gertatzen da, eta berean txarto, sarritan. Pentsamenduan, ordea, guztia osorik eta seguru burutzen da. Errealitaterik ezaren detailea sobera konpentsatzen du nahi beste gogoz eta nahi beste aldiz irudikatzeak, azkenean gertatua izan zela iruditzeraino. Zer

axola du benetan gertatua ez izateak, gertatutzat senti
badezaket?

ITXINA

Uste dut behin edo behin arinkiegi jaulki dudala iritzia ezen konfesioa umore berezi samarrez hartu ohi zen erritua zela. Nahiz eta bakan batzuk halaxe espilizituki aitortzeko bezain ziniko positiboak izan («ni konfesatzera nator bekatuak kontatzeko atseginagatik»), gehienengan, errutina gezaren itxurapean, sumatzen nuen bazela errutasun generiko baten sentiera latente bat, gogoak askatzen laguntzeko helduleku bat eskaintzen zuena. Larriena, hala ere, bestea zen, ez baitziren gutxi kontzientziak, konfesioa zorroztasun moral osoz eta batzuek angustiaz hartzen zutenak. Hauekin tentu gorenez jokatu behar zen, laxa zitezen intentziorik sumatzen bazizuten, areago itxiko baitziren euren baitan, irekitzen saiatu zaren bibalboak bezala. Edo beste gabe, alde egingo zizuten, olagarroek bezain itzurti, euren itomenen arabera estutuko zituzten konfessoreen bila. Honelakoak aurkitzea errazago zen zazpigarren egoitzaraino hegatzeari baino.

Arestian aipatu ziniko positiboaren alderantziz, beste horien kasuan, lizunkerien kontaketa obsesiboki xehea ezinezkoa izanez gainera, hots, egintza nahi bezain xeheki inoiz ezin kontatua izatearen porrot-sentipenaz gainera, ohartzen nintzen nolako angustian itotzen ziren kontaketan, egintzaren bekatutasuna zehetzean. Orduantxe intuitu nuen kontaketa exhaustiboaren ezintasuna. Egintza baten toki fisikoaren deskribapen hutsa ere langintza amaigabea da. Leihoan ikusten duzun lore soil bat, bere deribazio guztiekin, ezin duzu kapitulu oso batean agortu. Zer ez ote litzateke, orduan, pentsakizunen eta sentikizunen labirinto infinituan sartuz gero?

Azkenean, susmatzen nuen penitenteak bere errenta moralaren aitorpena bukatzen zuela gehiegi luzatzearen

eskandalu-beldurrez (beste bekatu bat hori ere), erreskada luzea baitzegoen atzean zain. Baina kristau batzuek bazekiten atzeko guztiei aurrea onberaki ematen, eurak azken gelditurik, bakarrean harrapa zintzaten, nahi beste luzatzeko eragozpenik ez izateko moduan. Arima oinazetu bat beso artera sartzean, edo saretxoaz beste aldetik bi zentimetrora jartzean, norbera ere angustiak jotzen du, zer egin garbi eduki ezik. «Orain arte biziraun badu, beste apur bategatik ez da akabatuko». Horixe pentsatuz salbatzen nuen neure burua.

– Ez daukazu xehetasunetan luzatu beharrik –hasi nintzen kontuz-kontuz iradokitzen.

– Gauzak ondo zehaztu ezik, barkamenik ez dagoela irakatsi digute.

– Bedeinkatua zure zintzotasuna, baina barkatu behar duena Jainkoa da, eta hark badaki sobra ere xehetasun guztien berri.

– Baina berorrek ezin du barkatu entzun ez duenik.

– Fidatzen naiz Jainkoaz eta zure benetasunaz. Nire aldetik, pozik eta osoki barkatuko dizut, eta egon ziur Jainkoak ere pozarren barkatuko dizula.

– Baina, jauna, orain arteko guztian...

– Hara, arimatxo! Orain neu nago hemen. Fida zaitez nitaz, eta batez ere, fida zaitez Jainkoaz. Batzuk laster samar errenditzen ziren, konfortaturik, portaera berrira, baina beste batzuen aingira esku artean baino labainagoa zen. Egun batean amore eman behar zen, hurrengoan berriro ekiteko, baldin bolada batean bere hartan uztea komeni ez bazen. Ezbai ondoezgarrian nenbilen, harik eta inpotentziak berak argudio nahiko efektibo bat inspiratu zidan arte, guztiz gezurra ere ez zena.

– Ederto, Itxina, ederto! –Artean, konfesanteak, maiztasun jakin samarrez zetozenak behintzat, ahotsetik eta

hizkeratik ezagutzen ikasia nintzen, eta eurek ere ezagun moduan hitz egiten zuten—. Jainkoaren izenean diotsut benetan saritzekoa dela zure zehaztasun ezin finagoa eta ondoriozko damu zintzoa. Hala ere, aurrekoetan esana dizudanez, ez daukazu zeure senarrarekiko intimitateak horiek xeheki azaldu beharrik. Alde batetik, uste dut ez direla konfesatu beharrekoak ere, ez direlako bekatuzkoak, ezkontza barruko zeregin naturalak baizik.

— Jauna! Niri beti irakatsi didate umegintzarako moduan burutzen ez diren jardunak bekatuzkoak direla. Eta jardun zuzenetan ere, gehiegizko atsegina, edo atseaginean bakarrik pentsatzea, lizunkeria dela. Eta lizunkeria bekatu da.

— Hara, alabatxo, zure aita izateko gazteegia naiz baina. Ez dakit zer irakatsi dizuten edo zelan ulertu duzun, baina neu ere banaiz zure bekatuak orain arte barkatu dituen edonor bezain Jainkoaren ordezkari. Eta beronen izenean eta autoritate osoz diotsut ez zenutela zuk senarra eta hark emaztea umegintzarako bakarrik hartu, elkar - bizitzarako baizik. Hots, bizitza elkarri ahalik gehien gozotzeko.

— Ene Ama Oibarko! Berori dela ez baneki, deabrua dabilkidala esango nuke.

— Begira, Itxina! Ni ez naiz nor zure bekatu-ustea bortxatzeko. Neure uste zintzoa ematen besterik ez nabil, zeuk erabaki dezazun nor egon daitekeen Jainkoaren epaitik hurrago. Ziur dakidana da, bekatu izanda ere, nik ez daukadala horrenbeste xehetasun ezkutu entzun beharrik, egintzaren gorputzaz jabetzeko.

— Jauna! Nik ez dut xehetasunak eman beharra neuk asmatu. Orain arte, inork ez dit laburtzerik aipatu. Eta bai, batzuetan, argitasun zorrotzagoak eskatu.

— Zentzua baduzu, ezta?

— Baietz uste dut, hori inoiz ez da behar bestekoa izaten baina.

– Kasu honetan, apur bat da nahikoa. Zein da bekatua izendatzearen helburua?

– Oraintxe ez dakit zer esan, jauna.

– Neuk esango dizut. Bekatua izendatzen da, konfesorea jabetu dadin zer bekatu mota eta zenbatekoa den, gero aholkuak eta penitentzia araberakoak izan daitezen. Ez al da horrela?

– Izango da, berorrek badio. Baina berorrek ere, zenbat eta azalpen zehatzagoak jaso, hobeto jakingo du zer barkatzen duen.

– Ez dakit orain arteko zure konfesoreek zenbat azalpen behar izango zuten, baina nik ez daukat, zer barkatzen dudan jakiteko – barka apur bat gordinki berba egitea –, zure eta zure senarraren atzamarrak edo mihiak lehenik, eta gainerakoak ondoren, non-zelan-noiz-zertan ibili ziren ikusi beharrik, ze zirrituren bat beti geldituko da ezkutuan. Nahikoa duzu «senarrarekin jolasaldi bat egin» esatea, ustezko bekatuaren konposizio osoaz jabetu nadin. Zure aieneak eta senarraren putzak gorabehera, beti izango da berdintsua.

– Virgo Dei genitrix, Oibarko Ama laztana! Barka, jauna, baina nik ezin dut neure arima garbiturik ikusi, bekatuak lau hitzetan jaulkita.

– Orduan, gordinkiago hitz egitera behartzen nauzu. Ez duzu lauhun hitzetan beste bekatu astun bat eragin nahi izango, ezta?

– Jesus, ama txit errukior! Zelan diost hori berorrek, lehendik honen larri nagoenari?

– Autoritatez ezin bada, mesedez eskatzen dizut, Itxina. Ez eidazu gehiago zeure bekatuen deskribapen zehatzik egin, deabruaren tresna izan nahi ez baduzu.

– Jauna!!! Deabruaren tresna ni???

– Ez zeure erruz, baizik nire ahulez. Ez zara «jaun» batekin bakarrik hizketan ari. Sotana errukarri honen azpian, zeure senarrarena bezalako gorputz bat dago, zure kontaketa amorosoei eutsi ezin diena odol bekataria berotu gabe. Ez dut nahi, baina ezin dut. Gehiago egiten didazu. Laguntza larria eskatzen diodan Jainkoak ere zeure mende uzten nau. Ahalegintzen naiz burua sagrarioan sartzen, baina gorputza joan egiten zait. Lortzen dut diozuna ez atzemateko beste distraitzeara, baina zure xuxurla labaina, zure arnasa beroa hain zait exzitantea ezen irten eta berton ekiteko gogoak ematen baitit.

Egoera hauxe baita: batetik, hogeita hamabi urteko emakume lerden bat jardun amoroso bateko xehetasun guztiak kontatzen, iraulkak, igurtziak, hatsankak, estutu hemen, xurga han, guztia xuxurla gozoan, konfesatokiaren iluntasun umelean, eta bestetik, entzuten, belarritik hiru zentimetrora duela, hogeita sei urteko gorputz bat, sotanak natura osoa barruan gorde diona. Jainkoari eskatzeko moduan ze: «Atera nazazu hemendik, edo banoa misiolurretara».

– Ene Amatxo laztan Oibarko! Ez eidazu kontuan hartu hau entzun behar izana!

– Barka, Itxina, honela hitz egitea. Ez dizut eskatzen nik neure aldetik beteko dudala badakidan konfesio-sekretua gordetzerik. Konta nahi duzunari, baina tentazio mortal batetik salbatu nahian egiten dizudan eskariagatik kondenatzen nauenak ez du zerurik mereziko.

– Ez, ez, ez! Zelan esango diot inori? Jesus, ene Ama gurutzepeko! Honelakorik gertatu ahal zitzaidanik!

– Neuk ere ez nuen uste, baina gertatu da, eta berriro... Amaitu egin behar dugu, Itxina! Atzeko erreskada horrek guztiak zertan gabiltzala pentsatu behar du? Berriro gerta ez dadin, egidazu mesede haragikerien aitortzak laburtzeko hitz

bitara: «betiko zera». Edo hobe bakarrera: «zera». Bestela, aurkitu lastozko konfessore bat, ze, diozunetik, liriozkoak baino ugariago dira eta. Penitentziatzat erreza itzazu aldare aurrean zazpi Agur Maria, oherakoan Oibarko Ama Birjinari hiru salbe, eta orain Jesukristo neure Jauna, gauza bazara. Ego te absolbo in nomine Patris et Filii et Spiritus Sancti. Amen.

Kezkaz eta zain gelditu nintzen, berriro noiz eta nola itzuliko zen konfesatzera. Hilabete igaro zenean, artean astero etortzen baitzen, itxaropena galdua nuen, kezka gainditua, eta bihozmina handitua, pentsatuz: «Aurkitu dik lasto-fardoren bat!». Nire kastitate-botoak bere zilborrean birkorapilatu behar izan zuen. Irteeran, elizpean, solaskorruan biltzen ziren andre-talde eta neska-taldearen erdian (gizonak eta mutilak, tabernara zuzen), noraezean gelditzen nintzen. Errespetuz ohi nuen andreen aldera lehenik jorik, Itxinaren aurpegiarekin aurrez-aurre hurbilegia nola saihestu ez nekien, ez hainbeste bera ez bortxatzeko fintasunez, neure koloreak ezin kontrolatzeko beldurrez baizik.

Aitortzarik gordinenen egileak, emakumeak batez ere, sekretu sakramentalaren konfiantzagatik edo ohitura soilagatik, konfesioaren eta handik kanpokoaren arteko bereizketa batere immutatu gabe eramaten ohituta zeuden, baina ni oraindik berriegia nintzen, barne irabio batzuk inork igarri gabe ezkutatzeko. Edo horren beldur nintzen. Haiek ohituta zeuden konfessorearengan Jainkoaren ordezkoi abstraktu bat aurkitzen, baina nik, sekretua gordetzeko segurtasun osoan sentitzen banintzen ere, ezin nuen edozer entzun, neuronak eta beste zerbaitzuk aldatu gabe,

– Aizue! «Mariaren alaben» eguneko txokolate-jana non egitea pentsatu duzue? –galdetuz, solasa nesken korrurantz orientatzeko aitzakia ez oso originala aurkitu nuen.

Baziharduten izenez «txokolate-jana», baina azkenean askari jaukala izango zenaz, zein tabernatan, nolako menua, eta abar. «Eta abar» beharko, ni solas hartara baino adiago bainengoen, disimulu zailean, andreen korruan apur bat albokera nekusan Itxinaren aurpegira, ea zeinu argigarriren bat atzematen nuen. Aldi berean pentsatzen nuen zergatik solas-korruak, inork agindu gabe, beti zirkunferentzian osatzen ziren, eta ez, adibidez, triangeluan edo hexagonoan. Tarteka iruditzen zitzaidan Itxinari betertzak niganantz ihes egiten ziola, eta orduan lauburu forman adokinduriko zorurantz jaisten zitzaidan burua, han neure arbitrariedade geometrikoekin topo egiteko. Denak neure pentsakizun gratuitoak, seguruenik, harik eta berak mugiarazi zuen arte taldea, esanez:

– Ea, andreak! Gizonak tabernan eta gu haizetan? Goazen geure salda berora.

Apaizgoak sakramentu-marka inprimatu zigunean, gure izaera aldizka ridikulua apenas konpondu zuen, nirea behintzat, zeren «salda beroan» intentzio misteriosoak irudikatu baintuen. Tabernan, Itxinaren senarrarekin topo egitean, ezin nion, batetik, hotzikarari eutsi, pentsatuz: «Baleki honek nolako kontuak dakizkidan!». Eta, bestetik, barregurari, hain jaseko, hain hitz lasaiko, hain jantzi kuriosoko gizona halako zerrikerietan imajinatuz. Emakume biluzia, etzanik nahiz mugimenduan, eder eta dohaintsu iruditzen zait, jantzita baino kasik naturalago. Gizon biluzia ere, etzantasun edo tentetasun geldian, hor nonbait. Mugitzen hasten denean, oster, zenbait arrapalada kartsutan bereziki, gizaki biluzia baino gehiago iruditzen hartz larrutu bat. Horixegatik ez ditut maiteegi eszena erotikoak, gizon edo agure kaikuren bat beti traban dabilelako.

Fenomenoa beste sexutik –edo bien konbinaziotik– nola ikusten den pozik galdetu izango niokeen Itxinari,

baldin, egun hartatik denbora batera, nigana konfesatzera etortzeari utzi ziolako errezeloagatik edo, apur bat saiheska ote zebilen beldur izan ez banintz. Neuk ere saihesten nuen hurbilkuntza, batez ere bakarrean gurutzatzea egokitzen zitzaigunean, kale bakarreko herrixka batean noiznahi gerta zitekeenez.

- Bazabiltza, Itxina?
- Banabil, jauna, bai.
- Ondo joan, eta goraintziak etxean.
- Berdin berori ere, eta berorren partez.

Huskeria horixe nahikoa zen, nik haren aurpegi zeharkorrean barne-irribarre bat irudika nezan, azala garondorantz atezatu balitzaio bezala. Ez zen, berez, hitzunezia, konfesioko jarriotik alderantziz pentsa bazitekeen ere. Bost umeren ama oraindik hain gazteak merezi bezala, kontzientzia apur bat zabal zekion desioz, beste gabe joaten uzten nion. Neu ere ez bainintzen gai haren begi ustez neugatik iheskorrei tiratzeko, barne biolentzia bat sentitu gabe. Edo, beldurrago nintzena, kanporantz transluzitu gabe. Urte erdiren bat igaroa izango zen, berriz nire konfesatokian belaunikatu zenean.

- Agur, Maria txit garbia!
- Bekatu gabe sortua! –Ahotsetik berehala ezagutu nuelarik, gorputza kukuldu zitzaidan, hain ezustez eta ia ikaraz, egoera posibleari nola aurre egin.
- Banator berriro ere, jauna.
- Ez daukazu inolako konpromisorik nirekin.
- Konfesorea herrian edukita, elizarik eliza ibiltzea ez da itxura, berorren erdeinuan nabilela pentsarazteko moduan.

– Ez dago inongo erdeinurik. Zeure komenentziaz eta askatasunez erabaki baduzu, badakizu ni zure onagatik pozteko nagoela.

– Hasiko al naiz?

– Nahi duzunean.

– Astebete, azken konfesiotik.

– Ederto. Zeuk esan zer duzun.

– «Zera»?

– Ulertu dut. Aurrera!

– Haserrealdi bat ere izan dut senarrarekin, gero umeen gainera joan zaidana. Txarto-esan batzuetan parte hartu, gorrotorik eta horrelakorik ez baina. Atzo gauean, etxeko arrosarioari errazegi albo egin niola uste dut, umeei etsenplu txarra emanez. Besterik ez zait gogoratzen, jauna.

– Lehen bezain fin darraizula dakusat, baina pozten naiz, zeugatik, kontaketa delikatuak berba bakarrera laburtzen ikasi duzulako. Orain, gehiegi eskatzea ez bada, beste urrats bat eman behar dugu: berbatxo horixe ere laburtu.

– Berba bakarra laburtu, zelan?

– Esan barik utzita.

– Orduan zer egin behar dut? Hasperentxo bat, mm?

– Egin behar duzuna da «zer» hori aitor-zerrendatik ezabatu.

– Ene ama Oibarko! Hori lehengoa baino larriagoa da. Neu perbertitzea erabaki al du berorrek?

– Zu perbertitzeko ahalmenik ez luke infernu osoak ere, Erroma guztiak lagunduta. Ez nabil zure kontzientzia bortxatu nahian, itzuli zarela baliatuz. Baka - bakarrik, eta laburketa onartu duzula dakusdan zentzuak animaturik, neure izatearen apaltasunik handienez, baina karguaren autoritate osoz diotsut aitortzera beharturik aurkitzen zaren

«zer» horiek ez direla bekatu, Jainkoak berton fulmina nazan epai biribilenaren pean.

– Zelan ez dit horrelakorik inork iradoki orain arte?

– Hori beste misterio bat da. Bost ume ederren ama zaren aldetik, hemen Jainkorik inork ez du ikusi, eta gutxiago berarekin berbarik egin. Haren borondatea ulertzeko, beste inor horiek guztiek beste dohain edo argitasun badudala uste dut. Zeuk pentsa nori jaramon egin, baina: edo ez ekarri niri horrelako aitorkizunik, edo segi elizarik eliza, zeure arima nahigabetua eskaintzen.

– Ai, ene Jesus! Bost umeek baino burukomin handiagoak eragin behar dizkit berorrek.

– Umeak, zorionez, zoragarriak dauzkazu. Baduzu nahiko zeregin eurak orain arte bezain argi eta bizkor hazten, eta horrekintxe da Jainkoa gehien atsegindu dezakezuna. Zertarako zulatu nahi duzu zeure burua, inork eskatu gabeko transfixio amaigabez?

– Nik ez ditut bekaturen izaerak neuk asmatu. Ez ninteke beste barik nasaitu, hainbesteren arteko batek laxoago hartu nauelako.

– Ez nabil laxotasuna banatzen, zeruko justizia ordezkatzeko baizik. Ziurrenik, ez duzu premiarik izango, baina bazenu, Jainkoaren aurrean neuk defendatuko zaitut. Beste «hainbeste» horiena eginda dago euren aurrean ez jartzearekin. Sinetsi eidazu Jainkoari irain bat dela bera hain txotxoloa izan litekeela suposatzea.

Itxinaren bost umeak han zebiltzan elizaldean, hiru urtetik hamahirurako eskaileran, radarra baino zoliago eta enarak baino eleganteago. Aita ere, bere sendoan, gizaseme egokia eta suabea zen. Ez zen ulertzekoa, eta gutxiago, kontenplatzekoa, nola bizitzak hain zama material handia ezarria zion bati halako gainzama morala erantsi zioten, baldin ez bazen, euren sen despotikoa garatzearen, edo

aberrazio espiritualak elikatzearen, gogo ahulegien mentasun moldagarriaz baliatzen zirelako. Astebetera, Itxina zintzo belaunikatu zen berriro, konfesatokiaren bi alboetarik ilunenean, bestean ere ez zegoen argi sobrarik baina.

– Agur, Maria txit garbia.

– Bekatu gabe sortua.

– Astebete, jauna, azkenengotik.

– Nik itauntzea ala zeuk esatea gura duzu?

– Neuk ere esan nezake.

– Ekin orduan.

– Egia esan, «zer» hori kendu behar bada, ez dakit zeri ekin.

– Pozten naiz nasaitasun horretara benetan iritsi bazara. Ez dago zerbait nahitaez esan beharrik. Jainkoaren bedeinkapen osasungarria hartu, eta aurrera.

– Zer esanik gabe etortzea ere!

– Hori beste kontu bat da. Sanoagoa, nolanahi ere, okerreko esankizunez kargaturik etortzea baino. Hori bai! Hau barkamen-tokia da, Itxina. Nahiz eta berez bekataria garelara eta beti gaudela garbigai irakatsi ziguten, komeni da norberetik ere zerbait aportatzea, ganoraz barkatua izateko.

– Zer iradoki guran dabilkit berori? Bekatu egiten hasteko?

– Neu ere ez naiz hain txotxoloa. Egin ahal duzuna da etorrerak mehatzu. Nik uste dut nahikoa litzatekeela hilean behin, emakumeen egunean.

– Eta orduan ere ezer aipatzekorik ez banu?

– Dohatsua zu orduan! Hala ere, hutsik etortzen lotsa bazina, hilabeteen baduzu astia, eta saia zaitez ganorazko bekatu bat ekartzen, benetan barkaturik joan zaitez. Ni horretarako sartzen naiz lapiko santu honetan.

– Bekatuginan beren beregi hasteko aholkatzen ari al zait berori?

– Benetako absoluzioa nahi baduzu, bai. Ez dagoenik ezin da barkatu.

– Ez dut ulertzen bekatu bat zelan izan daitekeen «ganorazkoa».

– Bekatu «ganorazkoa» litzateke, inori kalterik egin gabe, norberari on egin ahal diona.

– Norberari on? Eta arimari?

– Biei.

– Adibidez?

– Irten domeka goiz batean senarra eta biok, pasa mugaz beste aldera, eman muin nonahi libre aurkituko duzuen ikurrinari, Miarritzen orain pil-pil dabilzan film gori horietako bat ikusi –sesio jarraitua ei dago–, eta gero, senarra ate batetik eta zu bestetik, galdu elkar egun guztirako. Mugaz hemendik zinema horietara doazenak, denak ere intentzio berdintsukoak izanik, ez da izango zaila galtze-lagun egokiak aurkitzea. Bueltan, senar-emazteok eguneko berri elkarri kontatzean, esperientzia ez dela izan hain biribila ikusiko bazenute, etxean errematatzen ahalegindu. Astebetean eduki azioa beratzen, eta kontzientziak gehiegi estutzen bazaitu, etorri hurrengo domekan konfesatzera.

– Hobe genuke egun bat horrela libratzeko moduan bageunde!

– Umeak bidali abadetxera, Lourdesera zoaztela esanda. Badakizu hemen oso gustura ibiltzen direna. Eta bide batez, Lourdesko mirari batzuk kontatuko dizkiet, zelan andre-gizon batzuk bistarik onenarekin joan eta elkarrentzat itsututa itzuli ziren. Eta abar.

– Zerak proposatuko dio gure gizonari horrelako plan bat!

– Ez daukazu ezer aditzera eman beharrik. Zinematik irteeran, zeu galtzea nahikoa da, bera ere galdurik aurkitzeko. Ikas dezala hark ere mundua ez dela ganaduak gobernatzea bakarrik, eta emazte santa bat adoratzea.

– Ene Jainko! Hau ere ikusi behar genuen! Ez naiz harritzen gure umeak berorren ipuinekin txotxoloturik ibiltzea.

Historiak jarraitu zuen, baina, behingoz, zentzu sanoan, alde guztientzat.

DONINA

Itxinarena baino subtilago izan zen Doninarena. Honek ere lizunkeriazko bekatuen azalpen xehe, luze, konpletoak ematen zituen, baina Itxinaren kontaketa nahigabetuak larritasun moral baten ondorio ziren bitartean, susmoa neukan Doninarenak ez ote ziren atsegin kontsentituak. Bilatuak ere bai, maleziaz pentsatzen hasiz gero. Baina zaila zen norbere leihatilapean belaunikatzera apaltzen zen gizaki soil batengan hain asmo kiribilak suposatzea. Itxinak senarrarekin bezala, Doninak, era luzeagoan, mutilarekin izanak aitortzen zituen. Neska gaztea zen, ez nolanahikoa, nahiz eta niretzat orduan guztiak ziren paregabeak, inposibleak zirelako edo.

Saiatzen nintzen azaltzen, Itxinari bezala, nahikoa zela ustezko bekatuaren izen orokor bat aipatzea, baina hark ere, Itxinak bezala, beste apaizen eta konfesoreen irakatsiak aduzitzen zituen. Ezin nion gogorregi aurre egin gehiegikeria bat zela uste nuenari, egia baitzen, diktadura militarren gainean edo azpian, diktadura moral ez txikiago bat zebilela, oso aktiboki. Egia zen, baita, Doninaren gogo sufrikorrak baino gutxiago ez nindutela arduratzen txandaren zain zeudenen esamesa posibleek. Minutu bat edo bitan erabakitzen ziren konfesioen seriean, bost minututik gorako saioak ezin ziren susmoren bat eragin gabe gelditu, batez ere Donina bezalako neska desiragarri baten kasuan. Entzuten baino pairatzen egoten nintzen neure kautan:

– Zer pentsatu behar diate hor atzean daudenek, eta herri osoak gero? Halako esamesek dortokek uretan bezala korritzen baitzuten. «Ari duk mamarru hori galde eta galde!». Edo: «Horrek ere bazekik haria norekin luzatu».

Etsirik ezingo nuela lortu kontaketa labur zezan, Itxinarekin efektibo gertatu zen metodoa probatzera jo nuen

Doninarekin ere. Alegia, bere fintasun eskrupulosoan, beste bekatu larri bat eragiten ari zela, ni ere ez bainintzen objektu disekatu bat sotana higatu baten azpian. Ez dakit nire aldetiko aitortzak alderantzizko efektua lortu zuen ala angustia erantsi batek gehiago estutu zuen, ze hurrengoetan deskribapen obsesiboagoak zekartzan. Hatzen ibilera erotikoa, adibidez, ezin zuen orokorrean kontatu, banan-banan baizik, haurtxoen eskuari heldu eta, hatz txikitik erpururaino, esaten zaion antzera: «Honek sua piztu, honek gatza egin, honek probatu, honek mahaira atera, eta honek... dena jan!». Ba, hori guztia trantze amoroso baten garapenean gertatzen zen.

– Aizu, Donina! –ekin nion behin–. Konfesatokia ez da solas luzeetarako gunea. Jendea txarto pentsatzen jarri behar dugu, jarrita ez badago. Ez al duzu uste?

– Eta zer egingo dut?

– Ba, ondo bazeneritzo, ez litzateke txarrena konfesatokitik kanpora berba egitea, astiz eta patxadaz. Nik uste dut kontu batzuk argitzekoak izan daitezkeela. Hala ez balitz, zeure esku legoke lehenean jarraitzea, baina trankilago berba egin eta gero.

– Zelan edo non berba egin genezake trankilago?

– Abadetxean, adibidez. Zu askotan egon zara, neska-taldean, abadetxeko aretoan. Abadearekin zeozertaz jardun nahi izanez gero, normalena abadetxera jotzea da. Ez al duzu uste? Zeuk nahi bazenu, jakina.

– Zergatik ez dut, ba, nahi izango?

Eguna eta ordua ipini genituen. Nire aldetik ez zen zaila, zeren, bi herriren kargua eduki arren (Gizaburuaga eta Amoroto), ez zen lantegi handia. Arratsalde bat zen, seiak aldean, umeekin eskola ondorengoa amaitu genuenean. Urduri nengoen, ikaraz ere bai. Gauari zati handia jana nion, sukalde zahar txikian atzera eta aurrera. Zer izango ote duk

—pentsatzen nuen— mutil baten neska batekiko lehen hitzordua? Nik hori ez nekien, eta jakitera ere ez nengoen destinaturik. Baina larri nengoen, zeren jakin-min desirosak atzematen ninduen baina gehiago aztoratzen baininduen haren erreakzio mindu baten beldurrak. Lehenik, argitu beharko zen zertatik zetorren hain azalpen zehaztuak eman behar izateko obsesioa. Horraino, tentagarri zen. Baina gero, berean tematzen bazen, eta konfesioak laburtzerik lortzen ez banuen, auzia marmarbide bihurtuko zen, eskandaluaren forma hartzeraino. Zer zuten besterik nahi «abade nahastaile» lez gorrotatzen gintuzten sektore inperanteek?

«Kaixo, arratsalde on —berdin berorri ere — zelan? — ondo, jauna — bazatoz? — bai jauna — aurrera!». Horrelako sarrera-hitzen ondoren, abadetxeko pasilloko ohol zahar irregularren gainean kilin-kalan, bera ere nire atzetik urduri zetorrela sumatzen nuen, nahiz eta, ziur, nireez beste arrazoi batzuegatik. Konfesioko salbuespen guztiz erritualetik aparte, beti multzoan tratatzen ohituta zeuden abadearekin bakarrean eta aurrez aurkitzea ezin zen erraza izan. Saiatzen nintzen naturaltasun laxo bat agertzen, baina pertsona batek bere intimitate sakonenak adierazteko prestasun osoan jarraitzen dizunean, txakurtxo batek bezain menkor, ez dakizu habia samur batera ala esku-bonba batera zoazen.

— Aretoan umeak edonoiz dabilta sar-irtenean, eta sukaldean berba egingo dugu, ondo baderitzozu.

— Berorrek dioen lekuan.

— Eseri hementxe, jauregi itxurarik ez dauka baina.

— Sukalde buñueldar bat dirudi —esan zuen zoko guztiei begira.

— Aizu, Donina! —hasi nintzen—. Jende aurrean edo elizan egoki izan liteke, baina hemen, sukalde zoko batean, «berorika» hori gogor egiten zait. Nahi baduzu, trata nazakezu zuka.

– Hori neuri egingo litzaidake gogor.

– Ondo dago. Ez gara huskeria batean endredatzen hasiko. Ez dakit konturatzen zaren, baina zure konfesioak hasita daude herrian berbabidea ematen. Ez dute ulertzen hain denbora luzean zeri ekiten diogun. Eta, jakina, jendea badakizu zer emana den susmorik okerrenak garatzera.

– Otu ere ez zait egin horrelakorik.

Irribarre ironiko gurako baten gainean, eguzki sortunaren kolorea aurpegiratu zaio. Beldur naiz, eta hori ziur egotea baino larriagoa da, jendearengan deskargatu ditudan «susmorik okerren» horiek neure patrimoniotzat ulertu ez ote dituen. Beno, hemen ezin gaituk pentsakizun insolubleetan txirikordatu.

– Pentsa zenezake minutu bat edo biko «pasada» bat, konfesioa gehienentzat horixe baita, hamar minutura eta inoiz gehiagora luzatzeak desesperagarri izan behar duela ilaran zain daudenentzat.

– Ez zait bururatzen zer konponbide izan litekeen.

– Konponbide erraza. Ez daukazu aitorkizunak horrenbeste xehetu beharrik, bekatu ustekoa izendatu eta aurrera baizik.

– Nire era ez da neuk asmatua, jauna. Ondo barkatua izateko, ondo azaldua izan behar duela ikasi dut beti.

– Nik ez dut hainbeste zehaztasun behar.

– Baina ni ezin naiz lasai gelditu, «mutilarekin halako zerak egin» esanda bakarrik.

– Zer pentsatuko luke zure mutilak horren xehetasun intimoak abadeen belarri zolietan dabilzala baleki?

– Nik ez daukat mutilik, jauna.

– Mutilik ez? Orduan zer da kontatzen duzuna?

– Pentsakizunak ez al dira berdin bekatu?

– Donina! Elefante kumea tronpatik dilindan baino galduago utzi nauzu.

Neure ezustean edo, argiago esanda, sustoan, lehenen pentsatu nuena edo nire barruko domingilloren batek pentsatu zuena izan zen: «Honek neu hartzen ote naik bere fantasien objektutzat?». Domingilloa bere zulora bidali nuen, eta pentsatu: «Gajoa! Gorputz horrek badin, ba, pentsakizunetik harago joateko modua!». Bigarren domingillo hori ere bidali nuen zulora, eta hurrengo pentsakizuna neure benetakoa izan zedin saiatu nintzen: «Txo! Distantzia bat berehala, ze hauxe izan daitekek kasu bat, deabruak maltzurki aurkezten diana». Domingiloek astia eman zidaten jarraibide bare samar bat aurkitzeko.

– Egia da, Donina, pentsakizunak bekatu izatea ez dela zuk asmatua, baina badirudi, konfesioan errepikatuz, bi aldiz gozatzea zeure inbentzioa dela.

– Jauna! Nola esan ahal dit hori berorrek?

Zerbaitegatik aipatu nion elefante kumearena. Neuretzat ere konfesioan entzun nezakeen gauzarik pentsagaitzena izan zen. Zein desburuk sartu zizkion buruera horiek, edo nola desburutu ziren haren buruerak, pentsakizunen ibilbidea errepikatzearen lantegi amaigabera beharturik aurkitzeko? Desiatzen dena bariazio analogoekin errepikatu ohi da. Beraz, behin entzun banuen, aurrerantzean nahikoa zuen «horixe» esatea, nik «horixe guztia» uler nezan. Sinesten nuen haren zehaztasun obsesioa ez zela bizioagatik, malko punturaino zintzoegia zelako baizik, konfesio hartan susmatzen nuen moduan. Pentsakizunak! Zer txar izan zezaketen, tartean mutilik ere ez bazegoen? Eta berak, berriz ere, pentsamenduan bazegoela mutila.

– Beti mutil bera al da? –galdetu nion.

– Berdin den kasuan, aldatuz nahiago.

– Hara! Poliandria mentala dirudi horrek.

– Zer da hori? Beste bekatu bat?

– Bai, beharbada, baina ez zurea, neurea baizik. Donina! Bariazio horretan ezin dut ekidin pentsatzerik neugan ere ez ote duzun pentsatzen.

– Jauna! Egia aitortzeko, nire pentsakizunak berorrekin ere katigatzen dira.

Aitortza horrekin taket gelditu nintzen. Haritik tiratzea tentazio handia izango zen, eta izan zen, baina pentsatu nuen: «Geldi! Deriba hau geratu egin behar da». Eta esan nion, ezer entzun ez banu bezala:

– Ongi da! Proba bat egingo dugu. Hurrengo zatozenean, zuk esan «horixe, jauna», nik erantzun «ederto, aurrera!», eta ikusi zer gertatzen den. Behingoagatik, infernua ez da handituko.

– Ez dakit gauza izango naizen.

– Orduan bilatu beste konfesore bat eta segi zeure erara.

Eskaria bete zuen, eta minbera nenbilen, jeloskor ez esatearren. Elizkizun orokorrez gainera, neska hutsen edo neska-mutilen taldearekin nituen harreman ugarietan, ezin nuen begirik saihestu beragandik. Eta begiratzuz gero, ezin nuen pentsakizuna ekidin: «Niregan pentsatzen jarraitzen ote dik?».

Donina eta Itxina. Biak antzeko kasuagatik aldenduta zebiltzanak nire konfesatokitik. Biak auzoak izanik, ez zekiten elkarren berri, nik urrunagotik biena nekien lez. Dardara puntu batek jo ninduen otu zitzaidanean haien bien korronteak, zubi elektrikotik bezala, nire bitartez, bata bestearekin komunika zitezkeela. Beldurra ere sartu zitzaidan ni, txotxongiloen kasuan bezala, haien maneiatzaille sentitzetik, haien fusible bezala urtzera pasako ez ote nintzen. Berriro ere berretsi behar izan nuen sentimendu batzuen extrabagantzia, zeren nire gogo hainbestean

okupatzen zuten pentsakizun haiek ez baitzeukaten garrantzi eragilerik nire asmoen arkitekturan. Halako zerbait nola lehoi-ama etzanak, umeen jolasak zaindu bitartean, betiko zuhaitzeko hegazti-aldrari begiratzen baitio, bere unibertsoko partetzat baino distrakzioztat. Behin edo behin, ostera, zuhaitzak egun oso bat badarama hegatziz bete gabe, lehoi-ama aztoratuko da, larrituko da, eta umeak tokiz aldatuko ditu, inguru madarikatutik bezala. Orduan ohartuko da distrakzioa ere oihanaren parte dela.

Denbora bazihoan, baina ahanztea zaila zen, noiznahi gertatzen baitzen elkar ikusi beharra. Gehienetan taldean, baina bakarrean ere bai, bidean gurutzatzean. Kale bakarreko herriek abantaila dute ezen elkar ikusi ezina dutenak ere elkar ikusten ohitzen direla, elkar ikusiko ez balute bezala. Goiz batez, Donina abadetxean agertu zen, ohiko sarrera-hitzen ondoren esanez:

– Amak agindu dit pakete hauxe ekartzeko berorri. Opariren bat izan behar du.

– Jesus! Zeren oparia?

– Gozoki batzuk uste dut, lehengoan berorrek egin ei zion mesede batengatik.

– Badakit zergatik izango den. Gernikan, azkenengo autobusa galdurik, norekin itzuli moldatu niolako izango da. Neuk ekarri izango nuen, baina abade batekin motorrean etortzeari nabarmenegi iritzi zion. Eman eskerrik handienak, opari hau ez zen inondik ere beharrezko baina. Zuen ama finegia da mundu zakar honetan ibiltzeko.

– Bada, bai, ez diogu askorik erakusten baina.

– Zeu zelan?

– Ondo. Etorriko naiz, luzeegi barik, berorren konfesatokira ere.

– Ez daukazu beharrik. Zeure barrua apur bat askatu baduzu, horixe da behinena.

– Ikusiko dugu.

Nire buruak motibo gutxi behar zuen abiatzeko. Oraingoan, helizeak bezala, seinale guztiak alde aurkitzen zituen. Amaren agindua saihesten ez zeukan gaitz, ama bera ere noiznahi ikusten bainuen. Berriz ere, pentsakizun hauek guztiak nire bizi-asmo nagusietatik oso urrun zeuden, baina nire gogoa bazebilen. Zer egin behar nuen? Lepoa moztu eta burua ostikatu?

Igande goiz batez, zortzietako mezaren ordu-erdi aurreko dandak jotzen ari zen kanpai-jolearekin ohiko hitz freskoak egin ondoren, elizan sartu nintzenean, arima bakar bat zegoen barru guztian, konfesatokia baino pare bat ilara atzeragoko bankuaren horma aldeko muturrean, konfesatzeko zain lez. Erdiko pasabidetik sakristiarantz paretik pasaeran, burua doi-doi eta begiak ertzeraino okerturik, iluntasun trinkoan, jantziaren zuritasunagatik ez izatera, inor bazegoenik ere nekez bereizi izango nuen. Donina zen. Nire nagiak eta logurak azkar joan ziren aldare gaineko santu-santa hieratikoen buruetan gora.

– Agur, Maria, txit garbia!

– Bekatu barik sortua. –Konfesatokian eseri nintzeneko hurbildu zen.

– Hilabete eta erdi, jauna. Apur bat luzatu naiz oraingoan. Lehengoarengana ez nuen joan nahi, eta berorarengana itzultzeak erreparoa ematen zidan.

– Donina! Ni entzuteko eta entzuna isilik gordetzeko nago.

– Gaur ez du askorik entzun beharko. «Horixe bakarrik».

– Horixe... zer? – ergel-buru egin nuen.

– Ez al ginen berbatu, hurrengoan, «horixe» esanda nahikoa izango zela?

– O! Egia! Ahaztua nuen. –Ahaztua... Beribilak!! Abadeok ezin dugu «barrabilak» esan—. Besterik ezer?

– Besterik ezer ere ez, jauna. Horixe.

– Pozten naiz zeugatik! Penitentzia barik, saria merezi duzu.

– Penitentzia gabe bidali behar al nau berorrek?

– -Errezatu, nahi baduzu, Agur Maria bat Oibarko Ama Birjinari, eskerrak emateko.

Historiaren atal bat hantxe amaitu zen, dotoretasun osoan. Denborak beste atal batzuk ekarriko zituen, ez gutxiago dotoreak, baina horiek konfesiotik kanpora gertatu ziren, eta ez dira sekretuan sartzen.

UMEEN KONFESIOA

Nire kasuan, umeen konfesioak humanizatzen zuen apur bat errituaren gozakaitza, nahiz eta neu, umetan, ikara handiz hurreratzen nintzen konfesatokia, ez bainekien, elizako iluntasun orokorraren barruan eta burua gortina artetik sartu ondoko iluntasun totalean, Don Gergorio ala azkonarra aurkituko nuen, ala Txano Gorritxoren otsoa. Azkenean, amaitu eta gero ere ez nengoen ziur ez ote zen izan otsoa Don Gergorioz mozorrotua, edo, gutxienez, azkonar bat ez ote zegoen abadearen ondoan. Neureaz gogoraturik, eta umeekin hartzen zaila ez zen konfiantzan bermaturik, haien konfesioak jolas serioago bat besterik ez ziren. Jainkoak ere eskertuko zuen lantzean irribarre bat egiteko motibo bat. Zortzi urteko neskatxo bat sumatzen dut leihoxkan, zutik bertara okertua, belauniko ez baita iristen ukondoan pausalekura.

– Agur, Maria, txit garbia.

– Bekatu barik sortua.

– Don Jabier! Txakurkume bat nahi duzu?

– Txakurkume bat zelan?

– Gure txakurrak lau ume egin ditu, eta aitak dio bat ez besteak hil egin behar direla, inork hartzen ez baditu. Abadetxean bi ere sar litezke. Hirurak ere bai, beharbada. Gero denon artean zainduko ditugu, jolas-orduetan eta.

– Ez dago txarto pentsatua, baina merezi du hobeto pentsatzea.

– Arin pentsatu behar da, ze gure aitak aitzurrari berehala heltzen dio.

– Egun batzuetan ez du hori egingo. Neuk esango diot amari gordetzeko aitzurra aitari.

– Orduan, abadetxera?

- Oraindik ama behar dute baina!
 - Haiek ama faltarik ez dute igarriko, begirik zabaldu ere ez dute egiten eta.
 - Baina amaren esnea behar dute. Berehala ekarrita, hil egingo zaizkigu. Abadetxean ez dago esnerik.
 - Neuk ekarriko dut etxetik.
 - Baina, begiak zabaldu arte, guk emanik ez dute edango.
 - Orduan, gero bai?
 - Zeozer asmatuko dugu. Kanpoan berba egingo dugu. Orain esan zeure bekatutxoak.
 - Nik ez daukat bekatunik. Horixe esatera etorri naiz.
 - Hau bai hau neskatxo fina! Errezatu Jesukristo neure Jauna, eta nik barkamena barik, bedeinkapena emango dizut.
- Txakurkumeak abadetxera ekartzea nola saihestu estudiatzen banuen lana, baina gozoago eta konpongariago izango zela pentsatu nuen udalbatzari festaburuko meza nagusira bandera espainolarekin sarrera moztea baino. Oraingoan bederatzi urteko mutiko bat dator, aurretik berau, gizontxo baten moduan. Alegia, gizonen moduan.
- Agur, Maria, txit garbia.
 - Ez diot erantzun.
 - Agur, Maria, txit garbial!
 - Hemen ez dago inor... inor... inor –darantzut, oihartzuna imitatuz.
 - Zeu zer zara, ba?
 - Ni ez nauk neu.
 - Zu Don Jabier!
 - Ez al duk esaten, ba, «Polentiño perratzailea» gezurrezkoa dela? Neu ere gezurrezkoa nauk.
- «Polentiño perratzailea» ipuin bat zen, deabruena, umeei asko gustatzen zitzaiena.

- Orduan, gezurrezko bi! Polentino eta zu –mutikoak.
- Ni bai, baina Polentiño ez. Neu nauk Polentiño!
- Bai, kontixu! Eta ni deabrua, ezta?
- Zergatik ez?
- Ni ez nator infernutik –mutikoak.
- Baina joango haiz, behar denik sinesten ez baduk.
- estutu nahi dut.
- Gezurra ez da sinesteko.
- Egi antza daukanean bai!
- Zer ardura dio egia ala gezurra izan? –mutikoak.
- Hortxe izorratu nauk! Benetako deabrua haiz. Egia zein gezurra, berdin?
- Berdin-berdin ez da izango, baina nik ez diet igartzen.
- Zelan dakik, orduan, Polentiño gezurrezkoa dela?
- Zeuk esan zenuen sermoi batean infernuaren beldurrik ez izateko. Egotekotan ere, hutsik zegoela. Gero zer izango kontua eta, Polentiño joan zenean, infernua bete-beterik.
- Beterik, deabruz! Ez lagunez. –nik.
- Deabruak ez al dira lagunak?
- O! Uste diat ipuinak gutxitu eta dotrinari gehiago ekin beharko diogula. Egingo al diagu konfesioa?
- Elizan atzera begira egon, eskolan maistrari zinuak egin, amari lantzean gezur bat esan...
- Haor, ba! Lehentxoago ez al duk esan zer ardura dion egia ala gezurra izan?
- Gure amari ere ez dut uste askorik ardura dionik.
- Harritzen nauk!
- Atzo esan nion amamak erre kara salto egin zuela.
- «Zein errekatara?», itaundu zuen, eta nik:

«Handiral!». Eta berak: «Orduan, utzi bakean». Eta untxiari larrua kentzen jarraitu zuen.

- Amama agertu al zen?
- Agertuko ez zen, ba, gezurra baitzen?
- Hara! Kasu batzuetan egia duk, beraz, gezurra zein egia antzekoak izatea. Besterik?
- Inoiz berorri ere egin izan dizkiot zinuak.
- Orain zergatik diostak «berori»?
- «Zu» izanda, bekatuak barkatzen al dira?
- Zu zein berori, bietan ni bera nauk.
- Zu bai, baina bera ez –mutikoak.
- Orduan, nor nauk ni?
- Zu, gure laguna. Berori, Jainkoaren ordezkoa.
- Heuk beti jakiten al duk nor haizen?
- Ez dakidanean, amari galdetu, eta eginda!
- Hori duk suertea! Errezatu hiru Agur Maria, eta hau ere eginda.
- Bi ez al dira nahikoa?
- Errezatu orduan bat ganoraz.
- Bat gutxitxo ez al da?
- Orduan bat ere ez! Ego te absolvo... Spiritu Sancti... Hanka hemendik!

Lehen jaunartzerako konfesioa, entseguak barne, aurretik izan ohi zen, mutiko zein neskato. Aurpegiz aurpegi hitz egin zenezakeen, erdi ilunetan bazen ere. Lehen jaunartzetik aurrera, oster, ipso facto, andrezkoen aldetik etorri behar zuten, sei urteko haurtxoa bazen ere. Bezperan aurretik, biharamunean albotik, sareta ondo forratuak bereizirik.

- Agur, Maria, txit garbia!
- Bekatu barik sortua.

- Ez da ezer ikusten –neskatxoak–. Hor zagoz?
 - Erantzun dizut. Ez al duzu entzun?
 - Ez dut ezer ikusten.
 - Nire ahotsa ezagutzen duzu.
 - Beldurtu egiten naiz.
 - Badakizu neu naizena.
 - Ez naiz ailegatzen.
 - Jarri zutunik. Zutundu zara?
 - Bai, jauna.
 - Ukondoak pausalekuan ipini ere bai?
 - Beldurtu egiten naiz.
 - Malentxo! Neu naiz. Don Jabier.
 - Baina ni beldur naiz.
 - Ipuintxo bat kontatuko dizut, zeuri gustatzen zaizuna.
 - Orain ez dut ipuinik nahi.
 - Nahi al duzu aurretik eta...
 - Bai!! – Esaldia amaitzeko astirik ez dit eman.
 - Malentxo, Malentxo! Negarrez zagoz?
 - Ia-ia bai.
 - Ia-ia ala negarrez? Malkoak darizkizu.
 - Albotik ez dago iluna besterik.
 - Ilunak ez du haginkarik egiten. Begira! Sartu burua barruratxoago. Ez dago beste inor. Neu bakarrik nago. Ikusten?
 - Honela, bai.
 - Egingo al dugu orain beste probatxo bat albotik?
 - Ez, ez, ez!! Ni albotik ez!
 - Beno, beeno... lasai, laaaasai... Berton egingo dugu.
- Edozein urrats ustez garrantzitsu ematea erabakitzen nuenean, senak zioetan haurrekin probatzetik hastea zela efektiboena. Konfesio kontuan horixe egin nuen, ez haurren

ulermenaren berez garatuago, baizik oraindik biziari gabe zegoelako. Eta mendeetako erritu sakratu bat jokoan zegoelako. Artean konturatua nintzen, giza bizitzako auzi garrantzitsu gehienetan, gakoa ez zela egia bat ulertzea, baizik asmatzea zergatik ez zen komeni ulertzea. Haurrek hainbesteko distortsiorako gaitasunik ez zuten gero, neuk eskatu gabe utzi zioten banaka konfesatzeari.

Ari ginen ohiko talde-konfesio baten prestakuntzan, nahi zuenak bere bekatuak denen aurrean esateko aukera emanek. Bekatuak edo huskeriak, ia adostuak ziruditenak: amari txokolatea ostu, elizan atzera begiratu, maisu-maistrei atzetik zinuak egin, lagunari burula egin, lagunekin drogan egin... Bost hornitu arte beti. Batzuk bari edo hiruan geratzen ziren, eta ez zekiten zer gehiago asmatu. Ekitaldi batuak laster hartu zuen konfesioa baino enkante antz handiagoa.

- Amari txokolatea ostu, zenbatek? –galdetu nien.
- Neuk, neuk, neuk, neuk... –denen eskuak goraka.
- Herri honek aberatsa dirudi, etxe guztietan txokolatea egoteko –diot..
- Zuenean ez al zegoen? –neskato batek.
- Gurean bazegoen, baina txakurrentzakoa. Guk ezin izaten genion haginik sartu.
- Hori gezurra! –ia guztiek.
- Gezurra zelan esango dut, ba, konfesioan gaudela? –nik.
- Ene! –beste neskato batek–. Abadeak ere konfesatu egiten al dira?
- Goazen aurrera! Zinuak egin, zenbatek?
- Neuk, neuk, neuk, neuk...
- Lagunekin drogan?
- Neuk, neuk, neuk, neuk...

– Nik txakurrarekin ere bai auzoko alfalfatzen –Kiliko izeneko mutiko batek—. Aitita Asentziok belarriak majo bihurtu zizkidan

– Penitentzia eginda daukak, orduan –nik—. Elizan atzera begiratu, zenbatek?

– Neuk, neuk, neuk, neuk... –geroz txilio handiagoak.

– Lagunei burla egin, zenbatek?

– Neuk, neuk, neuk... Neuk ere bai, neuk ere bai!...

– Baina nik lau bider bakarrik, eta honek, hamalau bider! –mutiko batek alboko mutikoagatik.

– Ez zarete makalak, kontaduria badaroazue. Orain itxi begiak eta jarri kontzientziara begira.

– Nik ez dut ezer ikusten –mutiko batek.

– Ikusiko duk, begiak ondo ixten badituk.

Entzutekoak entzunik, aitorkizunak amaitzea ez zen gutxi kostatu, askok bertan asmatzen baitzituzten, bestea baino gehiago izatearren, edo gutxiago ez izatearren. Ondoren, bekatuaren zentzua azaltzen saiatu nintzen, ez zirenak (huskeriak) eliminatuz, eta izan zitezkeenak seinalatuz. Azkenean, absoluzio kolektibo bat egin genuen, ez aurretik garbi ohartarazi gabe, norbaitek, ondoren, betiko eran banaka etorri nahi bazuen, konfesatokian eseriko nintzela. Inor ez zen etorri.

Konfesio-mota hura ez zen, noski, ezustean inprobisatua. Aurretik bidea landua nuen hurrekin, baita herritarrekin ere taldeka (neskak, mutilak, emakumeak, gizonak), edo sermoi orokorretan. Ez nintzen konfesioa bezalako erritu hain zentral eta barneratu bat edonola lokatzen hasteko bezain inkontzientea. Banekien hurrek lehen konfesio kolektiboaren berri euren etxeetan berehala kontatuko zutela. Hurrengo igandeko sermoia azalpen bat emateko baliatu nuen, egina argudiatuz eta detrakzio

posibleei aurea hartuz. Herritar gehien artean, gauzarik sakratuenetan ere, zentzua aplikatzearen aurkako interesik ez zegoen. Hala, ez zen inolako gerra santurik behar izan, nahiz eta bai sortu zenbait kezka, euren buruak beste eragile batzuegandik nola defendatu jakiteko.

– Lekeitioko artzapezak zer esango luke?

– Ez daukat itauntzeko asmorik –erantzun nuen—. Hemen neu naz zuen arimen erantzule, bera bezain abade.

– Baina haren autoritatea berorrena baino gorago dago.

– Horretan gatazkarik sor baledi, eztabaida bat antolatuko dugu, eta zuek jarraitu gehien konbentzitu zaituenari.

– Eta gotzainak berori desautorizatuko balu?

– Hark nahiko zeregin dauka Francorekin paliopean ibiltzen.

– Eta Aita Santua?

– Aita Santua Erroman dago, eta Erroma urrun dago.

Hurrengo konfesio egunean, haurrei berriro konfesio indibiduala proposatu nien, aurrekoan haserre joan zirela jakin nuela esanez, derrigortu ei nituelako. Denak zorua ostikatzen hasi ziren, oihuka:

– Gezurra! Nork esan du hori?

– Horixe entzun nahi nian –pentsatu nuen, neure burua, agintzen barik, obeditzeko plantan jarritz.

– Haurrei obeditu? Horiek zer dakite zer komeni den!
– norbaitek objektatzen bazuen, argudiatzen nuen:

– Oinarrizko sakramentua den bataioa, afiliazio kristaua nolabait, ezjakintasun osoan hartzeko gauza izan baziren, «amari txokolatea ostu» bezalakoak nola konfesatu erabakitzeko adina nortasun ez al diegu aitortu behar?

Atzea gordetzeko erarik efektiboena aurea erakustea dela jakinik, prestatu nongoen ahalik duinen erantzuteko

salbuespenei. Askotan gertatzen zait, ordea, etorri behar duela ziur nagoen kinada bat gutxitan etorri ohi dela itxaroten nuen moduan, edo itxaroten nuen aldetik. Oraingoan, ez nuen itxaroten eliztar batengandik eta hain era zuzenean etorriko zenik. Gerraostea miseria bat izan zelako ustea gezurtatzeko egina zirudien gizon puska baten besoak konfesatokiaren ate apal, inoiz apalgarrian kokatu zirenean, neure burua etxolarekin iraulia ikusiko nuen, eliz horma sendoaren kontra bermatzen ginela oroitu ez banintz.

– ¡Ave Maria purísima! – hots egin zuen, eliztar guztiek jada onartua zuten «Agur Maria txit garbia»-ren lekuan.

– ¡Sin pecado concebida! –neuk ere erantzun argiro, berak, seguruenik, itxaroten ez zuen moduan.

– Ia hilabete, jauna. Hilean behingo ohiturakoa naiz, baina aurreratzea pentsatu dut, laster konfesio indibiduala amaituko dela baitirudi.

– Ez dut uste. Non entzun duzu hori?

– Umeak ez al dira hasi denak batera konfesatzen?

– Zu ez zara umea.

– Ez oraindik. Baina, normalean, honezkero berorrek ere igarriko zuenez, umeekin hasten diren probak gero nagusiekin aplikatzeko izaten dira.

– Ez daukate izan beharrik –nik–. Ez dut uste Jesukristok «utzi umei nigana hurbiltzen» esan zuenik nagusiak engainatzeko intentzioz.

– Jesukristoren izenean, buru bihurri samarrak ez al dabiltza hemen aspaldion?

– Neu, behintzat, ahalegintzen naiz zintzoa izaten, eta uste dut jendeak ere halaxe hartzen nauela.

– Jendeak, sarritan, engainatua izan nahi du. Hain praktika sakratu eta mendetsu bat apurtzeak zer on ekar

lezake? Ez al da izango beste asmo batzuetarako zeharbide bat?

- Asmo politikoak esan nahi al duzu? –galdetu nuen.
- Horra! Ikusten zer ederto ulertu duen berorrek?
- Igarri, areago, zure kasuan zaila ere ez denez.
- Uste dut punta larregiri tiratzen ari dela berori.
- Buru handi bat nabari nuen belarri kontran.
 - Gazteei burua berotuta uste al du herria altxatzea? Hemen nork ekarri ditu lana, bakea eta ongizatea?
 - Hara, Malon! Eta barka ezizena erabiltzea. Hau penitente moduan etortzeko lekua da, ez akusatzaile moduan. Nik estimatzen zaitut eta gustura egingo nuke zurekin berbaldi lasai bat, abadetxean edo nahi duzun tokian.
 - Abadetxean jende ezezagun askotxo ez al dabil?
 - Zu etorriz gero, portzentajea jaitsiko litzateke.
 - Ikusiko dut! –marmartu zuen—. Igual agertuko naiz gaineko egun batean.
 - Badakizu hango atea denentzat dagoela zabalik.
 - Horrek harritzen nau! Edonorentzat zabalik!
 - Denentzat esan dut.
 - Egongo gara.

Konfesioa erarik klasikoenean amaitzeko, gizon puska hura aurrean belauniko ikusi nuenean, «ego te absolvo... amen!», nire belaunetako haragi-tokorrak, seminarioko belaunikaldiek sortuak, hezurreraino mindu ziren, halako pisua gainean imajinatuz. Pentsatzen nuen abadetxera ez zela etorriko, baina lortu zuen apur bat kezka nendin, ez hainbeste, presio inguratzailea estutzen ikusi nuelako, baizik enfrentamendu bat, norbere eliztar batekin eta hain herri txikian, ia «etxeko» bihurtzen delako. Gauza jakina da etxe-odola, onean tiratzaile bezala, okerrean lehergarri dela.

Itxaroten nuena zen klero baten maiseoa, zenbaiten ahoan detrakzioa izango zena, baina hori ere uste ez nuen eran iritsi zen. Larunbat goiza eskolarra eta arratsaldea jai izaten zenez, eguerdia baliatzen genuen, dotrina-ordu lasaiagoan, konfesioak ere egiteko. Ohitura horren jakinean zeuden zenbait apaiz ordu horretantxe azaltzen ziren, pasaeran bezala, bisita aitzakian. Umeein elizan aurkitzen baininduten, han geratzen ziren otoitz plantan, ekitaldia amaitu arte. «Horiek zeremonia ikusmiratzera zetoztek», pentsatzen nuen. Haien lekukotzan, azalpenak eta erritua bera biltasun eta seriotasun handiagoz burutzen genuen, umeak ere ohartzen baitziren obserbatuak zirela. Azkenean, hauek etxera bidalirik, elizpean bisitariekin solastatzean, batzuek bekokia zimurtzen zuten, baina baziren hunkiturik ziotenak:

– Ez nian pentsatuko umeeiko zeremonia bat hain samurra eta errespetuzkoa izan zitekeenik.

Neuk uste baino naturalago irtengo zela guztia pentsatuz atsegintzen nintzen. Ez dezepzio puntu bat gabe, dema intelektual eta teologiko baterako gai oparo eta horzduna neritzon bat era mantsoegian erabakiko ote zen. Eskualdeko kleroak hilean behin egiten zituen bileretako batean, «erretiro-eguna» deitzen zitzaion hartan, artzapezaren esku zegoen ohar-txandan, entzuten hasi nintzen:

– Badut beste esankizun bat ere, gure Eliza Ama Donearen fede eta praktikei muin-muinean dagokiena. Zenbait kristau eta elizgizonen kexak ailegatzen hasi zaizkit, zelan abade gazte batzuk zabaltzen hasiak diren umeei ezin dutela bekatu mortalik izan, nagusiek ere ez daukatela infernuaren beldur izan beharrik, eta horrelakoak. Badakizue gure Aita Santu gurgarriak pontifikatu berri duela, argi eta biribil berretsiz infernuari buruzko doktrina katolikoa.

Olatua portua irensteko beste harrotu aurretik, izan dezagun kontu zorrotza nolako anbiguetateak predikatzen ditugun.

– Barka, Don Hipolito! –hasi nintzen, entzulegotik zutiturik—. Predikari hori ni banaiz, ez dago inolako anbiguetaterik. Nor da hemen dioenik umeak infernu eternala merezi izateko besteko bekatua egiteko gai direla, gure diktadura odoltiak berak ere aitortzen duenean umeek ezin dutela erantzukizun penalik izan? Diktadore guztiak haren imitazio kaskarrak baizik ez liratekeen arketipo basatitzat jo behar al dugu Jainkoa? Suposatzen dut hemen lasai berba egin daitekeela, konfesio-sekretuaren gordetzaile garenez gero.

– Lasai, baina neurtuta! –dio Don Hipolito artzapezak, haserretik ala dardaratik gehiago duen igartzea zail den autoritatez—. Gurea ez da mundu honetako erreinua epaitzea, zeruko erreinua lantzea baizik.

– A zelako erreinua, ume errugabeak betiko sutara jaurtitzeko kapaz dena!

– Hori utzi Jainkoaren esku.

– Baina Jainkoa gure esku dago. Ezin dugu haren irudia hainbestean deprabatzen utzi.

– Horretarako predikatzen al duk infernurik ez egotea?

– Nik ez dut esan infernurik ez dagoela, hutsik dagoela baizik.

– Bertan izan al haiz?

– Zeu beste. Gutxi baderitzozu, Aita Santua beste.

– Fedea fede duk! –artzapezaren koloreak geroz goriago—. San Tomasenera itzuli behar al diagu, bi mila urte sasira botata?

–Gauza bat egin genezake –jartzen naiz bare-bare—. Infernua habitaturik dagoela esan behar bada, izenda dezagun nortzuk doazen hara. Niri kristau-karitateak ez dit

uzten merezi ez dutenak alferrik sufritzen ikusterik, merezi dutenak seinalatzeko gauza izanda.

– Adibidez?

– Adibidez, Francorekin paliopean dabiltzanak.

– Gure gotzaina?

– Edo Francoren krimenak eta ondorioak bedeinkatu zituen Aita Santua.

– Gotzainak eta Aita Santuak infernugai direla esan nahi al duk? –atzamarra pistola eran jarritz.

– Gizaburuagako eta Amorotoko umeak baino lehenago bai.

– Oraintxe ez al duk esan infernua hutsik dagoela?

– Esan dut, baina dudan jarri nauzu.

– Ba al dakik nolako inpietateak esaten ari haizen?

– Horregatik nioen hobe genukeela infernua hutsik dagoela predikatu. Zeu ere lasaiago biziko zara, beharbada zail egingo zaizu baina.

– Zuei ez al zizueten aipatu seminarioan obedientzia konturik?

– Obedientzia itsua, gainera! Gertatzen dena, begiak itxi eta zentzua irekiz gero, gauza harrigarriak ikusten direla, kardinal bat usoa lumatzen eta.

– Nahikoa da! Arratsaldean jarraituko dugu.

ERRETIRO EGUNA

Hilean behin, artzapez-barrutiko abadeok (eskualdea, nolabait) «erretiro-eguna» zeritzona izaten genuen. Gogoeta espiritualen ondoren, auzi pastoralak jorratzen ziren, teorikoki haiek askoz behinagoak, baina, izatez, hauek beti zehatzagoak, non gotzainaren eta bitarteko hierarkien aginduak eta ildoak transmititzen baitziren. Baita eztabaidatzen ere, obedituak izan beharreko baldintzan beti ere. Lekeitioko Ospitalean deitzen zen bilera hura lagunartetzat ere alazo etorri ohi zen, batez ere bertako mojek prestatzen eta zerbitzen ziguten bazkari oparo, merke eta (pentsatzen nuen) lar beneratzaileari esker.

Ohiki, artzapez-barrutiko hogeit hamar bat buru batzen ginen, baina, hizlari ospetsuren bat deitua zenean (teologo edo moralista handitzat zegoenen bat), inguruko artzapez-barruti eta komentuetara ere zabaltzen zen gonbita. Halako eran, non, inoiz, ehunerainoko taldea elkartzen baikin, abadeak eta hainbat fraide mota batera, artean denok sotanadun edo abitudun. Gehi ospitaleko mojen komunitatea, hain hitzaldi seinalatua entzuteko graziaz galdu nahi ez zuena, bazkari-lanak aurretik eginda utzirik. Moja gajoak urtu egiten ziren, hainbesteko sakralitatea hain zuzenki zerbitu ahal izateko dohatasunean. Herrian, «bele beltzen» ezohiko bilkura hura deigarri bezain dudagarri gertatzen zen, ez baitzekiten seinale ontzat ala kontrakotzat ulertzekoa zen.

Egun hartan, teologia sakramentalean autoritate gorentzat zegoen doktore bat etorri zen, ikasketak Salamancan hasi, Erroman amaitu eta Alemanian osaturik, bere liburuak misio-lurretan itzuliak izan zirena. Kasik mundu guztian, alegia. Gotzainak ere asistentzia iragarria zuen, non, gur- eta men-erakutsi inoiz ez nahikoaren bilaketaz harago, ordenara dei zorrotzen bat susmatzen

baikenuen. Azken orduan, Bilbora ezustean etorri zen espainiar ministro baten harreran egon behar zuela-eta, bigarren bikario diozesanoa bidali zuen ordezkari, lehenengoa bere ondoan behar baitzuen, ministroa ezker-eskuin aldamentzeko.

Espektazio biziz itxarona zen hitzaldiaren gaiak zioen: «Penitentzia, barkamenaren sakramentua». Hizlaria saiatu zen azaltzen, magistralki bezain bihozberaki, penitentiaren sakramentuan, ordain-beharraren alde latza ahaztu gabe, barkamenaren espiritu maitekorra zabaldu behar genuela. Konfesioa, betiko kondenatik libratze gisan baino gehiago, Aita eternoaren besoetara itzultze gisan ulertu behar zela. Entzulegoak emoziorako predisposizio osoz jarraitu zuen azalpena. Txaloetatik esan zitekeen benetako errebelazio-une baten bizitzaile izan ginela. Hizlariak galde-erantzunen txanda ireki zuen, dudak argitzeko asmoz adina (pentsatzen dut gaur), laudorio handiak jasotzeko itxaropenez. Zenbait interbentzio eta euroi zegozkien erantzunen ondoren, zutitu nintzen, batzarreko gazteena, eta azaldu nuen:

«Hitzaldiaren espiritu zabalkor, onberaren haritik, eta hizlariak transmititu nahi izan digun eta eskertzen dugun konfiantza-giroaz baliaturik, gaur egungo konfesio-praktikan sortu zaizkidan kezka delikatu batzuk azaldu nahi nituzke. Ahalik apalkien, noski, neure ofizioango berritasun oraindik eskarmentu gabearen jakitun.

Ez dago azaldu beharrik Elizak zeintzuk arrazoi ebidenteengatik ezarria duen andrezkoen konfesioa albotik eta belauniko izatea, sareta ondo forratuzko leihoxkek bereizkuntza zorrozki bermatzeko moduan, hemen dauden moja beneragarriek ondo jakingo dutenez. Hain argi ez dagoena da zergatik ezarri zen gizonezkoena aurretik eta

tente, konfesatokiaren espazio doi-doiak kontaktu fisikoa nahitaezko egiten duela.

Fisikoa edo, argiro hitz eginda, karnala. Gauza jakina baita hain hitz polita bezain grina diabolikoa den «libido» horrek (jainkosa bat dirudi) sexu ezberdinak nahiz berdinak atzematen dituela. Internatu zorrotzetatik pasatu ginenok geure haragietan sentitu ahal izan genuen fenomeno. Gure bizitza komunitarioko sloganik inperatiboena «noli me tangerel» zen. Ez ni uki! Hartan itsuturik genbiltzan, edo noraezean, gutxienez. Haurtzaro inozentean sartu ginenoi kostatu zitzaigun debekuaren zentzuaz jabetzea. Baina hain karrera luze eta inoranzko ihesbide gabea, zaila zen norbere izaera ere ez erortzea debeku haiek erauzi nahi zizkiguten deribazioetan. Aitortu behar dut niretzat konfesioa, nerabezaroan batez ere, nahiko atzera eragile izaten zela, matrailak matrailen kontra, aholku zuzengarriak berotasun besarkatzailez emateko joera zeukaten konfesoreekin. Inoiz, seminarioan, neure urduritasun ez oso imajinatiboan, aurpegia gorotz usainez eramatea ere pentsatu nuen. Eta egin! Metodoak lortu zuen konfesorearen burua urruntzea, baina hilaren azkenean zero lotsagarri bat jaso nuen urbanitatean, komunitate osoaren aurrean. Kendu zitzaidan, bai, esperimentu berrietan saiatzeko gogo!

Goikoengana sentitzen genuen atzerakadak ez zituen moztzen geu lagunon artean sortzen ziren tankera horretako irritsak. «Adiskidetasun partikularrak» izenekoak, sutsuki madarikaturik zeudenak. Goikoen faboritotzat nabarmentzen ziren mutiko politen inguruan, haien kontsiderazio mailaren inbidiaz gainera, euren ederra irabazteko lehia inoiz obsesiboetan korapilatzen ginen. Gehienok apenas izango genuen parte aktiborako zortetik, naturaren jokaera txit selektiboaren arabera. Baina obserbatzaileon tropel nagusitik, orientazioa aldatzea ez

bazen ere, bai lortu genuen bifurkatzea, nire kasuan zehaztea zail litzatekeen proportzioan.

Eta hona orain, konfessorearen tokian jartzea egokitu zaidanean, bekatuen aitortzak berak non ikusarazi didan zer zabaldurik dagoen gaitza penitenteen artean, baldin guztiek neugana jotzea hautatu ez badute. Areago oraindik, bakanetakoa nintzelakoan, apaizak ere konfesatzen hasi naizenetik, gure gremioa ere dezente kutsatua dela ikusi dut. Nire natura bekatari eta zoritxarrez ahulegiarentzat, «Aita gureak» dioen bezala, gaitzetik zaintzeko erraztasun doi bat besterik ez dut eskatzen, trantze horretako intzitzazio etengabeen lekuan.

Emakumeekiko grinan badut, gutxienez, kastitate-botoak inprimaturiko kemen erantsi bat. Baina beste norabidean, ez daukat neure lotsa torturatzaileraz eta konfessoreen aldetiko ez-ikusi insolidarioaz beste heldulekurik. Berriz ere, «Aita gurea»-n diogu «ez gu utzi tentazioan erortzen». Horren lagungarri efektibotzat irakatsi ziguten «tentazioa aitaren batekin uxatu» delakoak ez dit balio kasu honetan. Ez baita itxura aitarenka hastea, penitentea beso artean duzula. Haurrekin molda zenezake nolabaiteko disimulu bat, baina mutil edo gizon baten muturretan nola aplikatu behar duzu baliabidea?

Azken aldion, turisten aldetik, batez ere, zeintzuen joerak herritarrek zer erraz imitatzen dituzten bai baitakigu, mahuka motzez konfesatzera etortzeko ohitura zabaltzen hasia da. Hor haragizko kontaktua, espazio soilagatik nahitaezkoa, ezin duzu saihesten ahalegindu, penitente gaizoa beraganako higuina delako sentipenak gehiago apaltzea eragin gabe. Ez dago mahuka motzetaraino jaitsi beharrik. Oraingo alkandora tergalazko horien mahukak ez dakit ez ote diren tentagarriago ukitze zuzena bera baino.

Ezin ahaztu, bestalde, emakumeekiko praktika separatzailea ez dela beste zenbait praktikarekin bategi datorrena, zeren, konfesioaren gurentasunari ezer kendu gabe, bera baino sakramentu handiagoa den eukaristian, Jesusen beraren gorputza tarteko dela, apaizaren hatzak lasai kontaktatzen dira jaunartzaile femeninoen mihiekin, aurpegien eta gorputzen dekorazio guztiak lagundurik. Badakizue moralista handiak daudela defendatzen dutenak mihia dela organorik lasziboena, eta hatzak, eragile printzipalak.

Gizonezkoetara itzulirik, badakizue konfesio indibidualaren praktika oso mende berankorretan nagusitu zela Elizan. Garai haietan, hain zuzen, non, San Agustinen eraginez batez ere, pentsamendu platonikoa arrakastan baitzebil. Batek baino gehiagok susmatua du, dagoeneko, konfesio katolikoan kointzidentzia handiegia dagoela Platonen homo-harremanen onespenearekin. Kointzidentzia lar handia, kasuala izateko. Gizonezkoen kasuan bai, behintzat, zeren lesbianismoa, baldin bazegoen, bistaratzeko baino duinagotzat jotzen zutela baitirudi. Joera onesteaz gainera, berak erruz praktikatzen zuen «Platon konfesoreak» esan izango zukeen: «Bihoaz emakume inofentsiboak albo ikusezina, eta betoz gizon gordinak besoetara!». Espiritu horixe daramala dirudi gure konfesioak, eta ez nintzen ohartuko neure burua atakan ikusi arte. Horrelako penitenteak badirela egiaztatu dudanean –penitente zintzoak, bestalde–, konfesorea bera ere ezpal bereko gerta baledi, bidezko da pentsatzea nolako sinbiosia garatu daitekeen. Errituaren ezaugarri fisiko estuak eta iluntasun inguratzailearen faktore esentziala jorik, atera daiteke konfesioa beren beregi diseinatu izan zela kastitate botoaren alternatiba moduan.

Izaera lar espontaneoiei abertitu nahi nieke kontuz ibiltzeko delako grazia bitxi ustekoarekin ezen apaizoi ez zaigula permititzen maitasun platonikoaz besterik. Nire interbentzioa proposamen tonuan amaitzeko, ez al dago, arimen arteko bereizkeria antidibinoak ezabaturik, guztiak albotik edo guztiak aurretik konfesatzerik? Ezin al dira konfesatoki handiagoak eta zabalagoak diseinatu, bi gizaki, sexukide zein ez-kide, nasai eta arrisku gabe kabitzekoak, ahal dela tximinia eta guzti? Ez baita kontua bizitzan ere hilkutxan bezain doi enkajaturik ibiltzea, mundu hau bestearen prefigurazio kaskar bat dela eta. Bere izate bekatariak mortifikaturik, hura purifikatzeko eginahalean diharduen arima gaizo honen aitortzak ulertuko eta diskrezioz baliatuko dituzuelakoan, eskerrik asko bihotzez, zuen arreta zoliagatik».

Eseri nintzenean, buruak bakarrik mugitzen zirela ohartu nintzen, eztul mota nahiko uniformeaz lagundurik, norabide halaber nahiko berdinetan. Hizlariak bikarioari eta honek hizlariari begiratzen zion, autoritatearen ala jakintzaren unea ote zen dudan. Artzapezak atze eskuinean pilatua zen moja-talderantz begiratu zuen, han nola jarraitzen zuten kontu hartuz bezala, bazkaria prestatzera joan beharrean. Buruen lehen mugiera flotantea bezalakoaren ondoren, hiruak lerro berean edo, aurrekoek atzekoekin buru bat eginik, dozena erdika multzotzen hasi ziren.

Neuk ere, ukondoak izterretan eta matrailak ahurretan pausaturik, burua altzorantz gorde nuen, sotanaren botoiak kontatzeko zeregin lehen ere maiz praktikatuari ekiteko. Begiak kokosperantz ahalik gehien okertu nituen, eta ageri zen lehen botoitik belaunetan amiltzen zen azkeneraino, hamahiru. Zenbaki ona! Gonei gorantz tiratuz, egoerari buruzko zenbaki esanguratsuago baten bila jo nuen.

Hamalau, hamabost, hamasei, hamazazpi, hamazortzi, hemeretzi... Ez dakit zergatik, hemeretzia beti zenbaki ezegonkortzat jo dut, hurrengoan simetria grekoa ikusten dudalako edo. Kontua da hemeretzi botoi zirela guztira. Operazio hartan nenbilela, ahots karmeldar bat entzun zen, esanez:

– Gure komentuan, bazkaria mahaian izateko ordua da laster, eta beraz, gure komunitateak honetantxe agurtzen zaituzte. Bego Jainkoaren grazia zuekin.

– Hauek ezin diate izan fraide naturalak –pentsatu nuen–, bazkari hobe probableago zen lekutik alde egiteko.

– Besteok ere jaikitze ordua dugula iruditzen zait –esan zuen bikario diozesanoak–. Gure teologo berri ausartak planteatu dizkigun auzi «mortifikatuez», hitz egingo dut artzapezarekin eta gero gotzainarekin, eta izango du behar den erantzuna, behar den lekuan.

BARBARA ETA GARI

Barbara zen neskaren izena. Zeharo maitemindu zen, zeharo eta zoraro, erantzunik itxaron ezin zen tokian. Itxaron ezin nuen tokian, zeren neure bitartekotzan jarri baitzuen arrakastaren ahalbide guztia. Gari zen mutila. Barbarak Gariren lagun handi ikusten ninduen, eta izan ere banintzen. Baina transposizio inozente edo inkontziente bat egin zuen, nonbait, beragan neukala sentitzen zuen autoritatea bere desiatuarengan ere izan behar nuela pentsatuz. Konfesio sarriko neska izanik, sarriago etortzen hasi zen. Bere gogoz, egunero etorriko zen (ahal izatera, gauez ere bai), baina ez zen ausartzen, beldurrez ni gogaitarazteko, eta ondorioz, zubia hondatzeko. Ez! Neska onegia eta xaloegia zen, hain kalkulu berekoiak egiteko. Eta batez ere, itsuegi zebilen, estrategia subtiletarako argitasunean jokatzeko.

– Gari ikusi al du aspaldion berorrek? –galdetzen zidan, bekatu inexistenteen zerrenda bat jaurtirik azkar, eskuetatik luma bustiak astinduz bezala.

–Zapatuan ikusi nuen Bilboko jai batean. – Gezurra, ze Gernikan izan baitzen. Urrundu egin nahi nuen kokapena.

– A, bai? Eta zer dio? Aipatu al zion berorrek ezer nitaz?

– Hitz batzuk izan genituen, bai.

– Bai? Noiz etorriko da Amorotora? Datorren domekan?

– Ziur-ziur ez zuen agindu, baina baliteke.

– Bai? Berarekin berba egin ahal izango dut? Berorrek lagunduta, jakina.

– Zergatik ez? Gu ere ez baikara hura Kennedy eta ni Luther King.

– Ai, ama! Belaunak dardarka hasi zaizkit. Eskerrak belauniko nagoen. Inor ez dago atzean zain, ezta?

– Ez, Barbara. Biok bakarrik gaude elizan –erantzun nuen, egoera arriskugarrian geundelako tonuan.

– Berorri ez dio ardura apur bat luzatzen bagara?

– Ni horretarako nago hemen, Barbara, ez da toki erosoegia baina.

– Batzuetan kezkaz egoten bainaiz, berori lar zorabiatzen ote dudan.

– Ez, Barbara. Ni ahal dudan guztia laguntzeko nago.

– Baina honelako gauzetan!

– Honelakoetan eta guztietan.

Gertatzen zena zen nire laguntzak ezin zuela joan haren ilusioen bidetik. Aurretik ere inoiz aipatua nion, bera ezertan ez mintzeko ahalegin osoz, aurrerabide zaileko desioan sartua zela. Alferreko atsekabe baten arriskuan zebilela. Berak, ordean, arrazoitzen zidan bihotz bat baizik ez zeukala eta harekin bizi behar zuela. Ezin ziola bihotzari kontra egin. «Gelditu egingo zait!». Ulertzen nuela esan nion (ez nuen gehiegi ulertzen), baina buruarekin sentitzen ere ikasi behar dela apur bat. Gari bera baino askoz gazteagoa zela. Urte batzuk falta zituela karrera amaitzeko. Mutil haren buruan tximeleta asko zebilela. Haren mundua eta Barbararena oso aparte zeudela. Gainera, neska-lagun finko samar bat ere bazuela (hau neuk asmatua), lantzean batekin ez zebilenean.

– Barbara! Nola egongo zara horrelako arbi-lore baten zain? –eraso nion.

– Ez dit ardura, jauna. Datorren domekan baletor, ni konforme naiz berarekin berba batzuk eginda, berorrek lagunduko balit. Bakarrean ez naiz ausartzen, baina berorren inguruan...

– Zoaz lasai Jaunaren bakean. Hori baino ez bada, egingo dugu.

– Eskerrik asko! Berorreatatik ez balitz, ez dakit zer egingo nukeen.

– In nomine Patris et Filii (neuk ere ez dakit zer egin dezakedan) et Spiritu Sancti. Amen.

Lehenengotan, Gariri ezer ez aipatzea pentsaturik nenbilen, neskaren itsualdia iragankorra izango zelakoan. Endredoa aurrera zihoan, ordea, eta bakarrik behar nuen Barbarak jakitea nire bitartezko mezuak ez zirela destinora iristen. Izan ere, ez neukan batere argi errakuntza larri bat egitera ez ote nindoan, Barbararen maitemina Gariri azalduz, honek nola hartuko zuen arrastorik gabe. Gerta zitekeen mutila tentaturik aurkitzea, ez beharbada, abusatzera, baina bai apur bat «jolastera». Neska ere ezagutzen bainuen ondo, nola segurta zitekeen, maitasun itsuen kasuan, jolasa eta abusua zertan bereizten diren? Azkenean, erabaki nuen amodioari destino eternoaren arabera korritzen uztea.

– Txo, gauza bat! –eraso nion Gariri–. Inor maitemindu al zaik inoiz?

– Neuk dakidala ez –berak.

– Ba, hasi mentalizatzen! Amoroton bazegok neska bat, higanako itsumenez zoratu behar nauena.

– Joño! Aitzurkada bat buruan baino hobe duk hori.

– Gertatzen dena hura ez dela hiretzat. Edo hi ez haizela halako batentzat.

– Hori neuk ikusiko diat. Harena itsumena bada, nirea ikusmena izan daitekek.

– Gauza bat agindu behar didak, Gari. Probatzea merezi duela uste baduk, ez eman itxaropen handiegirik. Eta atzerako bahaiz, ez braust eten. Min handiak hartzeko pertsona klasea duk.

Gari eta biok Amorotoko plazan geunden, igandeko meza osteko jendartean. Barbara ez zen ausartzen hurbiltzen. Neu beragana hurbildurik, sakristiako arropategian utzi nuen prenda bat ekartzeko eskatu nion. Airosa ezkutatu zen elizpean.

- Horixe duk –esan nion Gariri.
 - Neska ederra! –Garik.
 - Baina hi ume bat haiz horren ondoan.
 - Gizonduko nauk.
 - Laster topatu duzu! –esan nion Barbarari bueltan.
- Mutil hau ezagutzen duzu, ezta?
- Ezagutuko ez dut, ba, Amoroton hainbeste bider ikusita? –Barbarak, hitzen dardaran.

Gari zuela izena azaldu nion. Seminarioan urte mordoa egina, handik ginela lagun handi. Abadetxera sar-irten bat egin beharra fingitu nuen, biak bakarrean uztearren, «bebingoan etorriko naiz» esanez.

– Egik ahalegina –erregutu zidan Garik disimuluan—. Herri txikiotan erraz aurkitzen duk bat galduta, Bilbon majo moldatzen gaituk baina.

Abadetxean, eliz liburu zaharren goi ertzei hatz-mamiak pasatzen hasi nintzenean, aspaldian inork ez ziela hautsik kendu ikusteak egoeraren txatxuaz hobeto jabeazazi ninduen. Plazatik zergatik aldendu nintzen gogoratzeak ez zuen garantizatzen abadetxean zer egin behar nuen jakitea. Denboratik apartatu, eurek ere susmatu izango zutenez. Han nengoen, eskuak gelditu eduki ezin eta zeri heldu jakin ez.

Liburu zaharretan hatz-marka batzuk eta leihoan plazaranzko begirada zuntzun batzuk utzirik, banindoan kanpora. Barbarari plazatik frontoiranzko kantoian erreparatu nion, neska-taldera itzulia. «Arin banandu dituk!». Osterantz ezkutatzear, Barbararen eskuak egin zidan agur

alaiak pentsarazi zidan gauzak ez zirela hain oker joan. Gari taberna bateko barraren muturrean aurkitu nuen, bakarrik, bitter bat aurrean, arrotz bezala begiratzuz arrotz bezala begiratzen ziotenei. Hurreratu nintzenerako jaulki zidan:

– Apropos alde egin duk, eztuk? Alua!

– Gari! Hau ahopean. Aluarena barkatuko diate, baina hemen abadeari zuka egiten ez dituk oraindik ausartu.

– Ba, heuk bakarrik entzuteko moduan esanda, ez diat hain erraz barkatuko alukeria.

– Ez al huen esan heuk ikusiko huela zer egin?

– Ez laugarren berban berarekin buruz buru geldituta.

– Haserre zirudien Garik.

– Bera oso pozik gelditu dela zirudik.

– Tabernan ez dik sartu nahi izan.

– Hau ez duk Bilbo, hi! Hemen neska bakarra tabernan sartzea nabarmen samarra duk oraindik, areago mutil ezezagun batekin.

– Eta plazan, denen bistan bai?

– Utziek huskeriei! Zer antz hartu diok neskari?

– Pozik ematen zian.

– Adurretan esango nitek. –Ez nuen ikusi, baina banekien.

– Ez zidak ezer apartekorik agertu, eta lehen bestean.

– Hark uste dik –argitu nion– berak agertu beharreko guztia nik esana diadala hiri. Hik berarekin hizketaldi bat onartzea seinale ontzat ulertu izango zian.

– Nik ez diat ezer onartu. Heuk utzi gaituk bakarrik.

– Utziok pozik dabilen bitartean! Bazekiat hirekin zer eginik ez daukana, eta arazoa neure gain hartuko diat.

Biharamun goizeko zortzietan banekien nor ez zen faltako elizan. Astegunetako mezan, akolitoetatik aparte, dozena erdi bat emakume batuko ziren, motibo bereziren

bat ez bazen. Astelehen hartan, alukeria egin nuen, berariaz. Ez zen mezarik izango. Eguneroko mezaren obligazio kanoniko txit zorrotza hasia nintzen apurka - apurka laxatzen, Gizaburuaga eta Amorotoren zerbitzu bateratua hartu nuenetik. Txandaka antolatu beharrak ez zuen ordena zorrotzik eskatzen. Banekien Barbara larri egongo zela, eta ez dakit zergatik sufriarazi nion, neu halakoxe amodio-kontu batean partaide ezin izatearen bekaitzez ez bazen. Asteartean ere huts egiteari gogorkeria handiegia iruditu zitzaidan. Konfesatokiaren hegalean belauniko aurkitu nuen. Sarrera-hitzak eta aitorkizunak irristan pasatu zituen. Arnasan ere pasioaren aztoramena igartzen zitzaion.

- Gari zelan? Ezer aipatu al zion berorri?
- Oso neska jatorra zarela esan zidan.
- Jatorra bakarrik?
- Beno, jatorra izatea ez da gutxi.
- Bere aldetik ez al zuen halako «zerbait» halakotu?
- Mutilak badakizu horretan nahiko zokorrak izaten direla, leloak ez esatearren. Nik pozik zegoen antza hartu nion.
- Nirekin egon zelako?
- Argi-argi ez zuen esan, baina norbaiten aldetik hain maitatua zarela dakizunaren aurrean aurkitzea beti da pozgarri. Eta urdurigarri.
- Urduri egon al zen?
- Haserre ere egin zidan bat-batean bakarrean utzi zintuztedalako.
- Nirekin bakarrean egotea ez al zitzaion gustatu?
- Gustatu bai, baina badakizu. Lehen aldia izanik, apur bat airean gelditzea normala da.
- Hurrengo noiz etorriko den ez al zuen aipatu?

– Egunik ez genuen aipatu, baina «laster arte» esanda banandu ginen.

– Hurrengo datorrenean, jakinaraziko dit berorrek, ezta?

– Bai, Barbara! Nire aldetik, ez duzu hutsik izango. Hala ere, gomendatzen dizut ilusio handiegirik ez egiteko Garirekin, ze haren burua nahiko loka ikusten dut oraindik.

– Ai, Don Jabier! Ez daki zenbat eskertzen dudan berorren borondatea!

– Ederto, Barbara. Amaitu egingo dugu. Penitentziatzat erreza itzazu pare bat ... Amen!

Denbora aurrera zihoan, edo generaman. Barbarak intentsoki, nik jakin - minki, inoiz apur bat aluki ere bai. Harik eta susmo kezkarri bat, arbitrariotzat baztertzen saiatu nintzena, ziztaka hasi zitzaidan arte. Barbara sentimendu berokoa zen, baina ezin zuen izan hain posibilitate urria sinesteko bezain inozoa. Edo bai, baina nik ez nuen suposizio horrekin jokatu nahi. Orduan, pentsatzen hasi nintzen nire eguneroko penitentea –egunerokoa, bai!– bere desiatuarengana iristeko helburuak baino gehiago ez ote zion tiratzen mezu amorosoen joan-etorriak. Inoiz ez baitzuen planteatzen mutilarekin hitzordu partikularrago bat molda nezan, Gernikan edo Bilbon, edo edonon.

Bolada batean pentsatu nuen ez zela ausartzen, ez hainbeste, erabaki faltaz, baizik beldurrez, benetako saiakeran dena bertan amaituko ez ote zen. Gero iruditu zitzaidan egoerari gustua hartu ziola, aldi berean, bitartekotza gozatuz eta arrakasta definitiboaren posibilitatea osorik mantenduz. Nire hipotesiak agortuz zihoazen, baina bitartekari-lanak ez ziren gutxitzen. Eta Barbararen jorana ere ematen ez zenez, eta haren nirekiko konfiantzatik neuk ere berarekin berdin edukitzea onartuko zuela suposatzen nuenez, behin jaulki nion, edo eskapatu zitzaidan:

- Aizu, Barbara! Ba al dakizu zer pentsatzen ari naizen?
- Zer, jauna, zer? –antsioski berak, Gariren zerbait berria entzungo zuelakoan.
- Niri honenbeste zeregin eman beharrean, ez al zen kasik hobe zu neurekin maitemintzea?
- Berorrekin maitemintzea posible al da? –malguki bat bezala atzerantz eginez.
- Hori ez dago maitagaiarengan, maitalearengan baizik.
- Ai ama! Orduan berori ere... baina hau... –Hitzek elizatik kanpora ihes egin zioten.
- Lasai, Barbara! Esan-modu bat izan da. Freskura bat, nahi baduzu.
- Ai ama! Hori ez da freskura bat niretzat.
- Sutsuegia zarelako. Zintzoegia esan nahi dut.
- Ni berorrekin maitemindu izan banintz, berorrek zer egingo zuen?
- Oraintxe egiten dudana, gutxi gorabehera, baina atzera-aurrera gutxiagoz. Esan izan dizut zure Garirekikoa erabat ezinezko ikusten dudala. Nirekin ere berdin esan izango nizun, baina, behintzat, alde biek zuzenean elkar entzungo genuke. Orain, batzuetan ez dakit faltan ala traban nagoen.
- Ai, Don Jabier! Traban ez, mesedez! Hain gutxi, hori posible bada.
- Ba, erabaki lehenbailehen, ze, bestela, hementxe zorabilduko gara.

Konfesio hau gertatu zenetik ez zen askorik luzatu historia, luzatu zena polita izan bazen ere. Amodioaren subjektu izatea zorion handietako bat bada, probatu ahal izan nuen ez zela txikiagoa amodioaren bi aldeetako korronteak norberagandik pasatzen sentitzea. Azkenean, kanpo-faktore kontundente batek erabaki zuen guztia. Nik

laster amaitu nuen kartzelan, eta ez nuen entzun Barbara eta Garirena ezertara iritsi zenik. Zubia desagertzean, urertzek paraleloan jarraitu zuten, antza.

DOBAL

Derioko seminarioan gaude. Dobalek hamabost urte, nik hamalau. Ulertzen nuen zer zen «neska batekiko sentimendua». Lehenengoz entzuten nuen, ordea, «mutil batekiko sentitzea neska batekiko sentituko zenukeena». Neure makinaria mental eta sentsitibo guztia abian jarri nuen, zantzurik txikienetatik azken susmoak berresteko. Helduaroan ohartuko nintzenez, psikologian hain metodo efektiboa izan ohi zen gaizki pentsatze sistematikotik, berehala osatu nuen puzzlea. Ez baitzen zaila ere!

Mutiko batzuk adonis edo efebo txikiak lez hartuak ziren, polit, gozo, potxolo. Hitz batez, neska itxura. Gorte-egileak agertzen zitzaizkien, jazarleak ere bai. Denok euren inguruan, euren ondoan, euren laguntxo izan nahi genuen. Eurekin bakarrean, baztertxoetan ibili nahi genuen. Funtsean, komunitate osoa zegoen halako sare pelagiko morbido batean harrapaturik, inklusioz edo eskusioz. Batzuk protagonistak ziren, aktiboak edo pasiboak; asko ikusle desiros ginen; beste asko, jokotik at. Izango zen ezertaz jabetzen ez zenik ere, nahiz eta, hain komunitate trinko eta itxian, zaila zen, ia ezinezko, fenomenoaren existentziaz ez ohartzea. Besterik ez bazen, Jainkoari eskerrak emateko, bizio hartatik libratu zuelako. Edo lagun bekatarien alde otoitz egiteko. Edo zintzotasun eskrupulosoan, nagusiei txibatzeke. Zenbait irakaslek eta prefektuk euren ikasle «kutunak» zituzten, eta ezin zuten haienganako trataera bereziki gozoa disimulatu.

Dobal zen Dorian Gray txiki haietako bat, nire obserbazio bekaizkorrek hauteman zuen desiatuena, bai lagunen, bai goikoen aldetik. Nik ezin nuen hura pretenditu. Batetik, neure burua ez nekusan halako saiakerarako bezain kontsideragarri, eta bestetik, hura baino gazteago nintzen, eta

suposatzen zen, edo ohi zen, pretendenteak zaharrago izan behar zuela. Adin haietan, urte bat edo biko aldea gizaldi bat zen. Hala ere, ikaskide izanik, maiz gertatzen zen, gerta zedin saiatzen nintzen, elkarren ondoan aurkitzea elizan edo aretoan, edo toki izendaturik ez genuen ekitaldietan. Orduan, elkar ukitzea nahitaezko zen, ukondoa ukondoaren edo izterra izterraren kontra. Dobalen gorte-egileek haren ondoan sentitzen zutela suposatzen nuen sentsazio berezi hura, zer zen garbi ez nekiena, neuk ere esperimentatu nahi nuen, guztiz barneki beti ere, kanporantz itxurarik inpasibleena agertuz.

Egia izango da ahalegin mentalak emaitza fisikoak ere azkar dakartzala, nire gogo ekinkorra laster hasi baitzen dardara bat sentitzen. Hasieran, dardara material soila, definizio gabea, ez on, ez txar, ez gozo, ez gazi. Nire gogoan dardara hura laster bihurtu zen zirrara, eta zirrara, «atsegin». Bihurtu behar zuen, jotzen baineukan objektu desiatua. Eta desioa absurdoa izango ez bazen, bere betetzearen zirrarak nahitaez dohatsu izan behar zuen. Bestela, izterra ukitzen neukan izaki biziduna momia soil bihurtzen zen, eta irain hori ezin nion egin Dobali, neure mito isilari. Ez zen, noski, ukitze «haragizkoa», azpian hainbestena arropako sotanatik sotanarakoa baizik. Hala ere, dardara biszeral bat, zirrara eutsi baina muinerainoko bat nabari nuen, ikusiz kontaktua ez zela errefusaturik, eta irudikatuz haragia hantxe zela.

Hamabost urte nituela, gela-logela indibidualetan banatu gintuztenean, zerbaitegatik (apunteak, liburu bat...), behin edo behin, Dobal nire gelara etortzea gertatzen zen. Maizago ni harenera, beti aitzakia bila bainenbilen zerbait eramateko, eskatzeko, galdetzeko. Gela barruan bi lagun ezin ziren egon, atea itxita. Zeharo debekaturik eta gogorki zigorturik zegoen, batez ere gaueko orduetan. Oso zaila zen, hala ere, zaintzaile batek, «prefektua» zeritzonak, hainbeste

solairu eta ate kontrolatzea, barruan zeudenak astrapalan jardun ezik. Eta batez ere guk, hainbeste izanik, askoz errazago genuen prefektu bakarra kontrolatzen, hark gu guztiak baino.

Kontua da Dobalek, nire gelara etortzean, atea ixten bazuen (ni ez nintzen hori eskatzen inoiz ausartuko), intimitate-nahi baten seinaleztat hartzen nuela. Horrek urduri jartzeraino zirraratzen baninduen, zer ez zen izango, ni bere gelara joatean, atea ixteko agintzen bazidan. Eskaerak, hain arauz kontrako eta arriskutsu izanik, pentsarazten zidan, ez bakarrik ez ninduela arbuiatzen, baizik kutuntzat hartzen ninduela. Ez nekien zein norabidetan, berak nire sentimendua onartuz ala bere niganako sentimendua deklaratz, baina berdintsu zen. Kontua zen atea ixteko eskatu zidala, bere gelan, logelan, biok bakarrik. Nik, jakina, burdina goria paparrean ipinita ere ez nuen horrelako sentimendurik agertuko, nire pentsaketa guztia fiasko bat zela aurkitzeko beldurrez. Baina neure baitan, nire pentsamen neure erara moldatuan, zantzu guztiek animatzen ninduten nire pentsakizunak errealistak zirelako ondorio dohatsura.

Dobalen kasuan, bilakaera bitxia nekusan bere izenean. Bolada batean muzin eragiten zidan, objektu faltsutu bat ote zen errezeloz, deskubritu nuenean «Baldomero Sartanbaso» zela. Berak ez zuen errurik izango, baina izen-abizen horiekin ez zegoen pretenditzerik «dorian gray» bat izaterik. Batez ere izena, zeren, komunitateko ikasle guztien deitura arauzko eta obligatua abizena izan arren, «kutunei» izenez deitzen zitzaien, batez ere goikoen aldetik. Hain zuzen, izenez deitze horixe zen kutuntasunaren seinale hutsezinetako bat.

Nola izan halakoa «Baldomero» zeritzon bat? Izena laburturik, «Baldo» gelditu zen. Zerbait txukunago, baina

baldar oraindik, euskaldunen belarrirako, behintzat. Silabak alderantziz, «Dobal». «Baldomero - Baldo - Dobal». Hau bai! Kafkaren gogoko metamorfosia izango ez bazen ere, «adiskidantza partikular» baterako zein izen limuriagorik Dobal baino? Nik horixe ezagutu nuen hasieratik, eta izen gozatsu eta jaso iruditu zitzaidan beti, harik eta jakin nuen arte, bere nota-orri bat ikusi nuen batez, Dobal zoragarri hura, izatez, «Baldomero» zela. Kostatu zitzaidan dezepzioa gainditzea, baina kasu hartan, nire nahimena mutikoaren benetako politasunak menperatzen zuen, eta zilizioari heltzea baino errazago izan zen lehengo ameskizunera itzultzea.

Geroztik hamahiru urtera, Derioko seminarioan gaude. Biok apaizak, itxialdi luze batean, poliziak inguraturik. Dobalek diost: «Hator neure gelara». Bidezkoen zen, zentzuzkoen zen, baina nire belaunak dardaran sartu ziren; eta neu zorabio mental osoan, ez bainekien zein subjektu ari zen (nintzen) sartzen: hamabost urteko nerabea ala apaiz errebeldea. Dedukzioz, bigarrena nintzen, sentieraz lehenengoa. Dedukzioa oso ahula zen, ordea, zentzumenek atzematen zuten ingurua nerabezaroko berbera baitzen. Seminario erraldoi bera, logela altu bera, metalezko ohe uhar bera, gau-mahai merke bera, horma horixkatu berak, armairu triste bera, lababo negarti eta arraiatu bera, gau berdina, isiltasun berdina, barru- eta kanpo-zarata berdinek zauritua.

Denbora bera ez nekusan, eta neure burua ere ez. Ispilu pitzatuari begiratzen deskuidatu nintzenean, han agertu zenari hamabost urtekoaren mozerro bat iritzi nion. Orainera itzultzeko helduleku bakarra Dobalen aurpegia zen, hau ere denborak aldatua, baina ezin nion begiratu, edo ez nuen ezabatu nahi bere eite originala, neure baitan argitasun, zehaztasun, liraintasun osoz nekusana. Nahitaez entzun beharra nuen haren ahots helduan ere garbi atzematen nuen haren tinbrearen soinu basikoa eta bibrazio zalantzakorra.

Ohean eseri nintzen apaizgaitako era berdinean. Oheak kirrinka berdin - berdina egiten zuen. Ukondoak izterretan eta aurpegia esku artean nuela, tanto gorrixka mehatz batzuek betidanik alaitu gurako zoru grisera begiratzen nuen. Dobal ere eseri zen bere ohean, beti egina izango zuen moduan. Aurrez aurre geunden, metro bat bitarte zela.

– Hau ere marka da gero! –hots egin nuen neure makurtasunari itxura pentsakorra emanaz. Areago berari zuzen begiratzetik libratzearren, ondoren esango nuenak une hartan axola zidalako baino—. Ekintza finkatzea eta itxialdiaren oihartzun guztia zabaltzea lortu duguneko, gotzaina gaixotu behar.

– Larriki gainera! –erantsi Dobalek.

– Oraingo beste hauxe ere ez da marka txikiagoa. Gotzain horrek berak ezarri zuen araudi maniakoan, honela harrapatu bagintuzte, bidaltze fulminantea izango zen.

– Doi-doi libratu nintzen behin, Kiliko eta biok dutxetan harrapatu gintuztenean.

Neuk ere ondo gogoan neukan «eskandalu barkaezin» hura (goikoen esanetan), «Kiliko» edo Hilario Barrenetxea etxera bidali zutenean. Bera zen Dobalen gorte egile nagusia, ia kapo eran. Ikara handia hartu nuen, Kiliko etxerako maletaginan ikusi nuenean. Ni, beste era batean, haren lagun handia bainintzen. Lagun itzaltsu bat ez ezik (futbolean onena zen), Dobalengana hurreratzeko bitarteko natural bat ere galdu nuen.

– Zu libratu, eta hura etxera! –jaurti diot Dobali.

– Bai! Kontu batzuk halaxe ziren orduan –onartu Dobalek.

– Konturatzen al zinen –aurpegira begiratu diot eta orduko berbera ikusi dut– nolako funtzio, nola esango dizut, ba (ausartuko ote naiz jareiten?), nolako funtzio... erotikoa betetzen zenuen?

- Ez osoki, baina gauza arraroak ikusten nituen.
- Arraroak bakarrik?
- Nahiago dut ez eragin.
- Eta ni zuganako inbidiaz!
- Neu ere bai zuganako.
- Niganako? –taupatu naiz ia danbadan—. Horixe orduan entzun banu, urtuko nintzen.
- Zu mutiko isil, argi, lagunkor, maitagarria zinen.
- Jesus! Sekula ez nuen pentsatuko Dobalen ahotik horrelako deklaraziorik entzuterik.
- Ba, egia da, eta asmatu nuen. Zuk prestigio handia hartu zenuen gero.
- Une honetan prestigioak ez dit ardura. Hamabost urteko sentimenduetan nabil. –Azken hitzok jaulkitzeko, burua esku artean gorde behar izan dut.
- Gaur ezingo gaituzte etxera bidali.
- Itzela litzateke... –leize buruko zorabioan nago.
- Zer litzateke itzela? –galdetzen Dobalek.
- Hamabost urtera itzuli eta zurekin ohe berean etzatea. Zulo bat betetzea litzateke.
- Hori baino ez bada! Iraganeko zuloak bete egin behar dira, zulo berrietatik libratzeko.
- Baina zeu ere hamasei urterekin gero! –ohartarazi nahi izan nuen.
- Ni aspaldi nabil hor –Dobalek—. Zer kontu esaten dihardugu, ba?

Ohe gainean luze gaude, galtza motzetan, bera horma aldetik. Ohea estua da, ohe monakala, hildakoan ere, neurrira gelditzeko modukoa. Elkar ukitzea derrigorra da, elkargaindu nahi ez bada. Biolento nago benetan, atrocitate baten muinean entzerratu banintz bezala. Zirkunstantzia guztiek hamabost urtera itzuli nauten arren, ezin dut saihestu neure

nitasun aktuala, zeinari gizon-ukituak atzerakada ematen baitio, eta bilo sarriak, hozkia. Kontrako estimuluen teoria baikorrak beste aberia bat egin dezan beldur naiz. Dutxa hotzaren eragin bizigarria zintzoki sinetsirik, neguko jaikiera batean ia bertan akabatu nintzenean bezala.

Dobal, zorionez, ez da bilotsua, baina ezin dut hamasei urtera jaitsarazi, bere ezaugarri helduak aurrean ditudala. Eta, gainera, orain, bera baino guapoago naiz, askoz guapoago esango nuke, zeren ni Laokonte baten semea ez banaiz ere, Dobal gehiago da orain «Baldo», bere buru luzanga, kanpai-belarri eta hortz-pala gainjarriekin. Ezagutu ez zuenarentzat, zaila litzateke gorputz honen azpian ninfo hura aurkitzea. Horregatik dira, hain zuzen, nabariago bere jendetasun eta sinpatia batere bortxatu gabeak. Naturak, batzuetan munstrokeria izendaezinak fabrikatzen dituenak, beste batzuetan, aparteko laztana jartzen du akatsak dohainetan ezkutatzen. Dobalengan, bi osagaiak naturaltasun berdinez burutu dira, kasik ezaxola osoz. Neu naiz dudan nagoena, une honetan, emaitza natural bat ote naizen.

– Argia itzaliko al dut? –galdetzen dut, ilunak baretuko nauelakoan.

– Horixe eskatzekotan nengoen. Argiak distraitzen nau.

Tak, eta ilunetan gaude, garantia osoz. Zoko hau ilargiak ez du inoiz ikusi. Argiak distraitzen zuela entzuteak asko lasaitu nau, pentsarazi baitit bera ere sentikide dudala. Pentsakizuna dohatsuki berretsi zait, Dobalek eskutik heldu didanean, estutze txiki eta xuabeekin, esanez bezala: «Ederto. Hementxe nago. Zeurekin». Hori hamasei urteko Dobali entzun diot, garbi - garbi. Geldi eta luze gaude, bi gorputzak elkar ukitzen alboz, sorbaldatik oineraino, esku helduak erdiko bi izterren arteko kanalean bertan behera, eta aurpegiak hurbil, baina ukitzeke. Bi buruen mugimendu txikiak sinkronizatzen direnean, bekoki ertzak leunki

talkatzen dira. Eta leunki bereizten, kontzientzia distantziaz indartzeko. Ahalik geldien egoten saiaturik ere, gorputz bizi batek ezin du inertetasuna imitatu, eta Dobalen gorputza bizirik nabari dut, iluntasunak igortzen dituenak bezalako pindartxoekin. Nire aldetik, saiatzen naiz emozio totala zirrara nabarmenegi bihur ez dadin, baina uste dut derrigor igarri behar duela nire gorputzean dabilen erreboluzioa. Eta unearen kontzientzia gardenak eragiten dituen dardarak.

– Komunitatea lo dago –dio Dobalek, ez dakit zer esan guran.

– Kilikok hau baleki! –darantzut, egoeraren baiezen bila edo.

– Kilikok ez du inoiz jakingo.

– Don Zelestino, Don Santiago, Don Mariano, Don Anselmo... Haiek ere lo ote daude?

– Haiek ere ez dute ezer jakingo.

– Baina zu guztien bitxilore zara. –Lortu dut benetan hamabost urte sentitzea.

– Orain zeurekin nago. Tonto jartzen badira, gauero egingo dugu hauxe.

– Niretzat behingoa ere nahikoa izango da. Ez da arriskuagatik. Uste dut seminario guztia gaudela apur bat trastornaturik, goikoak okerren direla.

– Goikoak diozunetan, badaude jatorrak ere –Dobalek, erdi lotan lez.

– Eskerrak! –baiesten du–. Denak Don Zelestino bezalakoak balira!

– Hemen bakoitzak bere lekua zaindu behar du.

– Zuk arrebak ere oso politak dituzu. –Benetan ere hamabost urte dauzkat.

– Zeuk ez al duzu arrebarik?

– Bat, baina ezin du bisitan etorri. Neskame dago.

– Gauden isilik orain! –Beste esku-estutze txiki eta xuabe bat.

Eskertu dut agindua, hitzek deskokatzen baininduten. Sentitu bakarrik. Sentitu egoera, ukitua, astrapalarik ezaren gailentasuna, inakzio dultzea, sentitu zirrara, barru-urtzea, atsegin zirkulantea, mirariaren inkarnazioa. Goitik beherako ukitua –sorbalda, beso, esku, gerri, izter, berna, oin–, osoan eta aldi berean sentitu nahi dut. Pertsona osoaren presentzia, gehi bere gogaidetasun eta gozamen osoa. Fronte gehiegi dira nire emozio aztoratuak menperatzeko, baina ahaleaginean jartzen dudak gogoak bizitasun erantsia damaio egoerari.

– Lo al zaude? –dio Dobalek.

–Buf! –irten zait ezer pentsatzerako. Lotarako moduan nago oraintxe!–. Ez al duzu esan isilik egoteko?

– Esan dut, baina isiltasuna astun egiten zait, lagun bat ondoan dudala.

– Ai, Dobal, Dobal! Begira non ginen eta nola gauden.

– Poliziak inguraturik egoteko, ez gaude hain gaizki. Sar gaitezen bakoitza bere ohean.

– Hain arin?

– Zuloa bete dela uste dut. Gau on!

Ez dut argirik piztu ohez aldatzeko, eta Dobalek ez du hitzik erantsi. Uste dut lokartzen hasia zela. Jada neure ohean, zulo betearen gainean baino tontor baten erpinean sentitzen naiz, artean azpitik eta opresio sentipenez nekusan immentsitate baten begirale, kasik miresle. Biharamunean, egun tentso bateko atzera-aurrera presatsuan, ez diogu bartko episodioaz ezer aipatu elkarri. Irribarre arin-arin bat, gure begiradak gurutzatzean. Arinago eta intentsoago, geuk bakarrik igartzeko espresio mailan eusteak eskatzen duen ahaleginaren arabera.

Sinestezina da, mirari espiritual bat duda gabe, nola gure kontzientzia heda daitekeen, aldi berean eta osorik, hain plano urrun eta kontrakoetara. Batetik itxialdiaren kinka bortitza, bestetik gure nerabezaro gordea. Bi planoak elkarren desafiozko geruza geologikoak bailiran. Nahiz gehiago ez mintzatu gaiaz esplizituki, gure irribarre «arin-arin» horrek, elkarri begiratzeke ere etengabea esango nukeenak, inguru osoa animatzen du. Egurats horien antzera, non gandu urdin-arrosa txit mehe batek egunari nahitaezko izate lirikoa damaion.

Itxialdia nola amaitu zen ez da hemen kontatzekoa. Ez dut beste ezerekin nahasi nahi neure esperientzia Dobalekin.

XUNE ETA KARPO

– Xune! Zelan sartu zara hona?

Hamabost urteko neskatoaren begi gorri eta betzulo ubeletan, negarrak izurturiko ikara nekusan. Neu ere ikaratu nintzen, galdera zuntzun horretan blokeatuta geldituz. Toki hartaraino sartzea balitz bezala ezuste gorena! Apalena ere ez, noski, zeren, seminario batean, emakumeek zapaldu ezineko barrunbe labirintiko haietan, neskato bat braust agertzea, Bizkaia trenez, autobusez eta berriro trenez zeharkaturik, normaletik guztiz at zegoen. Badirudi, larritasun estremoari inkontzientzia nerabea batzen zaionean, giza bulkoak ez duela mugarik. Korridore baten mutur leihoan atsedenean zeuden neure lagun halaber harrituei «ez egon nire zain» agindurik, neskatoari xuxurlatu nion: «Goazen kanpora, bazter batera».

Berez halakoa zen etxea tenkatuago zebilen 70 apaizek bertan egitea erabaki genuen itxialdiaren eraginez. 1968ko azaroa. Eliza pobrea, Eliza dinamikoa, Eliza herrikoa, Euskal Herriaren eskubideak, errepresioa, torturak ... Seminarioa poliziak inguratua. Eta bat-batean, Xune bertan!

Igaro behar genituen korridore, eskailera eta sotoak apaizgai gaztez beterik zeuden, eurok ere jolasaldian. Ezin nuen antzeman alboan neraman neskatoak nola eta nori zer galdetuz zeharkatu zituen eraikin erraldoi hartako sarrera eta zoko guztiak, hainbeste begirada zurtu eta gosetiren artetik. Eurak ere nerabezarotik irteten (atzerapenez irteten) ari ziren mutil sotanadun haiengan, bat-bateko zauskada aztoratu bat irudikatu nuen, euren irrika etsietan amestutako zisne liraina hain toki ezinezkoan agertu zitzaienean. Zisnea eurek kontenplatzeko bereziki aurkeztu zela pentsatu behar. Beste esplikaziorik ezin zitzaien otu. Ez ziren gauza izan begiratze zuzenean probexteko pasaera laburregi hura. Aitzitik, buruak

elkarrengana pilatzen zituzten, irrimurri eta xuxurla eragabean, gero ikus zezaten, atzetik lapurki begiratzuz, zisnea betiko ezkutatu zela lehen kantoian, eurentzat egiazko agerpen guztiek zekarten destinoan.

Urduri nindoan, hitz betegarriak esanez —«neu ere horrelaxe ibilia naiz hemen urteetan»—, nahiko burumakur, ikasle gazteen begi harrapariekin topo ez egitearren. Beharrik ere ez, noski, haien itxurak eta sentierak zehaztasun osoz hautemateko, neure burua bainekusan

Ikusi nahi nuen, haien adin eta irrika berdinean. Janzkera, leiho, kolore, argitasun, usain eta ezaugarri fisiko guztiek hain berdin jarraitzen zuten nire garaitik non, errazen ez ezik, ia nahitaezko baitzen itzultzea neure nitasun nerabe hartara, zeina obelisko bat bezala goratu zen oroimenean.

Une batez, apaizgai nerabe haien taldekide bat gehiago naiz. Korridorean atzera-aurrera, Historiako irakasle extrabaganteari entzun berri dizkiogunei buruz trufaka gabiltzala, horra non hauteman dugun neskato bat, sotana multzoak saihestuz datorrena, uso iheslaria bezala. Neska bat geure korridorean. Ama Birjina! Zurekiko pentsakizun garbiei eustea hainbeste kosta eta gero, nola dakarzu gure begietara honelako aztoramena? Horretarako, hobe genukeen zeu agertzea. Ezkutatu da. Zergatik gertatu behar izan zaigu hau?

Indar handi bat eginik, neure izate aktualera itzultzen saiatzen naiz. Ez da zaila, baina erabaki egin behar. «Bihar-etzi —diotsot Xuneri—, beharbada, eurotako bat izango da zuen herriko abade». Ez dirudi entzun duenik. Bera ere begira doa, haluzinaturik seguruenik, hainbeste aurpegi zurixka gurutzatuz sotana beltzen gainetik. «Loreak ere badaude hemen!», hots egin du harridura airean, kaktus bat ikustean metro erdiraino jaisten, ogiba-arkuan amaitzen diren leiho eskergetako batean. Horrelakoxe landare suminkorra

izan behar, hainbeste esku bihurriren pasaeran osorik irauteko. Zer den garbi susmatu ezin dudan, baina nahitaez larria izan behar duen nahigabearen barrutik ere, neskatoa gai izan da bitxitasun sotil batez ohartzeko. Eraikinaren atze aldetik irteteko asmoz goazela, sotoetara jaitsierako eskailera barrenean, beldur tonuan jaulki du:

– Dena da ilunpea hemen!

– Ilunpean lasai ibiltzen ginen. Nire beldurra leku ageriak ziren.

– Ez zait batere gustatzen. Irten egin nahi dut hemendik!

– Xune! Badakit nondik nabilen.

Atzeko zelaiak, batzuk mutiko brusadunez, beste batzuk mutil sotanadunez beteak, errezuan bezala saihestu genituen, eta erreka bazterreranzko bidea hartu. Kontraste brutala. Maiteminduen ezkutatzeko lirikoa zirudiena eszena tragiko bihurtu zen, neskatoa, inork ez zuela ikusten segurtaturik, negarrean lehertu zenean. Zaratarik atera nahi ezta, munan eseri eta burua eskuartean, bare ziztatu bat bezala uzurtu zen, eta zotin bortitzek inarrosten zioten gorputz osoa. Isilik nirauen, nondik hasi ez nekielako.

– Nireak egin du! –hasperen egin du noizbait.

– Esan lasai, Xune! –eskatu diot, eskua bere buruan pausatuz, jasotzen ahalegindu gabe.

– Ez nintzen honaino etorriko ezer ez esateko, ezta? –hots egin du armin, eta poztu nau bere agresibitateak, amorrutik ahalmen zerbait itxaron baitaiteke.

– Zer gertatu da?

– Karpo!

– Zer egin dizu berriro?

– Oraingoan neuk egin diot berari. Hiltzear dago!

– Zer diozu? Non? Zelan?

– Hiltzen bada, hiltzaile izango naiz. Hiltzen ez bada, hiltzen saiatzaile.

– Xune! Egizu hitz argi. Zer egin duzu?

– Karporen bordari su eman diot goizean.

– Borda zerri batengatik horrenbeste larritasun?

– Bera zegoen barruan!

– Barruan zertan, ez ohartzeko borda erretzen ari zela?

– Ez zeukan nondik irtenik. Atariko ira eta egur piloari su eman diot. Bordaren aurrealdea nola berehala gartzen zen gozatzen ari nintzen, «hobe barruan bahengo!» pentsatuz, eta garrasiak entzuten hasi naiz. Ihesari eman diot, baina bordaren albo bateko kuku-leihotik biraoak eta txakurkeriak entzuten nituen. «Ikusi haut, urdekume! Bazekinat nor haizen! Hau bai ordainduko didan larru-larrutik!». «Larru-laaarrrrutik!» ahoskatu du, zuk zergatik ondo ulertuko duzun moduan.

– Ez da hil, baina erredura larriekin jaso dute Gernikako ospitalera.

– Etxean ba al dakite zure...

– Tximistan alde egin dut –mozten dit–, zeugana etortzeko.

– Xune! Lehenbailehen etxeratzeko modua egin behar dugu.

– Ezin naiz itzuli. Ez dakit itzuliko naizen ere.

– Goazen! Pentsatuko dugu zerbait.

Joateaz ziurrago nengoen ezer pentsatzeaz baino. Berriz ere hamarretik hogeita bost urtera bitarteko apaizgai-maila guztien begiradak ahalik diskretoen itzuri ondoren, sotoetarako bidegurutzean, sarraskia utzarazi dioten hienak bezalako gorroto airez begiratu zidan neskatoak, esan nionean trena orduro zeukala Bilborantz eta handik autobusa, behar zen lekurantz. Biharamunean elkar ikusiko

genuela, herrira joatekoa bainintzen itxialdiaren berri ematera.

– Ez al duzu «goazen!» esan oraintxe?

– Ni motorrean joango naiz, zeregin batzuk eginda. Inori ezer esan gabe ezin naiz joan, zu etorri zaren moduan.

– Itxarongo dut. Motorrean ibiltzen badakit, aurrean zein atzean.

– Egon atariko mailadi nagusian. Laster agertuko naiz.

Nire zereginak ez dira luzeak izan. Ez dakit esturaz ala antzez, txoria harri gainera bezain zoli saltatu da motorrera, eta bagoaz, Deriotik Zamudion zehar, Txorierri atzean utziko duen ekialderantz. Ondo al zatoz? Astiroago nahi? Bere neurriez oraindik osoki jabetzeke naizen drama baten garraiatzaile naiz.

Kilometro batzuk egin ondoren, ezin dut gorputz osoko zirrara ekidin, sentitzean neskabila bat dakardala –lehen aldiz!– neure gorputzari itsatsia. Berak ezin ditu, gajoak, pentsakizunok susmatu, baina nik, besoak hego eran zabalduz eta begiradaren erdia jaitsiz, bere belaunak ikusten ditut nire aldaken kontra. Motor gaineko jarrerak eraginda, gona barrenak, parpaila hori eta arinez errematatuak, izter erdietaraino atzeratzen dira, nire begiei harago tiratuz. Ispiluan irudi txikia, oso txikia dakusat, baina nahikoa, bestela ondo ezagutzen dudan aurpegia neure begipean sentitzeko. Aurpegi biribilkoi, deigarriro simetrikoa, non sudur labur eta lirainki zorrotzak inguru guztia dominatzen baitu. Belaunak hortxe datoz garbi eta xarmant. Zer gehiago behar dut, bulartxoak bizkarraren kontra nabari baditut? Isilik goaz aurrera, Erletxetako bidegurutzea jo arte. Gasolindegian gelditu naiz, jaitsi naiz, jaisteko agindu diot, eta galdetzen du:

– Mangeratik urruntxo ez al gaude?

– Orain autobusean joango zara.

– Hemen utzi behar al nauzu? –hots egiten du harridura irrituan.

– Xune! Laster Zornotzaren erdi-erditik pasatu beharko genuke. Hangoa naiz, apaiza naiz, eta denek ezagutzen naute. Handik aurrera, zenbat eta harago, gehiagok ezagutuko gaituzte. Ez da komeni nigana etorri zarela jakin dadin. Ekarri duzun auzia ez da txangoan ibiltzeko modukoa. Hor dituzu bi taberna, ordutegiak itauntzeko. Tori bost hogەرleko, txartelerako eta otarteko baterako.

– Dirua badaukat. Goserik ez daukat.

– Orduan banoa. Bihar elkar ikusiko dugu. Jo etxera lehenbailehen. Inork ez dezala sumatu falta izan zarenik, entzun?

Bi bikote osatzen zituzten. Neskek seiná urte eta mutilek zazpina, elkarren «lagun» izatea erabaki zuten. Laukotea ziren, baina binaka. Umeen kontuak! –zioten irribarrez etxean eta herrian. Hamar eta hamaikana urterekin, ume kontuak maleziara lerratzen hasi ziren, hots, zentzuaren hurrengo zelaira. Harremanak ezkutu bihurtu ziren, eta laukotearen zin nagusia «sekretua» zen. Zerbait dioena bertan hil! Horretarako, disimulua ere landu behar zen, eta zenbat eta disimuluak sarritan pribazio edo urruntze mingarriagoak eskatu, laukotearen lotura areagotzen zen. Hainbesteraino non, ekain batez, eskolaldia amaitzear, uda askea eta astitsua gaineán zela, ezkontzea erabaki baitzuten. Sekretu osoan, baina elizkizun eta zeremonia guztiak euren kontura moldatzeko modua eta bitarteak aurkitu zituzten, elizaren barruan, mutikoak akolitoak baitziren.

Ezkondutakoan, artean bekatuzko eta, beraz, konfesatu beharrekoa zen jolas bat, «medikuka», eskubide

bihurtu zen. Mutila bazen mediku, neska etzanaren gorputzari auskultazio orokorra egin behar zion, eta neska bazen mediku, mutilaren gorputzari. Biek batera elkar aztertzea geroago etorriko zen, baina ez era sistematikoan, alternantzia kasik maiteago baitzuten. Artean emakume medikurik apenas ezagutzen baitzen, neskak, gehienez, «erizainak» ziren.

Auskultazioak gorputz jantziz ala biluziz egin, jolasak ez zuen zehazten. Ez zuen zehazten azterketa «sakona» izan zitekeen ala ez. Badakit pare bat urte geroago sakonean saiatzen zirela, Xunek, kontzientziaren zenbait apalalditan, konfesatu beharra sentitu zuelako. Jolasak ez zuen zehazten bikoteen osakuntza eta jarraipena nolakoa izan, baina suposatzen zen bikote tradizionalak izango zirela. Neskek hamalau eta mutilek hamabost urte zituztenerako, haurren inozentzia eremu zabalagoetara iritsia zen.

Hartan, herriko eskola mistoan aritzeko azken urtea amaitzera zihoanean, laukotearen elkar - zera inarrosiko zuen sekretu paralelo bat agertu zen mutilen aldetik, ez esan-bai esan aspalditik zetozena: animaliak ere «jardun - lagun» izatea.

– Nongo animaliak? –galdetu zuen Xunek armiarma aurpegiz, hemengo animaliak jardun hori kontsentitzeko gai ez balira lez.

– Nongoak izango ditun, ba? –mutiletako batek, ostra erdibituaren aurpegiz—. Ba al da hemengo animaliez besterik?

– Baina animaliak... hegaztiak... narrastiak...

– Bitartekoak.

– Hozkariak, adarkariak, ostikariak... –Xunek, harriduran gora.

– Zuenean zer animalia zegon?

– Txikitik handira, txita, oilo, ahate, untxi, katu, txakur, txerri, ahuntz, ardi, asto, zaldi, behi, zezen, idi...

– Azeriak eta azkonarrak ere izango ditun nonbait! –mutil batek.

– Azeritan eta azkonarretan... horretarako ibiltzen al zarete? –Xunek, harriduratik harago.

– Nork esango likek! –mutil batak besteari–. Parisko balletistekin ibili garela zirudik.

– Nork esango liken! –Xunek beste neskari–. Gomorrako kakarraldoeekin ibili garela zirudin!

– Tira, neskak! Orain arte entzun gabe al zeundeten animaliak «zerbitzalak» direla?

– Mutilentzat beharko! –Xunek, higuin keinuz.

– Hau madonna pare! –bigarren mutilak–. Ez al duzue ikusi Michelangeloren «Leda eta zisnea»? Edo Paul Avrilen «Artzaina ahuntzari larrutan»? Edo Franz von Bayrosen «Oreina neskatilaren bulba miazkatzen» edo «Emakume baten felazioa bere txakurrari»?

– Non ikasi dituzue zerrikeria horiek guztiak? – bigarren neskak.

– Maisuaren tiraderan liburu gordin bat aurkitu geninan.

– Ikusi al genezakek?

– Zaila! Aurreko maisuarena izan zunan.

– Bai dela alukeria gure trenak beti joanak izan beharra! –Xunek, bere harriduretatik itzuliz.

– Lasai! Batzuk berriz ere pasatzen ditun –lehen mutilak–. Zatozte gurekin, eta ikusiko duzue.

– Joan, nora? –Xunek.

– Ibaigorriko Jentil-zubira.

– Zer ikustera?

– Agertuko zaizuen a –bigarren mutilak.

- Zer entzuten ari gaitun? –bigarren neskak.
- Horretan saiatu gabarik ez dun egongo fraide legorik, ez ahizpa lekaimerik –lehen mutilak.
- Orduan gu... –gelditu zen airean Xune, esaldia hornitzeko elementu faltan.
- Zuek guk baino gehiago gozatu ahalko duzue! –jaulki zuten bi mutilek unisonoan.
- Nirekikoak egin dituzue! –bigarren neskak, lurrera tu eginez—. San Martin oso bana opa dizuet!

Azken hitzok amorru exaktoaren lehortasun eta ebakitasunez jaurti zituen. Begirada zurrunki horizontalean, begietatik izpi bana pareleloan luzatuz, pausaje irmoan aldendu zen, betiraunera iritsi eta bertan gelditzeko moduan. Xune ere abiatu zen, oinkada laburragoan, isilik, begirada distantzian. Neska lagunari iman ahul bati bezala zerraion, atzean ez gelditzeko lain, baina harrapatzeko erabaki gabe. Ez zuen hain aurkikuntza brutalaz inorekin hitzik nahi.

Hala ere, tente iraungo bazuen, zuhaitz bat besarkatzera bultzatzen zuen higuinari ez zion nagusitzen utzi nahi, bere jakin-min instinctiboa ez itotzeko. Sen basikoren batek eragozten zion nobedade dardaragarriari zentzumen guztiak ixtea. Zenbat eta higuin handiago, jakin-minak hainbatago ziztatzen zuen. Animaliekiko grinez bazuen zerbait entzuna, baina hara non orain jakin zuen fantasia bestial hura errealitate bat zela, zeinatik at aurkitzeak erremina ematen baitzion, errealitate ezkutu guztietan gertatzen zitzaion moduan.

«Emakume baten felazioa txakurrari» izenekoak intrigatu zuen gehien, ez hainbeste irudiaren beraren inpaktuagatik, baizik, bat-batean, etxeko txakurren misterio zenbait ulertzen hasi zelako. Beti harritu zen nola txakur txikiak, Xuski izeneko ile-multzo zuri-beltzak, txera berezia egiten zion berari, etxeko inori ez bezalakoa, mutilekiko

ibilera ezkutuak usnatu bailituen, pentsatzen zuen orain. Ez zen, ordea, Xuski bakarrik, edo katean egon beharra zuen gorri-ilun handiagoa, Simon. Ohartua zen, sarritan lotsagarriro, txakur muturren lehen joera bere izter artera izaten zela, esanez bezala: «Hortxe dago altxorral». Animalia horien indiskrezio proberbialetik esplikatzeko baino kontu gehiago susmatu zuen.

Etxera iritsi zenean, txakurrek ez zuten defraudatu. Euron ustezko intentzioak hain adierazpen argi eta sinplean ikusirik, maitagarriago egin zitzaizkion, errukarriago ere bai. «Ai, Xuski! Ai, Simon! Nola ez dizuet antzeman?». Bidean zekarren abaildura, mutilei buruzko desengainua, denak akabatzen hasteko modukoa, argitzen, xarmatzen hasi zen, mundu berri baten ataria usaintzeraino.

Astebete igarotakoan, bere mutilarengana erdi bakarrean hurbiltzeko disimulu egokia iruditu zitzaion Gorpuzti prozesioa, lirioz eta krabelinaz apaindua. Denak kantuan zihoazela, «zapata kordela solte daramak» esanez bezala, xuxurlatu zion:

- Jarraitzen al duzue Jentil-zubira joaten?
- «Hona bildots ezta!» –trufatu zen mutila, abesten zihoazen Eukaristia kanta ahapetuz.
- Jentil-zubikoa itaundu diat.
- Neska gabe zertara joango gaitun?
- Animaliena aipatu baitzenuten.
- Ez din graziarik, mistoan izan ezik.
- Animaliekin ez al duk, ba, bakoitzak egitekoa?
- Ikusteak egiteak beste balio din.
- Bazaudete bi mutil.
- Gurea berdina dun. Bestea duk ederra, mutilek neskena eta neskek mutilena ikustea.
- Nik ez nian esan ezetzik, ez baietzik.

- Beste mutilak ez din ezer jakin nahi.
- Geu biok joan gintezkek.
- Biok? Seguru al hago?

Jentil-zubik arku egitura zeukan. Herrian zioten erromatarrek inoiz eginiko zubirik luzeena zela, alde batetik ez baitzen bestea ikusten, eta berdin alderantziz. Hori hain ibai txikian bitxikeria bat zatekeen, behinola bertatik zetorrena odola izan ez balitz. Hortik Ibaigorri izena. Jentilenak ere bazuen hipotesi ugari, herritarren zorionerako. Gauza ziur bakarra zen odolaren miraria ez zela konkistatzaile inperialena, zeren inork ezin baitzuen asmatu erromatarrek zertarako nahi zezaketen zubi bat halako erreka-zulo batean. Izan zitezkeen kriminalak, baina ez absurdoak. Xunek eta Kirmenek (bada garaia mutilaren izena deklaratzeko) ondo zekiten gordetasun haren berri, non karramarroez eta ura edatera jaisten ziren animaliez beste bizidunik ezin baitzen itxaron.

Lehen egunean, Kirmenek asteme txiki, horixka eta guri-guri bat ekarri zuen, eta ahuntz gorri bat, mutilari noranahi jarraitzeko gertu egoten zena, txokolate apur baten pozean. Puskin izeneko txakurtxoa ere tartean zebilen, beti prest noranahi jarraitzeko, batez ere «nobedadea» usnatzen zuenean. Zubi ondoan, alde batean eta bestean, zelaitxo bi zeuden, behinolako txondorguneak. Bertatik baizik ezin ziren ikusi, itotzeko moduko landaredi trinko eta hostotsuak inguratzen baitzuen ibaia. Kirmenek, bere jardunean, hogeita hamar zentimetroko harri-idulki batetik, eroso eta artoso maneiatzan zuen astotxoa, zeinarentzat esku luzatuek bizkarrean zegioten azkura ezin atseginago baitzen.

Xuneri ikuskizun xarmagarria iruditu zitzaion, poeta greko-latinorik onenen duin. Ahuntzarena zailago zen, zeren, honentzat ere azkura garrantzitsu izan arren, eta astoarena ez bezala, atzea belaun artean aise atxiki ahal izan arren,

txokolatearen oroitzapenak ez baitzion barkatzen. Eten gabe nahi zuen biratu, gozokia harrapatzeko. Zorionez, bazituen bi adar dotore, zeintzuetatik heldurik aise immobilizatua izan zitekeen. Biratzen saiatzeak eta astoarena baino ezinegon handiagoak sortzen zuten mugimenduak, edo gutxienez dardarak, jarduerari exzitazio zoragarria eransten zion, Xunek mutilaren aurpegi exaltatuan eta mihi barregarriro irtenean nabari zuenez.

– Zer iruditu zain? –galdetu zuen mutilak atsedean baten ondoren.

Xunek ez zuen egintza kalifikatu.

– Imajinatzen al dun saio berdina Thompson gazela batekin? Haren ipurdi liraina! Garbi - garbia, guri - guria. Koloreak ere xarmentki gozoak, sentsualki lerrotuak.

– Ahuntz gaixoa! –Xunek.

– Hau pozik zebilen, txokolatea ematen badion.

– Baleki zertan gabilitzan!

– Eskerrik asko, Xune! Zoragarria haiz. Esaten ninan ikusteak egiteak beste balio duela.

– Ikustea egin diat, baina alderantzizkoa ez diat ikusten nola izan litekeen.

– Laster ikusiko dun. Puskin! Hona!

Txakurra tximistan etorri zen, deiaren zain egon bailitzan. Brageta irekitzeko planta nahikoa izan zen sator-zuloan bezala muturra sar zezan. Kirmenen pitilin zimela agertuz batera, txakurra milikatzen hasi zen, galez.

– Nork irakatsi zio horretan? –galdetzen du Xune harrituak.

– O! Hau etxe aberatsetik etorria dun. Pitilin triste bati honela ekiten dionak pentsa hire txondortxoa harrapatuko balu.

– Ai, ama! Hau lotsa!

Puskin ez zen aise bereizi Kirmenen txori-zulotik. Xuneren aurpegi irribarretsua hurbiltzea nahikoa izan zen, Puskinak irrikaz milika zezan, edo saia zedin, neskatoak alto eman baitzion, esanez: «Et, et, et! Aurpegia garbi nahi diat». Txakurra, jolasgarritzat hartu zuen indarketa baten ondoren, aurpegirik ezin zuela lortu ikusirik, gorputzeko beste zoko batzuk usnatzen hasi zen, milikatzen ere bai, batez ere, gonatxoa jasorik, izterrak ezustean ireki zitzaizkionean. Xuneri barreak eta ijuiak irten zitzaizkion, inoiz ez baitzuen nabaritu hain kili-kili bizkorrik.

– Ai ama! Kirmen! Honek josi egin gura naik!

– Utzion!

– Baina hau benetan zebilek!

– Eta gu jolasean!

– Puskin! Zertan habil? Barruan arrain bat dabilkidala sentitzen diat.

– Txakurrena luzea izaten dun!

Esperientzia hura mundu oso bat izan zen Xunerentzat, eta guztiz at-mundua bientzat, erreka-zulo hartan ezin baitzen beste existentziarik kontzibitu natura indiferentea baizik, eta, beharbada, Jainkoaren begi nekatua. Aldi bat horrela joan zen, euren sekretuaren atseginean adina gozatuz atseginaren sekretasun hertsian, imajinatu gabe beste begirik izan zitekeenik. Hots, bazela beste begi bat. Karpo! Honek zerbaiten susmoa hartua zuen, zaindu zituen, eta misterio batekin topo egin. Distantziatik eta oihanaren trinkotik ezin zuen bereizi zein zen jokoa. Neska-mutilak bakarrik izatera, aise irudikatuko zukeen, baina arras noraezten zuen animalia ezberdinen konpainia hain hurbil eta laztankoi hark. Kataloxa on bat eskuratu behar zuen berehala. Inguru hurbilean zerbaiten susmagarri bilakatzeko beldurrez, Bilbon agertu zen.

– Monokularra ala binokularra? –galdetu zuen optikariak, Karporen ezuste osorako.

– Ba... –pentsaketa adituan bezala gelditu zen, diferentzia zertan zegoen ez galdetzearren.

– Bata begibakarra duk eta bestea bibegia –zehaztu zuen optikariak.

– Ni neu begi biekin ikustearen aldeko naiz, baina bakoitzaren abantailak jakitea ere komeni da.

– Distantzia nahi baduk, monokularra. Ikuspen gozatsua nahi izanez gero, hobe bikoa.

– Orduan, atera bikoa. Baina handia! –markatu zuen autoritatez.

– Handia zer? Luzea?

– Ba, esaterako, Oiz menditik Lekeitioko uharteko akerraren adarrak ikusteko modukoa.

– Honekin potroak ere ikusiko dizkiok.

– Akerra izatea ez da derrigorra.

– Hemen derrigorra ez duk ezer. Mila eta berrehun pezeta.

– Horrenbeste?

– Badauzkak ehun pezetakoak, baina horiekin ez duk akerrik ere ikusiko.

Prismatikoekin ere ez zen erraza ikuspegi egokia lortzea hain landaredi eta hostaila sarrian, ikuspena eta gordetasuna garantizatzeke moduan. Lortu zuen ikustea. Xune biluzia etzanda, txakurra txorta delirantean, eta Kirmen tente begira, aurreko zuhaitz baten kontratik. Karporen gorputzak atzerakada bortitza egin zuen, eulitzarrak kristala jotzean bezala. Neskatoak etxerantz pasatu behar zuen bihurgune batean, erreka kontran hau ere, Karpok kasual itxurako elkartze ondo pentsatu bat antolatu zuen.

– Etxerantz ala? – Karpok.

- Beharko, gaua ere gainean da eta.
- Xune! Hirekin hitz batzuk egin nahi nitizken.
- Nirekin?
- Leku lasaiagoan eta astitsuago.
- Astia badaukat, hitz luzeegiak ez badira.
- Luzeegiak ez zekinat, baina delikatuak bai.
- Delikatuak? – ikaratu zen Xune.
- Xune! Jentil-zubikoa... bazekinat!
- Jentil-zubiko zer?
- Zertara joaten zarete Jentil-zubira? Zer egiten duzue han?

Neskatoa munan eseri zen, erori zen, bola dardarti bat egina. Samina hala biltzen, uzkurtzen, ixten denean, bere tamaina baino larriago da irteerarik eza. Bat-batean, itomenak poro guztiak itxitako larruazal bat besterik ez zen. Karpok, fereka xuabea, burua topatu nahi zion, esanez:

- Ez daukan ezeren beldur izan beharrik. Neuk bakarrik zekinat.

- Nola dakizu zeuk bakarrik dakizula? –galdetu zuen Xunek zotin konbulstsiboan.

- Neuk ez bestek ezin izateko eran deskubritu zintuztedalako—. Karpok bekokia topatu zion, eta gorantz xuabeki tiratu, esanez: –Ez daukan lotsatu beharrik. Adin horretan denok ibili gaitun esperientzia berrien bila. Ez hadi gehiago Jentil-zubira joan, eta hitz egingo dinagu.

- Non?

- Geure bordan, adibidez. Zuen basoa gure borda jotzen zegon. Leku segurua eta susmagaitza, zuen etxekoek eta gureek inguru horretan topo egitea normalena baita.

Xunek mutilari ez zion ezer aipatu. Biharamunean, eskolatik etxeratu eta askaria erdi lorrinduta utzirik, ibaiaz beste aldeko aldasgoran abiatu zenean, Karporen begiek

goitik zekusatena ez zen Xune bat, Garaizabal edo Fontelarra abizendu zitekeena, baizik figura deuseztatu bat, aurrera zihoana zertara jakin gabe.

– Lasaitu al haiz apur bat? –galdetu zuen Karpok, borda barruan eseri zirenean, bi harriren gainean jarlekutzat zegoen gaztaina ohol sendo eta zabal batean—. Nahi al dun kas bat edo? Nik hemen beti izaten dinat edariren bat.

– Ez nago ezer edateko moduan.

– Alde batera, pena zeukanat Jentil-zubikoa moztu izanaz –hasi zen Karporen deklarazio limurkorra—. Hain zunan jardun xarmagarria! Baita inbidia zerbait ere neure aldetik. Salbu haiz, Xune! Utziko al didan besarkada bat ematen?

Xuneri ez zetorkion hitzik. Karpok gozoki heldu eta samurki estutu zuen. Malkoa xukatzen ere lagundu zion.

– Xune! Hemen ez gauden eroso. Etzango al gaitun belar bigunean?

Sakatu zion arinki, eta neskatoa ez zitzaion jarki. Belarra benetan biguna eta beroa zen.

Apropos ekarria, seguruenik.

– Xune! Ez dinat ezer egingo. Honelaxe egon bakarrik. Soineko eta guzti.

Egoatea luzatu ahala, besarkada estutzen, berotzen, dardaratzen zihoan. Zaila da Xunek zer pentsatzen zuen asmatzea, pentsatzen baldin bazuen. Halako sentieran aurki zitekeen nola urpekari bat olagarro erraldoi baten atxilo. Xune suge zapaldua bezala agondu zen, eta hots egin zuen:

– Hauxe ez zait batere gustatzen!

– Datorren astean lasaiago egongo haiz.

– Datorren astean zer dago?

– Hementxe biltzea nahi niken, gaurko orduan.

– Ni ez nator gehiago hona.

– Xune! Hire bizitzako sekretu delikatu baten gordailu naun. Laguntza behar dun, ezer ez dela gertatu sinesteko.

– Azkena izango da.

– Ados!

Hurrengo astean, antz-antzeko bilakaera errepikatu zen, belarrean etzan ziren arte. Xunek bazekien egotea besterik ez zeukala, erresistentzia nuloa jarritz. Karpok esan zuen:

– Azkena izatekotan, penagarri luken berdina izatea.

– Zer esan gura duzu?

– Arropatxo horiek... Ireki bakarrik. Ez dinat ezer egingo.

Xunek ez zuen baieztu, ez ezeztu, ez ezer egin ezertarantz. Karpo astiro-astiro, gozo-gozo, alkandora irekitzen hasi zitzaionean, neskatoak hasperen sakon bat bakarrik egin zuen, oxigenoa pilatuz. Gona ez zen irekitzekoa. Gorantz biltzea nahikoa izan zen. Behe aldean izter guri-guriak agertu ziren, estuki bat eginak, elkar babestu guran. Goi aldean, mundua ikusten hasi berri ziren bularrak bereiz, bakarti zeuden, oraindik elkar topatzen ikasi gabe. Zoragarri hago, Xune! Aurreko astean bezala, denbora bete zenean, hutsune suspergarri baten ondoren, Karpok atean esan zuen:

– Bai eder izango dela egintzaosatzea! Hurrengoan, beharbada?

– Gaurkoa azkena izango zela esan genuen.

– Xune! Ez dinat giza harremanik eskatzen. Har nazan heure animalietako bat bezala.

– Zu ez zara animalia bat.

– Hiretzat bai.

Xuneren aurpegia beldurgarriro eraldatu zen, Karpo ere izutzeraino.

– Ni ez naiz hona gehiago etorriko! –txinpartatu zitzaion begietatik.

– Xune! Barkaidan beharbada gordinegi esana, baina ni hire sekretu larri baten jabe naun.

– Neu ere bai zure beste batena! Ez al duzu pentsatu hau herrian jakitea zeuretzat zer litzatekeen?

– Nork sinetsi behar liken, nik ukatuz gero?

– Neuk ere berdin uka nezake zurea.

– Nik, Xune, hire jardunen... argazkiak zeuzkanat!

Hortik aurrerako elkarrizketa hain doilor, hain mingarri, hain bortxati litzateke, non literaturak ere ez baitu justifikatzen berritzea. Krokodilo antsiosoari ezin diozu eskatu, behin hartara, piezari jareiteko.

Une eta trantze horretantxe izan zen, Xunek niregana jotzeaz beste irtenbiderik ikusi ez zuena. Kondairak nokeaturik utzi ninduen. Negarrak eta ikarak dislokaturiko aurpegiz errepikatzen zuen:

– Ba al dakizu zer litzatekeen halako argazkiak zabaltzea?

– Ez dira zabalduko.

– Nola dakizu?

– Argazki horiek Karporen buruan bakarrik daude.

– Nork daki hori, berak eta Jainkoak bestek?

– Ez naiz Jainkoa, baina haren ordezkotzat naukate. Tonto jarritz gero, Jainkoa baino gehiago izan naiteke.

– Ez nago tontokerietarako!! –oihu egin dit, eta Drakularen letaginak ikusi dut.

– Xune! Prismatikoena sinesten dut, baina bestea...

– Eta baietza balitz?

– Nire aholkuak ezer balio badu, utzi lasai Karporengana joateari. Esaiozu bekatua konfesatu beharrean aurkitu zarela. Esateko modu bat da apaizak ere badakiela.

Joan zen, erabakia bazuela esanik, baina norantz adierazi gabe. Hurrengo ikusi nuena seminarioan agertu zenekoa izan zen, dramatikoki aurreratu eta deabruki zailduriko historiarekin. Ez zuen argitu Karporekin beste zenbat isil-elkartze eta norainokoak izan zituen, baina bat baino gehiago izan behar, halako mendekuraino iristeko.

Iluntzean, eskualdeko ordezkariekin bildu nintzen Lekeition, seminarioko itxialdiko martxaren berri emateko eta inguruko informazioa jasotzeko. Bueltan, nire motorra animoso sartu zen abadetxeko pasilloan, erakutsi nahiz bezala ez zuela gidari beharrik bere ohiko zokoa azartatzeko. Artean gautua zen, eta motorraren argiak itzaliz batera, atzean oin hotsa aditu nuen. Ez nuen oihu egin, urguiluak beldurra gainditu zuelako. Pasilloko argia piztean, Xune bertan, paketetxo bat eskuan-da.

– Xune! Zer dagizu hemen? –itaundu nion, sukaldera bide emanez—. Ez al ginen berbatu biharko meza ostean elkar ikusteko?

– Amak pakete hauxe eman dit zuretzat.

– O! Zer da berau?

– Gazta bat, egin berria. Zalea ei zara.

– Xune! Zuen amak ezin izan zaitu bidali gazta batekin gauez, bere herrikoa ez den apaiz batengana.

– Zu geure herrikoa bazina lez zara.

– Baina zuen amak badaki bereizten «bazina» eta «bazara». Bo! Ondo egin duzu. Zerbait egin litekeela uste dut.

– Zer? Zerbait zer? –Xunek antsios.

– Karporekin egon naiz.

– Ospitalera joan al zara?

– Etxera bidali dute. Ez dago ondo.

– Ai, ama! Zertara joan zara? Zer egin duzue?

Elizaldetik mendaterantz, kilometro laburrera dagoen Bergoien auzoan, Karporen etxe Sarribe ikusi dudanean, dardarak jo nau, itzultzea pentsatzeraino. Arnasaldi sakon bat, eta aurrera jo dut. Zer egin ahal dit sutatik pasatako gizaseme batek? Karporen ama izan behar duen emakume batek galdetu dit negarrez: Berorrek ere jakin al du ezbeharraren berri? Banarama eskaileretan gora koltzaraino, non aita izan behar duen gizon batekin topo baitut. Begira gelditu gara logelako ate erdi-irekitik ageri den ohe zurira. Dena zuria, horixkarantz. Burua behar duena ere zuritasun trakets bat baizik ez da, pintore baten balde iraulia bezalakoa. Nola bat egin behar ditut eman didan errukia eta dakardan amorrua? Gelara sartu naiz, gurasoak atzetik direla. Oheburura hurbildu naiz, eta amak: Karpo! Bisita handia etorri zaik gaur. Gurasoei bakarrik utz nazaten keinu egin diet, eta berehala obeditu dute, soluzio handiren bat horrexen gorabeheran balego lez.

– Zelan zagoz, Karpo? –galdetu diot.
– Berorrek dakus –darantzu ahulki.
– Ikus, ikus...
– Hementxe barruan. Lur barruan hobe zena.
– Ez, Karpo, Jainkoarren! –hots egin dut intonazioaren gezurra igar zedin beldurrez–. Denborak osatuko du hori ere.

- Ez dakit nahi dudan.
- Nahia ere denborak ekarriko.
- Nola izan den ez al dit itaundu behar?
- Ez da behark –ausartu naiz erantzuten.
- Nik badut beharra, baina ez dakit nola...
- Ez neka, Karpo! –moztu diot–. Badakit guztia.
- Guztia zer?

– Suarena eta aurrekoa. Eta aurrekoaren aurrekoa, eta guztia. Guzti-guztia dakit, Karpo.

Beldur nintzena gertatu da: hitzak haraindi ezabatu. Zuritasunaren azpian kiskalduraren belztasun pitzatua, zarakartua dakust. Ikaratu naiz pentsatuz beldar erraldoi honek alde egin lezakeela, neskato hondatu bat munduan utzirik.

– Ez nator salati, Karpo. Gertaerek ez daukate bueltarik, baina errematea ekidin genezake.

– Genezake? Berori ere barne?

– Bai! Zuk ez duzu esango bordari nork su eman zion, eta nik ez dut esango su hori zergatik eman zen.

– Hori gezurra da!

– Zer da gezurra?

– Neskatoak kontatu diona.

– Zer da neskatoak kontatu didala uste duzuna?

– Ezin dut jakin.

– Bai ahal duzu, badakizu eta. Kontua da neuk ere badakidala.

– Nire egoeraz abusatzera al dator berori?

– Bai, beharbada, baina ez gezurrez. Hain gutxi, bidegabeki. Zuk neskato-mutikoak euren ezjakinean obserbatu zenituen moduan, zergatik ez duzu pentsatu neuk ere berdin egin ahal nuela zurekin eta neskatoarekin, prismatiko agian ez hain aurreratuekin?

– Zer nahi du berorrek?

– Zuk ez duzu esango bordari sua...

– Nork esan du ezer esatera noanik?

– Argazkiak entregatu behar dizkidazu.

– Ez dago argazkirik.

– Ez dauden argazkiekin xantaiatu al zenuen neskatoa? Nik baditut, ba, zuen argazkiak.

- Hori bai xantaia!
- Egiazkoa, ordea!
- Ni akabatzero etorri al da berori?
- Salbatzero, Karpo, baina bion aldetik joko argiz.
- Zer egin nezake nagoen moduan egonda?
- Argazkiak non dauden esan. Logela honetan?
- Esan diot ez dagoela argazkirik.
- Orduan neureak erakutsiko dizkizut.
- Ene Jainko! Zergatik ez naramazu lehenbailehen?

Gizona edo astronauta fosila dirudiena isilik geratu da.

– Karpo! –diotsot tarte batera—. Azken uneetan egon zaitezke. Esaidazu non, eta egina da bakea guztientzat, betiko. Bakarrik jakingo dugu zuk, nik eta laster bere aurrera joango zaren Jainkoak.

– Ireki armairutzar hori –agintzen dit noizbait—. Hortxe ... beherengo ...

– Ez neka, Karpo! Armairuan badago, aurkituko dut.

Hemen dago pergaminozko karpeta bat, lodi-lodia. Edukia ez dut ikusiko. Zin dagiot Karpori dagoen-dagoenean jaurtiko dudala sutara.

Igandeko azken mezaren ondoren, plazan eta tabernetan sortzen ziren lagunarteak era lasaiago, lauago eta askeagoan gozatu ondoren, ordu bi eta erdietan, Amorototik Gizaburuagako abadetxera itzuli nintzen. Motorrak errepidetik atarirako arrapala xuabea hartu zuenean, etxe aurreko palmondo luzearen kukulak, brotxa erraldoi baten antzekoak, makurtu eta paparrean jo banindu bezalako zaplada sentitu nuen. Motorra ez zen gelditu, baina nire begiak zurrun zeuden sarrera ondoan zekusaten

neskatoagana. Xune zen, harrizko jarlekuan eserita, neska nerabeek ohi duten uzkurdura tipikoan, euren gorputzetik kanporatzeko oldarrean diharduen mutazioari eutsi nahi balioke bezala. Bare eta adoretzu, ia euforiko nentorrena, bat-batean desegin zorian aurkitu nintzen. Atea zabalik zegoen, eta motorra bazihoan pasillo luzean barrura, berak ondo zekien zokora. Neskatoa atzetik zetorren, sukaldera sartu nintzen, eta bera ere bai. Atea ondo itxi arte ez nintzen ausartu galdetzen.

– Zer gertatu da, Xune?

– Harrigarria! –darantzu aurpegiera estralurtarrez.

– Ez dirudizu izutuegi.

– Ez dakit zer sentimendu dagokidan.

– Ez al da esatekoa?

– Karpo hil da!

– Ooo! ... –hertu naiz plost, palmondoa gainera jausita lez.

– Hil egin da! –errepikatzen du, ni baino bera konbentzitu nahian–. Ez naiz ausartzen ezer sentitzen.

– Ni zure lekuan ausartuko nintzateke. Poztu zaitez lasai, Xune! Nik, ofizioz, ezin dut inoren heriotzaren pozik agertu, baina Jainkoak batzuetan permititzen du gauzak ondo gertatzea.

– Orduan, amaitu al da guztia?

– Heriotza nik ulertzen dudana bada, bai.

– Ai, ama!

Orein-salto batean esku biek burutik heldurik, musu ozen bat damait, zer dagien kontrol gabe lez. Eseri da bere aulkian, baina eskuekin ez daki zer egin. Bere aurpegiak egunsenti kondentsatua dirudi. Biok gara sekretuaren jakile bakar. Kidetasun horrek araberako elkar-lotura mental bat

utzi behar digu derrigor, jada badena eta denboran auskalo zer bilaka daitekeena.

– Xune! Bazkalduta al zaude?

– Nola etorriko nintzen bazkaltzeke, bueltako autobusa hiru ordu barru izanik?

– Salto batean neuk motorrean eramatea bururatu zait, baina zuretzat gogorra izan daiteke herrian sartzea, apaiz baten motor-lagun.

– Niri berdin dit!

– Niri ez, Xune. Bakarrik behar dugu zabaltzea apaizon itxialdia neskekin ibiltzeko zela.

Sukaldeko erloju zaharra, ia bi metro luzerako tramankulu lokartua, martxan ipini nahi du Xunek. Abiatzen da bere tik-tak erromantikoan, baina berehala isiltzen. Xune hementxe dago, aurrez aurre eserita. Bi ordu eta erdi dauzkagu elkarrekin egon beharrekoak. Neskato honek hogeitau urte dituenean, nik hogeita hamabi dituzket. Drama baten kulminazio zoragarria litzateke. Beharbada, bera ere hasia da zerbait sentitzen. Lau eskuak, nireak geldi samar, bereak mugikor, mahai gainean ez dabilta elkarrengandik urrun. Batzuetan hasperen inkontzienteak jalkitzen zaizkio.

– Aurrera egin beharko dugu, Xune, ezta? –galdetu diot, esanaz batera kezkaturik «dugu» horren ulerkera posibleaz.

– Nora egingo dugu, ba? –Berak ere «dugu».

– Hori da jarrera!

– Etxe honek mamuz betea dirudi.

– Badaude, baina ondo konpontzen gara.

– Hm! Leku tristea begitantzen zait.

– Ez beti. Gaur, adibidez. Xune! Bihar Karporen hileta izango da.

– Eta?

– Zeuk ere hiletara joan beharko baituzu. Herrian eta inguruan ez dabil beste auturik.

– Beldurtu nahi al nauzu?

– Prebenitu bakarrik. Oraindik hain berri eta bero dago guztia!

Ezin dut sinetsi bere patxadaren naturaltasun gardena, partxisera jokatzera etorri bailitzan, noiz eta giza esperientzia brutal baten ondoren.

– Kartetan ba al dakizu? –galdetzen diot.

– Igande arratsaldeetan, horixe izaten da gure dibertsio bat. Nik briskara baino ez dakit.

– Jokatuko al dugu partidatxo bat, autobusari etortzen laguntzeko?

– Bai? Zuk nahi?

Karta-jokoak bestela ezinezko edo ezin ausartuzko litzatekeena erarik naturalenean bideratzen du. Aurpegiak hurbil - hurbil, belaunak mahaipen ia elkar jotzen, bekoz beko eta luze begiratu daiteke. Ari garela, ezuste zirrargarri bat gertatzera doa. Triunfoa ez den hiruko urrea bota diot, eta berak bateko urrearekin jatea gertatu. Baza miragarriaren entusiasmoa luzatzen ari zaiola, banoa hurrengo karta hartzera, eta eskua zapla jartzen du nirearen gainean.

– Et, et, et! Neuri tokatzen zait hartzea.

– Beti zeu? –galdetzen dut.

– Nork jan dizu oraintxe hiruko urrea?

Eta bitartean, bere eskua nirearen gainean, eskarmenta nadin zanpatuz bezala. Nire aldetik ez da izan jokaldi guztiz inkontzientea. Kartetako hitzak, keinuak, irribarreak guztiz egiazkoak izaten dira. Esanahiak, berriz, askoz egiazkoago iruditzen zaizkit. «Larri al zaude?», galdetu diot, eta berak baietz. Hurrengo bueltan diot: «Oraintxe neu ere beterik nago, ba!». Erantzuten dit: «Jarein zuk lasai! Badaukat zerekin

hartu». Berriz ere, eskuak mahai gainean. «Et, et! Geldi hor! Orain neu naiz». Bi esku, nirea azpian, berea gainean. Gerotxoago diost: «Zeri barreka zaude?». Eta nik: «Xeलेbre jartzen zara, eskutxoak paparrean batzen dituzunean, kartak gordetzeko». Alkandora horixkak, harizkoak, bular sorberrien erliebea markatzen du.

– Xune! Neugatik pozik jarraituko nuke, baina autobusa oraintxe irtengo zen Lekeition. Hamar minutu barru hemen da.

– Dagoeneko?

– Entzun dituzu dandak.

– Nola lo egiten duzu kanpai horien azpian?

– Begiak zabalik eta belarriak itxita.

– Daitekeena al da hori? –harritzen da.

– Goazen kanporantz. Autobusa ez da sukaldetik pasatzen.

– Don Jabier! –gerarazi nau pasillo luzearen amaian, kanpoko atea irekitzera nindoala–. Eskerrik asko guztiagatik!

– Zeuri areago. Niretzat zorion bat izan da.

– Zorion bat?

Sagar-begiak ireki zitzaizkion eta musu azkar bat eman zidan hormaren kontrara, igel-jauzia bezalakoa. Atea ireki nuen eta joan zen. Trataera «dontsuak» («Don Jabier» esan zuen) musuaren alkantzua bere tokira ekarri zuen, baina nekez itxiko nuen inoiz ate bat zirrara beteagoz. Ederra da bi ordurako maitemintzea. Gutxiena da bera konturatu den ala ez.

Ongi! Hau amaitu da. Orain beste kontu batzuetan gaude.

ELKARRIZKETA SIBILINO BAT

Atea jo al dute? Baietz dirudi. Pasilloan aurrera noala, kan-kan-kan berriro, sartzeko presaz bezala. Bai akustika haserrea daukala etxe honek! Atea bera zerbaitegatik amorratuta ez badago. Nire lehen lanetako bat aldaba garbi bat agintzea dateke. Ireki ere ez da gustura egiten, krisketetik kirrinka, zoruan karranka.

– Kaixo! Gau on!

– Gau on berorri ere. Barka ordu okerrean banator.

– Abadearen atea jotzeko ez dago ordu okerrik.

– Bide batez nentorren eta pentsatu dut ze, kanpai-jolea naizenez ...

– Sakristaua al zara?

– Kanpaien arduraduna.

– Goazen barrura, haizetan egon barik.

– Beste barik barrura?

– Presa al daukazu?

– Nire gaurko zereginak amaituta daude.

– Neuri ere komeni zait jendea ezagutzen hastea.

Sukaldera sarreran, gizon luze samarra iruditu zait, apur bat oker jitez. Neure hogeita lau urterekin, gizonezko zaharragoak oso zahar ikusteko joera daukat, baina berrogei urteren bueltan behar du. Esertzera gonbidatu dudanean, ez du aitzakiarik ipini. Alboetara ez du begiratzen. Sukaldea ezagutzen du, antza. Apaizekin edo karguekin tratatzen ohitua dirudi.

– Ezin dizut ezer eskaini.

– O! Ez dut behar ere. Estimatus!

– Lehen eguna dut, eta armairuak betetzen ez naiz hasi oraindik.

– Berorrek bete behar al ditu armairuak?

- Jainkoak lagundu lezake, baina armairuak betetzen ez.
- Beste norbaitek esan nahi nuen, neskameak edo.
- Herria zapaldu baizik ez dut egin, eta pentsatzen ere ez naiz hasi zer gobernu modu hartuko dudan. Neskamerik, apenas. Izena zelan duzu, mesedez, zeozer jakiten has nadin?
- Migel Mari. Baina guztiek «Sastripo» esaten didate. Familian aspalditik datorren izena. Oraingo belaunaldian neu naiz Sastripo bakarra.
- Abadeek ere izen horrekin deitzen al dizute?
- Migel Mari nor den inork ez daki hemen, txakurren batek - edo izan ezik.
- Sastripo kanpai-jolea, beraz.
- Kanpai-jole, lapiko-konpontzaile, larru-batzaile, ile-moztaile, txerri-irentzaile, sagar-inausle, eta sasoian sasoiko ofizio asko, jauna, pobre jarraitzeko. Baserritarra ere bai apur bat, baina niri atez ate ibiltzea gustatzen zait. Etxe batzuk urri samarrak dira, baina batz - bestea emankorra izaten da.
- Kanpaiena abadetxean egin beharko dugu.
- Luistarren kofradiak egiten du. Abadeak bai izan lezake eragina ordainaren gorabeheran.
- Beheran barik goran, ahal dela?
- Bai, ahal dela, lehen ere nahiko behean gabiltza eta. Ehorzle ere egiten dut, baina hori udalaren kontua da. Honen herri txikian, ia mirari da inor hiltzea.
- Ez dakit zer egin genezakeen mirari hori txikitzeko, jaiotzak ugaritzea ez bada.
- Jaiotzatik heriotza urrun dago, jauna. Kanpaien ardura azken sakristaua hil zenean hartu nuen. Sakristautza bera neskek daramate hemen. Mariaren alabek. Abadeentzat alaiagoa dela esango nuke hori, sakristau zahar bat inguruan eztulka baino.
- Neuk ere alai hartu beharko dut orduan.

- Zergatik ez, berori ere gaztea izanik?
- Agian berton zahartzeko.
- Zaila horixe! Hemen abadeek denbora laburra egiten dute. Mundua zabalagoa dela jakiteko beste doi-doi. Berorren izena Don Xabier, ezta?
- Izena, Xabier. «Don» hori ofizioari utziko diogu. Zeure kasuan ere ez litzateke itsusia Don Sastripo.
- Destripatzailea? Ofizio horixe ez daukat, egingo nuke baina.
- Kanpai-jolea eleganteago da.
- Hain zuzen, etzi Andra Mari eta bihar bezpera denez, elizkizunak ohiko moduan izango diren jakin nahi nuen.
- Bai, bai, jakina! Zeuek dakizue gauzak zelan egiten diren.
- Abade bakoitzak bere arau-modua izaten duenez, badaezpada etorri naiz, nobedaderik izango ote den.
- Ni ez naiz nor etorritz batera gauzak aldatzen hasteko. Ikusi eta ikasi egin behar dut. Herria ezagutu eta abar.
- Herri txikia infernu handia da gero!
- Herri jatorra ematen du.
- Ez fida lehen irribarrez. Bigarrenak ostikada ezkuta lezake. Herri txikia izan arren, denerik dago hemen.
- Denak euskaldunak, esan didatenez.
- Euskaldun izateak ez du zerurik zabaltzen. Hemen, aspaldion, atrebentzia lartxo dabil.
- Geldi egon beharra luzea izan baita.
- Eta izango, apur batean. Iritzia martxan hasi da berriro, baina ez dakit norainoko aurrerapena ekarriko duen. Abadeak ere nahiko solte ikusten dira batzuk.
- Zoro samar, beharbada?
- Ez dakit, gazteak ere badira eta. Berorren burutik ere jakingo du hori.

– Nire burua oraindik berriegi dago munduan. Gogoa eta ilusioa bai, baina ikusi egin behar, kemena ere behar baita.

– Gaztetasuna zoroa da, eta zorotasunak norabide asko ditu.

– Ni oraintxe nago bide-seinaleen panelean.

– Zein bide ez bada ere, zeintzuk ez dituen hartuko laster antzematen zaio pertsonari.

– Horraino iritsi naizela dirudi. Zu etorri honelaxe. Lantzean iritzi sano bat entzuteak asko laguntzen du.

Iritzi «sanoa» esan dut, baina hobe, badaezpada, Sastriporen aholkua —«ez fida lehen irribarreaz»—, berarekin aplikatzetik hasi. Ez dut argi sumatu zer zekarren buruan, agurtzea, informatzea, esploratzea, kanpaien ordaina ala beste asmo batzuetarako bitartekotza probatzea. Bo! Lehen eguna dut herrian. Oraindik ez dut lorik ere egin abadetxean. Kanpaia gain-gaineen entzuten da. Apoak eta igelak, ez dakit non. Hontza leihoren batean. Kirrizkak etxe guztian, bizilagun txiki guztiak abian bezala. Has gaitezen zaratak ezagutzen. Lehen gaua da, etxe batean lo egingo dudana, bakarrik. Esango nuke hauxe dela bakardadearen sarrera.

NEURE ALABA MOJATXOA

Familia ugariaren ama eta hainbat ilobaren amama hiltzear dago, batere penarik gabe, sekula ezagutu dudan federik zindoen eta menkorrena bide. Bete-bete sinesten du Jainkoaren besoetara doala. «Nik egin dut egin beharrekoa munduan. Hemendik aurrera etxekoen traba besterik ezin naiz izan». Saiatzen nintzen animatzen kasu horietarako topiko pozkorrekin, baina zer esan behar diozu herio-begi nabariak ikusten dizkiozun bati? Itxaropen osoa nuela hurrengo Andre Marietan bera elizaldean ikusteko. Baita, zergatik ez, iluntzeko erromerian ere, ikusle bederen, gaztetako hauts-harrotzeak dohatsuki gogoratuz. «Ez, Don Jabier! Eskertzen dut berorren borondate ona, baina nik ez dut nahi lehengo ezer. Nik nahi dudan bakarra da lehenbailehen joatea Jainkoaren eta Ama Birjinaren aurrera».

Hala bazen, eta argi zegoen halaxe zela, esan nion azken bedeinkapena emango niola, «bidaia eder bat» izan zezan. «Esan lasai “heriotza eder bat”, jauna, bera baita bidaiarik ederrena». Hunkitu nintzen, eta bere fedeak mendiak mugitzeko baino gehiago balio zuela esanik, banindoan bedeinkapena ematera, non geldiarazten bainau, esanez:

- Barkamena ere beharko nuke, jauna.
- Barkamena zuk? Zerena?
- Hartarako eskubide dibinorik ez dudan desio bat izatearena.
- Pozik nentzuke zein den bera, kostatzen baitzait zuregan imajinatzea Jainkoa iraintzeko desiorik.
- Berorri bakarrik esango diot, berorrek bakarrik barka baitezake.

– Esan beldur gabe. Nire ahotik ez da berba izpirik irtengo.

– Nire heriotza guztiz eder izango da, baina bai litzateke zoriontsu ere, Jainkoak grazia bat emango balit, badakit ezin dena baina.

– Justina! Esan beldur gabe, Jainkoarentzat pentsamendutik hitzera ez dago alderik eta.

– Badago aldea, jauna, euroi horixe esanarazten diete baina. Hitz asko pentsamendu hutsean gelditu izan balira, munduan ez legoke hainbeste haserre eta ezinikusi.

– Hori egia da, baina oraindik ez duzu zeure desioa azaldu.

– Neure alaba mojatxoa, jauna! Huraxe ikustea litzateke nire begiak pozik itxi daitezen grazia.

– Ez dago, ba, urrun!

– Urrun ez, baina ezinean, euren arau santuak bide.

– Nahi al duzu saia nadin?

– Alabari kalte egitea da azken nahi nukeena. Hain da bera on eta otzan!

Justinaren alaba mojari bisita bat egin nion, herriko apaiz moduan onartu zitzaidana. Amaren azken gogoaren berri eman nionean, beloz jantzitako aurpegia erori egin zen sareta ostean. Malkoak ezkutatzeko, duda gabe, nahiz iluntasun hartan perla txikiegiak izan, inork hautemanak izateko. Ama ikustera joango litzatekeen galdeturik, zotinhitz eutsietan erantzun zuen nola ez zuen ikusi nahi izango mundu honetan maiteen zuena, Jainkoaz hurrengo. Ordenako arautegia zen oztopo.

– Gu uko boluntarioa eginda gaude munduko harreman eta ondasun orori.

– Zergatik ez duzu probatzen baimena eskatzea? Nork daki baietza ez luketen emango, ama hil hurran bat ikusi nahi izatea ezin baita izan Jainkoari irain bat?

– Ezin denik ezin dut eskatu. Badakit zeintzuk arau onartzea eta betetzea zin egin nuen.

– Nahi al duzu neu saiatzea?

– Ez, mesedez! Insumisiotzat hartuko lukete, horixe bailitzateke.

– Zuk ez duzu ezer eskatu. Areago, ukatu egin zara. Amaren guraria bakarrik azalduko dut. Ama ez dago zure botoen mende, hain gutxi heriotzaren oinetan egonik.

– Ez, gaixoa! Hark ez dauka bere penaren errurik.

– Saiatuko al naiz orduan?

– Ezin diot debekatu, berori ere ez baitago gure arauen mende.

– Jainkoak badaki asmorik piadosoenez gabiltzala.

– Gure ama laztana! Horixe lortuko balitz, Ama Birjina guztiak ipiniko nituzke berorren alde.

Aurrean daukadan ama priorea berrogeita hamar bat urteko emakume maiestos eta amultsu bat da, ofizioak eskatzen diona baino mundu handiagoko dirudiena. Lehenik eta behin, saretak eta iluntasunak albo, aurrez aurre mintzo gara egongela ondo argitu batean, ez hain zabala berau, baina bai altueran erasan didana, beharbada horretarako proiektatua izango baitzen. Unerik solemneenetan maleziarik bihurrienak ekartzeko grinatik oraindik libratzeke darraien nire gogoak ezin izan du pentsatzea ekidin ezen, hain emakume guria eta itxuraz hain bitala izanik bera, hainbesteko argiztapena ez dela izango, agian, pentsakizun ilunei aurrea hartzeko klaritatea bakarrik, baizik apaiz gazte larden bat ofizioz atenditzea gozamen bihurtzeko era subtil

bat. Lerden kontua izan daiteke neure irudipen oker bat, baina ez dago dudarik banaizela apaiz eta banaizela gazte.

– Nire eliztar alaba bat zure agindupeko zerbitzari da, eta susmoa daukat eskumen-gatazka bat sortzear dugula.

– Jesus, gure Ama zaindari txit donea! Beldurtzen nau berorren sarrerak.

– Biblian bada gogorragorik. Sor Luziaz dihardut.

– Ahizpa eredugarria, zintzoa eta apala. Oso maitea dugu hemen.

– Baita bere etxean ere, amak batik bat. Hilzorian dago bera.

– Gaixoa! Ezagutzen dut, bai, behin edo behin gure komentura etortzetik. Jainkoak hartuko ahal du bere altzoan!

– Ez dago dudarik, zeren hain fede egiazkorik apenas inorengan ezagutu dudan. Kontua da amak aitortu didala azken sakramentuetan, mundutik joatea guztiz zoriontsu izateko, bere «alaba mojatxo» ikustea besterik ez lukeela behar. Tamalez, badaki ezin dela, eta alaba mojak ere gauza bera errepikatu dit. Nik, oster, ebanjelio guztiak berrikusi ditut, eta ezin dut aurkitu arrazoi duin bat, Jainkoari alaba on bat entregatu dion ama bati bere umea ikusteko azken poza ukatzeko.

– Ai, gure apaiz gazteak! –hots egin du errukior, salati ere izan daitekeen tonuan.

– Gaztetasuna ez da heresia bat izango, ezta? –galdetu dut irribarrez.

– Ez, noski. Orduan, denok gentozke heresiatik. Gertatzen dena zu elizgizon sekularra zarela, eta gu ordena erregular bat, geure arau eta ukoekin.

– Arauek ama hil hurren bat ukatzeraino behartzen al dute?

– Ez dituzu ebanjelioak ondo berrikusi, hantxe aurkituko baitzenuen harakoa: «Aita eta ama nigatik uzteko gai ez dena ez da nire duin».

– Pasarte hori sarritan irakurri dut, neuk ere ahalegin horretantxe dihardut eta. Ebanjelioak «uzteko» dio, ez «hiltzen uzteko».

– Nik ez dut hori esan!

– Horixe ulertu duzula dirudi.

– Nik esan dut, edo esan gura dut, gure ordenak araudi bat daukala, bere sasoian gure fundatzaileak aurkeztua eta Erromak onartua, mendeetan zehar maiz berrikusia eta, halaber, Erromak baitetsia. Guretzat profesatzen direnek, euren gogoz eta etxekoen oniritzi osoz, uko mundutar batzuk promesten dituzte, zin eta guzti, boto eta guzti, publikoki eta betiko.

– Nire arazoa da, hileta elizkizunean eta kristau herriaren aurrean, nola salbatu behar dudan laugarren agindua («aitari eta amari dedu eta lotsa izan»), bere amaren hilzorian egoten utzi ez zaion alaba baten izenean. Hogei kilometrora bizi dena berau, beste senide batzuek Amerikatik honaino etortzeko «dedu eta lotsa» izan dutenean. Eta gastua ere ez nolanahikoa.

– Zergatik eman behar duzu inork eskatu gabeko argitasunik?

– Hitz eman dudalako ahal nuen guztia egingo nuela. Azalpenen bat eman beharko dut nire ahaleginak non porrot egin duen.

– Kristauek badakite sobra ere moja-komentuetako arauen berri. Orain arte inor ez zaigu agertu horrelako eskariarekin.

– Jainkoaren graziak noizbait etorri behar zuen lehen aldiz.

– Sentitzen dut, baina ez dago nire esku. Ordena guztirako aurrekari bat litzateke.

– Ama Donimedes...

– Doni, mesedez!

– Ama Doni agurgarri, gogoratu behar al dizut Jainkoa gizaki egin zela, eta ez mamu?

– Neuk ere gogoratu behar al dizut Jainkoa gizaki egitea gizatasuna gainditzeko izan zela?

– Erlijio diferenteetan gabiltzala uste dut. Segi zeuen arauen lanketan. Nik erraz aurkituko dut nahi beste pasarte ebanjeliko, ama baten heriotzan bere alaba mojaren absentzia behartua deitoratzeko.

Ez dakit Ama Doni arrazoiek konbentzitu duten, apaiz batenganako errespetura makurtu den, ala beldurraren zain egon den, agian bere gizatasun propioak eskatzen zion erabakia justifikatzeko. Ala mehatxuak behar zituen! Beteko ez nituenak, nolanahi, ez bainaiz hileta itzaltsu bat salapen mingarriekin bortxatzeko bezain astoa.

Kontua da baimena lortua dela. Auto bat eskatu dut, apaiz batek klausura-moja bat motorrean eramatea arrazoitzeko pasarte ebanjelerik ez baitut aurkitu, eta banoa sor Luziarekin, ni aurrean eta bera atzean, badaezpada. Atze-ispilutik hautematen dut nola urteetan ikusi gabeko inguruak leihotik kontenplatzen dituen, irrika ia mistikoz. Eta, batez ere, nola etxea ikusteko eta amari poztasun agian berpizgarri bat eroateko emozioa ezin duen ezkutatu. Bere belo eta abituen azpian, bibrazio xume baten gainean, dardara-zartak igartzen ditut aldizka, esku-igurtzi eta sorbalda-uzkurtze bihurtzen direnak.

Berrogei urteren ondoren, ezin dut begietatik ezabatu ama hil hurren baten aurpegi hura, bere alaba mojak logelako atean hots egin zuenean: «Ama! Banator!». Egun beltz horietan, ostarte lapur batek eguzkia erreskatatzean, nola

munduren ikuspegia erabat aldatzen den, halaxe argitu zen emakumearen espresioa, eguzkia bertan gelditzeko agertu bailitzan.

– Lo ere bertan egingo al dun? –galdetu zuen.

– Bai, ama! Etxean lo egingo dut, zeure ondotxoan.

– Ez, ume! Nire ondoan herio usaina zegon. Pozik nagoken alboko gelan haizela jakinez.

– Ez, ama! Ni ez naiz etorri alboko gelan egotera. Heriotzak ez nau beldurtzen, hain gutxi zurea bezain itxaropentsu datorrenean.

– Etorri haiz, laztana! Oraintxe ez zeukanat ezer, mundutik joateko penara lotzen nauenik.

Sor Luziak gaua etxean egin zuen, eta amaren azkena dohatsu zihoan. Ama prioreak itzulera apaizaren esku utzi zuen, baina biharamun goizean mojatxoa kezkati zen, egin beharrekoa egina ez ote zuen. «Neuk deituko dut komentura eta esango diet heriotza atzeratzen ari dela, amarentzat zure etorrerak piztualdia ekarri duelako». Konformatu zen, eta ez gutxi poztu gero, jakinarazi nionean ama prioreak esan zuela hartzeko denbora lasai, egun bat edo batzuk gorabehera. Hurrengo goizean, hil hurrenari ohiko bisita egitera nindoala, bidean topo egin nuen goitik beherantz zetorren sor Luziarekin.

– Nora zoaz, Maribel? –galdetu nion ponte izenez.

– Itzuli nahi dut.

– Ama une batetik bestera hiltzeko utzita?

– Bete dut bete beharrekoa. Amak joateko esan dit.

– Zer esango zizun, ba, zu hain larri ikusita? Ez al da nahikoa ama priorearen esana?

– Ama prioreak nahikoa egin du niri baimen eskergaitz hau emateaz.

– Ez al zara fidatzen nire bitartekotzaz?

– Eskerrik asko, Don Jabier! Joan nahi dut.

Ez dakit amorrua ala inpotentzia izan zen, baina ez nion ekin alferreko arrazoiketari. Moja haren gogoan, borondateren batez abusatzen edo pribilegio merezigabe bat xahutzen ari ote zen beldurra baino areago izan zitekeen ideia aszetikoa ezen zerbait humanoki konpletoa gertatzeak nahitaez izan behar zuela moralki susmagarri edo errugarri.

EZKONBERRIEN ERDIAN

Ezkontzak jasotasunez, ia arrandiaz egiteraino aurreraturik zegoen bizimodua. Ez etxe guztietan, baina bai gehienetan, zorpean bazen ere, elizkizunak eta bazkariak oso era handiosean ospatzen ziren. Abadeentzat ere egun oparoak ziren. Hain elizkizun distiratsua eta, itxuraz behintzat, denen aldetik zoriontsua ofiziatzeak samurtzen ninduen, bekaizten ere bai apur bat, hanpatzen ere ez gutxi, ikusiz nola, elizan bezala kanpoan, abadeari halako goitasuna esleitzen zitzaion, inoiz ezkonberrien protagonismoa lausotzeraino. Gutxien itxaroten nuena zen, eztei-bazkari jaukal hartan, jantokiko ohore-mahaiko jarlekuen banakuntza txit erritualizatuan, non eta ezkonberrien erdian eseriko nindutela.

– Ez, ez, ez! –atera zitzaidan barru-barrutik, lotsaz baino sumin-puntu batez. Berehala pentsatu nuen nire erreakzioak ez ote zituen arbuiatutzat sentiaraziko ezkonberriak eta hauen gurasoak, eta oro har, gonbidatu guztiak.

– Honela al da ohitura? –galdetu nuen tonu apalean.

– Ohitura honelaxe da inguruotan –berretsi zidaten ezkonberriek.

– Ondo begitantzen al zaizue?

– Honelaxe ikusi dugu beti. Gure aldetik, intentziorik onenez izan da.

– Ez daukat dudarik! Zelan pentsatuko nuen zuen intentzio txarrik, guztiz alderantziz baizik?

– Bazkaria bizkor joaten da –animatu nahi izan ninduen neska ezkonberriak—. Gero jendea berehala hasten da mugitzen, eta berori ere nahi duen lekura alda daiteke.

– Ez da horregatik, Maritxu. Ni zuen artean pozik eta harro nengoke. Gustura ere bai, estutzen banauzu –. Jende mordoa solasera adi zegoela baliatuz, tonu ozenago eta solemneagoan jarraitu nuen: –Baina zelan jarriko naiz zuen erdian, neuk banatuz oraintsu neuk batua, aldarean aldarrikatu dugun moduan? Zelan apurtuko dut neuk ezarritako «uztarria», lehen okasioan?

Uztarriaren sinbolo ezagun eta txit popularrak berbaro distenditua eta joria eragin zuen, giroa egunari zegokion umorera ekarriz.

– Alde batera, arrazoia da, izan ere –dio batek.

– Eta bestera ez ala? –ondokoak.

– Ez zekiat! –hots egin zuen astunki nobioaren aititak, mahaiaren muturreko kokapenetik–. Makina bat urte zeramagu munduan, eta alde batetik eta bestetik arrazoia zena nola ez diagu inork ikusi, oraintxe arte?

– Gauza bat egingo dugu –esan nien ezkonberriei, eta bide batez, ilara guztiari–. Badakit ni urruntzea zeuen erabakia izatea gogor egingo zaizuela, baina erraz-erraz konpon dezakegu. Ondoratu ezkonberriok, korritu aulki bat ilara guztian, eta ni aititaren ondoan eseriko naiz, mahai muturrean, berak onartzen banau. Horrela, ni lasaiago egongo naiz, eta ezkonberriok ere baietz esango nuke.

– Hori nahi al du benetan berorrek? –berriz ere neska ezkonberriak.

– Hori dagokidala uste dut. Banatzeko denbora gero ere izango duzue, nahi baduzue. Baina ez lehen egunean, eta are gutxiago, abade bat bitartean dela.

Aititaren ondoan amama zegoen, eta hauen aurrean ezin lasaiago nengoen, ez baitzuten hitz askorik egiten, neuk eragin ezik. Seguruenik, etxean, plazan edo tabernan, berritsuak izango ziren, baina etxeko eztei-bazkari baten solemnitategian, begiratzeari garrantzitsuago zen hitz egitea

baino. Dena ikusi nahi ondo, dena ondo ikusi nahian. Ni ederto. Lasai eta losintxaturik aldi berean, nire hitz guztiak adeitsuki hartuak zirelako. Eta sentitzen nuelako dagoeneko jantoki guztia konturatua zela mahaiburuan gertaturiko aldakuntzaz. Banitateak tripa barrenetik zintzurreraino kilikatzen ninduen, pentsatuz ezkonberrien erditik erretiratzeko erabaki sorpresiboak ez zuela gaitzespenik eragin.

Garbi esanda, niganako sinpatia handitu zela suposatu nuen, nire banitateari interesatzen zitzaionez, beste herri batzuetako ezteiliar ezezagunek ere, bazkariko alegrantziak aurrera egin ahala, esaten baitzuten: «Honelakoxe abadeak behar genituzke herri guztietan». Hitz horiek norberaganako maitemin unibertsalaren deklarazioa bezain eztiki lerratzen ziren nire gogoan. Banekien, gero urteek egiaztatuko zutenez, eztei haietako ondorio oroituenetako bat nobedade huraxe izango zela. Ezin izan nuen, hala ere, baztertasun eroso hartatik, neure figura ezkonberrien artean imajinatzearen dardara pertsonal bat ekidin, gehi halako lotsa gremial bat. Ohitura hark, apaizgaitan etxeko eztei batzuetan ere ikusia nuenak, baina aparteko pentsakizunik eragin ez zidanak, ez ninduen estutu neure burua trantze berdinean aurkitu arte.

Sotana beltz bat irudikatzen dut nobia zurizko eta nobio urdinezko baten erdian, kokospeko lepagoran engantxaturiko ahozapi gorri bat paparrean behera duela, erronbo zabal-zabalean. Abade lodikote, tripontzi, masail-gorri, sudur-zapalaren topikoak ez du fenomenoaren adierazpena agortzen. Berdin da luze-ihar, zurikail -espiritual, lerden-beltzaran zein jaiton-beilegi, eszenaren funtsa bestea baita: nobia ezkonberriak bazkari guztia darama «kukukumea» zerbitzen, eta nobioak hura entretenitzeko

kontuak iragazten, badaezpadakoak apartatzen, edo istorio dekorosoak asmatzen.

Mutil hiztunegia ez bada, adei-lege sekularrak: «Bai, ba! Bai, ba! Badaki berorrek. Batzuetan izaten da, bai. Hartu lehenen berorrek. Neska ona da, bai. Zahartuko gara, bai. Berori ere gazte dago oraindik». Eta horrelako katalogo indoeuropar guztia. Tarteka, ezkonberrien ama eta aita ere pasatuko zaizkio, «ondo al dago berori?» galdetuz, edo «zeozer behar balu, esan nobiari, e!» ekinez. Ezkonberriak agurtzera edo zoriontzera datozenek ere, lehen-lehenik, berari mintzatuko zaizkio:

– Berori ondo, ezta?

– Ederto! Ederto!

– Ederto bakarrik? –pentsatu izango nukeen, neu bertan egotera.

Nola ez du sinetsiko bera dela pertsonaia zentrala, erdi-erdian badago? Maiz saiatu naiz eszena hura estreinatu zuen ofiziantea irudikatzen, norbait izango baitzen ezkonberrien erdian lehen aldiz esertzeko ... adeia? ... muturra? ... bortxa?... atrebentzia, behintzat, izan zuena. Gustatu izango zitzaion, errepikatuko zuen, imitatuko zioten, eta lotsagabekeria horrelaxe iristen da ohituraren ideia positibora, ez behingo txarra maiztasunak ontzen duelako, baizik, inposatzaileari bere posizioa justifikatzea bezala, jasaileari ere komeni zaiolako gauzak ahalik gutxien sufritzeko moduan hartzea.

GUZTIAK ATE BERETIK

«Gogo-jardunak» esaten zitzaion. Garizuma. Bost eguneko jardunak-hitzaldiak edo «sermoiak», astelehenean hasi eta ostiralean amaitu. Bizkaiko herri bat. Urtea, 1966a edo 67a. Goizean, eskola-umeak. Arratsaldeko lauretan, emakumeak. Zazpitan, gizon ezkonduak. Bederatzietan, gazteak edo neska-mutilak.

Hauen txanda iritsi zenean, harritu nintzen neskak ate batetik (albo atetik) eta mutilak ate nagusitik sartu zirela. Elizetan, ohiki, banku ilara batean andrezkoak eta bestean gizonezkoak esertzen ziren. Edo aurreko bankuetan, ezker-eskuin, gizonezkoak, eta tarte batetik atzerantz, andrezkoak. Eliza guztietan ez ziren berdin banatzen, baina emakumeak eta gizonak bereiz, eliza guztietan, orduan eta geroago ere. Ate ezberdinena ez nuen inon ikusia.

Neska-mutilak, elizan, elkarren ondoan naturalki egotea ametsezina zenean, susmatzen nuen hitzaldiaren amaiera gisan planteatzera nindoanak, ezuste aztoragarriaz gainera, gogo-irabio bat eragingo zuela entzulegoan, eta burrundara ez txikiagoa herrian eta inguruetan. Gutxi gorabehera, honela joan zen errematea.

– Amaitzeko, entzule maiteok (solemnitatearen euskarria behar zen), gure gaurko berbakizun interesgarri guztien eta, oso oker ez banago, lortu dugula esango nukeen konexioaren emaitza gisan ... –Honelakoetan, beti nesken aldera begiratzen nuen, ez dakit zergatik. Edo badakit, bai. Jakingo ez dut, ba!–. Emaiza gisan, ekimen xume bat proposatu gura nizueke. Konturatu naiz eliza honek ate bi dituela, biak zabalik. Eta orain banku-ilara ezberdinetan zaudeten moduan, barrurantzean ere, neskak ate batetik eta mutilak bestetik sartzen ikusi zaituztet. Atrebentzia barkatzen badidazue, larregi eskatzea al litzateke

kanporantzean denok ate beretik irtetea? Ondo baderitzozue, jakina! Eta zeuek gura baduzue, beti ere, ze baliteke oniritzia eta guraria batera ez joatea. Beste barik, bihar arte guztioi, ordu honetantxe. «Agur, Jesusen Ama» kantatuz amaituko dugu, zutunik.

Ez dakit zerk eman zidan kanta horrekin amaitzeko burutapen ridikulu samarra, ez gogo-jardun batzuetako hitzaldi bati («sermoiari») gaizki doakiolako, baizik inondiko asmorik ez neukalako. Badirudi sen batek eman zidala neska-mutilei astia eman behar zitzauela, bat-bateko durduzan, erabakia pentsatzeko. «Agur, Ama maitea! Agur, agur, agur!». Hasi ziren bankuetatik mugitzen, begirada zeharrek, irribarre zimurrak, gezur-eztulak, ni ez-zu ez, zu ez-neu ere ez, isilik (elizan berba egitea bekatu zen), inork lehenengoa izan nahi ez, txakur bat pasatzen ikusi duen artaldea bezalatsu. Une laburrak, trinkoak, pixka bat hilaranteak, morboso samarrak ere bai, urduriak nolanahi.

– Zeri begira gagoz? Irten egin beharko da, ezta?

Neska batek mutil batzuei aterantz sakatu zien, bere atzetik beste hiru-lau neska arrastatuz. Uholean, marmarrean, aterantz estutuz, atalasea haratuz batera, inbutu inbertituan zabaldu ziren elizpean, barbaro ozen eta nahasian. Batzuek beste atera begiratu zuten, euren buruak handik irteten ari bailiran. Ez genekien zehazki balentria batez harrotu behar genuen, ala infrakzio sakrilego baten beldur izan behar zen. Handik urte batzuetara, huskeria bat eman bazezakeen ere, mende batzuetako ohitura gainditua zen, edo hautsia, ikuskeren arabera. Eta nahi gabe frogatu genuen giza gogoan ia lege jakina dena: gauzen garrantzia garaiek gehiago erabakitzen dutela, euren pisu espezifikoak baino.

– Ederra egin diagu! –hots egin zuen, jada kanpoan, mutil itsaskume pekazto batek–. Orain ate bat sobra duela geratu zaiguk eliza.

- Falta egingo dik hilen sar-irtenerako –erantzun zioten.
- Egun batzuk barru, gogoratu ere ez zarete egingo pasadizo honetaz –leundu nahi izan nuen auzia.
- Astiro hortxe! Ikusiko dugu herri osoak nola hartuko duen kontua, emakumeek batez ere.

Astean zehar, egun batean, andrezko eta gizonezko guztientzako ekitaldi bat izan zen, zahar eta gazte. Ez neukan asmorik herri guztiaren aurrean proposatzeko aldakuntza, gazteekin izandakoa ontzat eta nahikotzat emanda, baina sermoian zehar pentsamendu batek geroz indartsuago tentatzen ninduen: «Zergatik ez orain ere? Azken batez, ni hemendik joango nauk, eta gazteena hortxe geratuko duk, aurrerako seguruago atzerako baino». Eta honelaxe amaitu nuen:

– Eta orain, entzule kristau maiteok, proposamen txiki bat egin gura nizueke. Jakinean egongo zarete neska-mutilen berbaldietan zer nobedade abiatu genuen, horrelako kanpaiak suarenak bezain bizkor zabaldu ohi dira eta. Gazteez besteok ere ez daukazue gutxiago izan beharrik. Kontua da, normala zen bezala, andreak ate batetik eta gizonak bestetik sartzen ikusi zaituztedala. Zeuen etxeetan ate banatatik sartzen eta irteten al zarete? Eliza fededunen familia handiago bat besterik ez dela esaten jardun badugu, ez al litzateke kristauago denok ate beretik sar-irtetea? Gazteek horixe egin dute astean zehar, lehen egunean apur bat kostata bazen ere.

– Kostata zergatik? –hots egin zuen, hizketan hasteko tirakada txikia behar zuen aurpegi irregularreko gizon batek—. Lehen ere ez gara elkarren ondoan ibili gabeak.

– Hemen gaudenon artean –andre batek—, gutxi izango gara gurasoak, lau seme-alabatatik gora ez dauzkagunak. Horiek ez dira etortzen ate banatatik ibilita.

– Gazteei erreparoa ematea ulertzen dut –jaurti zuen gizon adintsu batek–, baina gure odolak, behin honezkero, elkarren hurren ipinita ere, ez du salto handirik eskatuko.

– Beste andreok ez al daukazue ezer esan beharrik? –galdetu nuen.

– Guk zer esango dugu, ba –andre batek–, gizon txakilek berbetan dihardutenean?

– Hemen ateaz gabiltzan, ez txakiltasunaz! –beste gizon batek.

– Atea? –aurreko andreak–. Hobe zenukete galtzen dituzuen botoiak josten ikasil!

Gazteekin baino delikatuago izango zelakoan, interbentzio horiek bidea alazo leundu zuten, hain baitzen erraza, aukerarik txikiena emanaz gero, jendea hizketan hastea. Seriotasun estatuario hori zergatik interesatu ote da mendeetan zehar, komunitatearen oinarrietako bat komunikazioa izanik? Horrelakoxe galderak egiten nizekion neure buruari, kristauak elizatik irteten hasi zirenean. Gehienak ate beretik. Batzuk baino gehiago, beste atetik. Hauetako batzuk, diferentzia nabarmentzeko plantan, eurei ez zegokien atetik irten ziren. Gero jakin nuen haien artean zirela herriko «indar biziak» zeritzenak. Herriari bizitzen ez uzteko gertu zeudenak. Geroago jakin nuen, gogo-jardun haietatik denbora laburrera, eliza hartan ere ohitura bihurtu zela, gizonezko zein andrezko, ate bakarretik sar-irtetea. Edo bietatik, baina nahastean.

BASAKABI I

Derioko seminarioko itxialdian geunden, poliziak inguraturik. Bigarren gauean, soto-gelako argien itzaltzea atzeratzen ari zen. Talde bat handitzean, kontsentsu berezkoa dirudi ordu informalak taldekide xelebreenek animatzea, nahiz gero, batzar garrantzitsuetan, isil-isilik egon. Noizbait, lehen zurrunga ausartak nagusitzen hasi zirenean, neure baitan ezkutatu nintzen, eta loa urrun ikusi nuen. Hots, urrun zedin desiatu nuen. Oroimen berri eta oraindik fresko-freskoan murgildurik, azken asteburu librea birgozatzerantz nindoan, ez agian gertaeran bezain intentsoki, baina bai askoz ohartuago, abentura zoro samar haren helburu nagusia horixe izan bailitzan: itxaroten ziren egun latz eta gau beltzetarako, samurtasun-erreserba bat pilatu.

Jardun ezberdinetatik elkarren ezagutza eta konfiantza hartua genuen lau neska eta lau mutil (bat abadea) ginen. Txangorako arrazoirik ez zen falta. «Militantziak harreman laxoagoak garatzeko ere balio behar du» – zioten (edo onartu zuten) neskek. «Ea abadetxo honi kandela usaina kentzen diogun» – zioten mutilek.

– Asteburu honetantxe ez bada, zati batean ez naiz libre egongo –abisatu nien.

– Zer dauka txarrik gauza on bat lehenbailehen egiteak? –galdetu zuen neska batek.

Ordezko apaizkide konfiantzazko bat edo fraide xalo bat aurkitzea ez zen zaila orduko ugaritasun klerikalean. Nire kezka handiagoa Gizaburuaga eta Amorotoko herritar-eliztarrak ziren, zeren, «zeregin inportante batek» huts eginarazi zidala sinetsi ondoren, nola hartuko zuten –pentsatzen nuen neurekiko–, zertarako ezabatu nintzen jakitera heltzen baziren?

Txangoa nafar mendietatik izango zen. Barautsia, Etxalar Hotelean. Xerra, xingar eta beste gazigarri, edari biziak eta araberako solasak ez ziren mahaian falta. Ondoren abiatu ginenean, bi Dyaneak txiklea bezala okertzen ziren, bakoitzean bi bikote. Auto haien «xarma» bihurgune-bazterrak ispiluaz miazkatzea zen. Hamaiketako biziaren ondorio bat izan zen ni kopilotu nindoan gidariak aldasbeheretan frenoaren kontzientzia galtzen zuela, pagadien trinkotasun hartzituaz aztoraturik edo. Ni eusten - eusten, halako bihurgune batean, esturak hots eginarazi zidan:

– Ezin al haiz kontuzago joan? Batzuk bizia maiteago izaten ikastera etorri gaituk.

– Galde atzeko horiei! –gidariak.

– Guri laga bakean! –dio burua mutilaren altzoan zekarren neskak.

Goizuetan, Lekunberrin, Arizkunen edo Belaten, jatetxe oparoa aurkitu dugu, arkitekturan eta menuan. Inguruak mirestekoko planta poetiko - intelektualean (abadea izan arren, ezin naiz libratu nesken aurrean pose batzuk garatzetik), loriatzen naiz Dyane parek elkarren ondoan gozo-gozo eta geldi-geldi ikusteaz, lesbiana-bikote bat bezala. Santutegi bat ere bada (Aralarren gaude), eta horrek behar nuena baino gehiago lasaitu nau, pentsatuz esan nezakeela, edozein ezuste gertaturik ere, luistar kofradeak eta Mariaren alabak San Migel bisitatzera ekarri ditudala. Taldekideek ere badakite kontsignaren berri. Bazkaritan, jakien eskaeratik ekartzera bitartea baliatu nuen txango-lagunei esateko:

– Aurrera baino lehenago, gauza bat esan nahi dizuet. Datorren astean, apaiz-talde bat ekintza gogor bat egitekotan gara. Ezin dizuet xehetasunik eman. Horrelako kontuak ulertzeko sen ondo garatuaren jabe zaretenez gero, badakizue ez duzuela ezer itaundu behar.

– Txangoa goibeldu behar al zaigu orduan? –galdetzen du neska batek, tamal tonuan.

– Ez, ez, ez! – irten zait tiro bat lez. –Zenbat eta egun alaiagoak igaro, animosoago iritsiko naiz egitekora. Jana badakarte, eta San Migelen sugeak lagun deigula. On egin!

Iluntzean, Leitzako Basakabi hotelean tokirik baden galdetu dugu, eta baietz. Ia hotel guztia geuretzat. Afaria ere hemen? «Berton! Nora joan behar dinagu, nahi genituenak elkarrekin bagaude?». Afarian zehar, erdi jolas, erdi benaz, lotarako bikoteak osatu ziren, mistoak noski, barre eta karkara ozenen artean, xanpain aparren laguntza oparoz. Ez naiz tonto kontsideratzen, baina, egia esan, ez nuen pentsatua egoeraren emaitza hura. Larritasun batek jo ninduen: «Txango hau jakina izatera iritsiko balitz?». Bitartean, bikoteak izendatuak ziren. Kasualki, neuk nahien nukeena esleitu zidaten.

– Apaiz zintzo bat gehiegi bortxatzea ez bada –dio gizonetako batek.

– Ez, ez! –atera zait barruko ez dakit nondik–. Ni ez naiz etorri talde baten harmonia apurtzera.

Logelara sartu garenean, ez nintzateke ezer deskribatzeko gai, ohe bat besterik ez baitut ikusi, bakarra, eta ate bat eta leiho bat doi-doi. Neskak bere maleta ohe gainean utzi du, eta bera ondoan eseri, «apatxel» esanez. Logelaren erdian taket gelditu naiz berari begira, eta berak ere halaxe egin du, entseaturik bagentoz lez. Beso abandonatuen muturretan, esku izerberak bakarrik sumatzen ditut mugitzen, itxi-ireki bizkorrean, jareiten dioten zerbaiti berehala helduz bezala. Lau oinkadatan, bigarren ate kontratik (bainugela izan behar du) begiratzen diot. Zortzi oinkadatan, leiho kontratik begiratzen diot. Nik esaten dirudit: «Hau zer dela pentsatu behar dinagu?». Berak esaten dirudi: «Hau hauxe duk. Geu etorri gaituk hona».

– Dora! Ez gaitun elkar ikusi gabeak, baina honela, inoiz ere ez.

– Beldur haizela esango nitek.

– Apur bat bai. Heu ez?

– Apur bat bakarrik.

– Ba, nik ez zekinat apur hori kuantifikatzen.

Zer litzateke, ordezkorekin utzi ditudan eliza biek, Gizaburuagak eta Amorotok, oraintxe ikusiko banindute?

– Nahiago baduk, konponbidea ez duk zaila. Hotel hau erdi hutsik zegok. Beste gela bat eskatzea baino ez zegok.

– Ez, Dora! –diot hatzak kizkian irekiz–. Une hau hainbestean eta hainbestetan idealizatu dinat ezen ahalegin suprahumanoa eskatzen baitit sentitzeko errealitatea ez dela idealizazio haien luzapen bat. Ezin dinat koldarkeria hori egin.

Eskuetatik heldu eta burua makurtu dut. Dorak nire eskuak luzarazi ditu, eta orduan beste sentsazio bat berritu zait: nire esku trokoloen lotsa. Goyatar eskuak, davincitar eskuetan. Minutu baten buruan (denbora neurtzeko gauza banintz lez!), bi begiradek bat egin dute, eta Dorak dio:

– Musu baten unea izan daitekek.

– Dora! Hainbeste gabe ere, ni pozik nagon hirekin.

– Nahi baduk, itxi begiak.

– Begiak nola itxiko ditinat, ba?

– Orduan, egon isilik.

– Dora...

– Shhh!

Gau honen akats bakarra: laburregia izango. Bigarren akatsa, larriagoa: errepika gabea. Dora ohe gainean erdi luze hauteman dut, eseritik etzanera bitartean, oinuts, hankak berna erdiraino bistan, eta burua burko doblatuaren gainean oheburuaren kontra, eskuinerantz pausatua, moko luzean

jaisten den eskoteak kanaltxoak bakarrik erakusten duela. Bularrek ere hortxe egon behar diate, pentsatzen dut. Ohe gainean alboz etzan naiz, berarekin aurrez.

- Emaidak orduan musu lasai bat.
- Utziko al didan bularrak ukitzen?

Erantzunak oinetaraino zirraratu nau, hitzik jaulki gabe, kamisoia alde bietara ireki baita.

«Ecce mulier!» esklamatu dut neurekiko, kostatako erreakziotik bueltan. Barka, Gresbante, Douffet, Massys, Corinth, Caravaggio, Mantegna, Morales, Tintoretto, Luini, eta Ecce homo ospetsua emetasunez biguntzen ahalegindu zineten artista sentikor guztiok, baina zer egin behar dut agerpen honen aurrean? Ama Birjina horrelaxe irudikatzen nuela deklaratu? Ba, bai!

– Ama Birjina horrelakoxea irudikatzen ninan, baina ez dun hi apaltzeko, hura jasotzeko baizik.

– Konparazioak ez naik molestatzeko, distraitzen ez gaituen bitartean.

Berak gidatzen du nire eskua bularretik bularrera (bestearekin neure buruari eusten diot, alboz), gero sabelerantz, azkenean beherago, eskuen luzerak ematen duena, eta ahurrean nabari dudana labaintasuna ez dakit bere azalaren hezea den, ala neure emozioen izerdia.

– Orain, jarein hik eskuei eta utzi neuri, ea nola moldatzen naizen. Itxi begiak, nahi badun.

– Hori geroago. Neuk ere ikusi nahi haut.

– Dora! –ari naizela, ari naizela–. Uste dinat gogoratu baino gehiago egingo naizela honetaz.

– Ez al duk erantzi behar pijama teologiko hori?

– Ai, Dora! Azkenean, nire bizitza guztia hankaz goratzea lortu behar dun. Zer dun hau?

Poeta inozoak lerrake: «Zergatik amaitu behar dute honelako gauek?». Azkarregi egunsentitu zen, egia da, baina ez guztiz amaitu, niretzat behintzat. Derioko seminarioko soto-gauetan, Basakabiko gaua ia literalki berritzen zen nire itzarrian. Lotan, berriz, bariazio ugariz, eta tontoenez.

Banuen, zorionez, Basakabiko gauaren beste bertsio bat. Aurrekoa bertsio ideala izan da. Izatez, egiazko kondaira beste bat izan zen.

Iluntzean, Leitzako Basakabin, ia hotel guztia geuretzat aurkitu dugu. Udazken nahiko aurrera joanean, inguruko oihan handios eta epelak, lagunez bakarti, joarez ozen, gangarkeria eta extrabagantzia guztietara tiratzen digu. Afarian zehar, erdi jolas, erdi benaz, lotarako bikoteak, mistoak noski, nola osatu tentatzen hasi direnean, barreak eta karkarak ozen dabilta, xanpain aparrek dena xuritzen dutela.

– Abadetxo hau gehiegi bortxatzea ez bada –dio gizonetako batek.

– Ez, ez! –atera zait barruaren ez dakit nondik–. Ni ez naiz etorri talde baten harmonia apurtzera.

Niretzat, lau nesketako edozein litzateke zeru kondentsatu bat, baina batek, agian, bereziki erotuko ninduke. Eta bera egokitu!. Eta berak ere poza agertu du. Nire aldetik, ordea, ez baietzerako, ez ezetzerako ebatzirik ez ikusteak batzuei pentsarazi bide die kinka larriegian aurkitzen naizela, nire aurpegi beroegiak ere nabarmenduko duela beldur naizenez. Blokeo mentalak eman didan ideia dohatsu bakarra komunerantz zutitzea izan da, topa-keinuan birundatu dudana kopa-xanpaina husteko planta ganberroan.

Barra luze baten aurretik pasatzean, halako jantoki batek komun propioa izan behar duela pentsatu dut, beranduegi, baina poztu nau ikusteak banaizela pentsatzeko gauza. Pasaeran, bi bezero artzain itxurakok (alde honetan

denei hartzen diet artzain itxura) barran apur bat ok erturiko gorputzak alferrik biratu dituzte, buruak ez baitira mugitu. Biek berdin - berdin begirutzen didate, batak ezezagun bezala, besteak nire pentsakizunen jakitun bezala. Gabon esan diedanean, buruak irribarre eskertsuz biratu dira, «baita zeuri ere», gorputzak lehengo jarrerara itzuliz. Komunean ez naiz ausartu, kopa esku batean dela, bestearekin pixa egiten. Pixa egiten, edo ulertzen da. Komunak asko lasaitu nau, beti bezala, ekarritako zama-mota guztien onartzaile baita. Eta sentimenduen gordetzaile. Seguruenik, negar ere bertan egin izan dut gehien eta ondoen, seminarioan sartu nintzenetik

Jantokira itzuli naizenean, zazpikoteak kantu ozenean dihardu. Gizon ezkonduetako bat (taldeko zaharrena berau, nahiz oraindik gaztea), zutik, baina lagunenganantz okertuz, hegada hasten ala amaitzen ari den ez igartzeko moduan zabutzen da, zuzendari-planta konpletoak eginez, doi bat esageratuak. Atean sartu naizeneko, «Maite, maite» kanta hasi dute, neuri bereziki zuzendutzat ulertu dudana. «Maitetxo itsasoan dago, itsasontzi batean ... Maite, maite, zu nire bihotzean». Euskal Herri guztian kantatzen delako ere izan daiteke. Bi neskak, beso banatatik heldurik, erdi dantzan, erdi airean narabilte, mahaian eseri arte. Kantaldiak luze jarraitzen du, «Andereño bat ikusi nuen», «Boga-boga» eta abar.

Plana bikoteka gauzatzeko eragozpenik ez luketela badakidan gizonezkoek ere zeharo deskonektaturik dirudite. Nago ez ote duten, behingoagatik, «pacem in terris» erabaki, ez dakit apaiza errespetatzearren ala lagun bat gehiegi ez estutzearren. Izorratzen nau nire ordeaz erabaki zezaten, ez dudalako pentsatu nahi zenbat izorratuko nindukeen neuk erabaki izan beharrak. Noizbait, zutitzeko ordua dela iruditu zaionean, kantaldiaren «zuzendari» saiatuak dio:

—Neska-mutil lagunok! Gure arteko abadeak aldaretik sarritan agindu digunari jarraituz, «goazen Jaunaren bakean»,

argitzeko askorik falta ez zaion egun berriak zorion handiagoak ekarriko dituen itxaropenean.

Eztenkada ala kinadatzat hartu behar nuen zalantzan gelditu naizen amaiera, tonuan ere hanpatua, ez dut ez berretsi, ez zuzendu, baizik araberako irribarrez eta solemnitatez hots egin: «Gora zu, Jauna!». Bigarren solairuko logelen pasilloan, neskak nesketara eta prakadunak prakadunetara (oraindik ez zegoen neska «prakadunik») banantzen ikusi ditudanean, berun ezpata epel batek zeharkatu du nire gogoa. Igandea Iruñean igaro eta gauerako etxeratzea da plana. Ez dago bigarren aukerarik. Datorren asteazkenean, Derioko itxialdia.

Geroztik urteetara, pentsatzen dut, ziur nago, lehenik kontatu dudan kondaira desiatuak baino askoz bertsio ideal gehiago ematen dizkidala bigarren kondaira egiazkoak. Geroztik, Leitzako Basakabi hotel aspaldi abandonatutik pasatzen naizenean, pentsatzen dut: «Eraikin hori ez dago hutsik. Neu nago barruan».

BASAKABI II

Basakabiko abentura itxuraz hutsa hain ondo eta emankor gertatu zen ezen berriro Dorarekin aurkitzea (ia hirurogei urte) atzera-buelta totala izan baita. Pasarte hura orain era karnalagoan amaitzea erabakiko bagenu, niretzat orduko bera litzateke, bitarteko denbora guztiaren despit. Orduko adin, itxura eta gordintasunez. Agian indar fisikoz? Ez dut uste. Ez bailitzateke dakusdana, nekusana baizik: azal xuri-beltzarana, irribarre polibalentea, barre zaindua, karkara intermitentea, ezer nabarmentzen saiatu gabe islatzen zuen elegantzia globala. Bere debate-grina nerabea. Bera. Alde egiten zuenean, aurrez baino xarmantago egiten zitzaidan atzez, bazihoalako penagatik, duda gabe.

Eta ni, berriz... Orain ispiluan dakusdana: garbitu beharreko hortz-hagin batzuk; konpondu beharreko bizar bat; orraztua izateko obsesioa daukan ilaje mehatzu bat; ezpain pitzatudun aho bat; zinu esanahi gabeak egiten dakien aurpegi bat. Baina nola zuzeneko irudi aktual horien oroitzapenik oraindik ez dudan, ez diet jaramonik egiten. Beharbada, gehiago begiratuko nieke, aurpegi legenduna balitz, edo azido batek errea, edo boxeoan puztua. Ez dakit. Noizbait, neure burua hilda ikusteko gauza banaiz, nago orduantxe ere ez dudala ikusiko «nire begiekin etorri den heriotza», baizik hondartzan belaunikatu den mutikoa, mutil apaizgaia, gazte apaiza, kartzelako patioan atzera-aurrera dabilen presoa, Basakabiko ameslaria ... Heriotzaren akats nagusia da (suposatzen dut) bere bururik ezin ikustea. Ahal balu, horixe litzateke betirauna.

Dorarekin aurkitu izan naiz, ez maiz, baina batzuetan, gehienak Basakabitik urte gutxira. Geroztik ez dut ikusi, haren bizilekua asko urrundu baitzen niretik. Aldi haietan guztietan, pentsatu nuen, baina ez nintzen ausartu. Hirurogei

urte iragan behar izan dira elkar ikuste hau gertatzeko, biontzat guztiz ezusteko herri eta topatze batean.

- Dora! Nola zu hemendik?
- Zeu hemendik bezala.
- Hau agerpen kasuala bezain atsegina!
- Neuretzat ere beste hainbeste.

Horrelako agur-hitz efusibo batzuek korritzen zuten bitartean, pentsatzen ari nintzen «betikoa», baina erabakiarekin ezen oraingoan bai ausartuko nintzela, probableena iruditu baitzitzaidan gehiago ez gnuela elkar ikusiko.

– Aizu, Dora! –hasi naiz nerabe bat bezala–. Beti ibili da nire gogoan gertaera bat eta zuri galde-nahi bat, eta gaurtik ez da pasako, betiko pasa bailiteke. Gogoan al daukazu Leitzako Basakabiko...

– Ez daukazu esaldia amaitu beharrik –mozten dit–. Gogoan daukat, bai.

- Nik gogoan bakarrik ez. Sarritan gogoan!
- Neuk ere bai. Sarri-sarri, sarri-sarri, sarri-sarri...
- Ironia ez zaizu joan! Baina galdera, orain, zailagoa da. Gau hartan, bikotean logelaratzea erabaki izan balitz, zuk ...
- Esaldi hori ere neuk amaituko dut. Erabakia beteko genuen. Zortzi lagun ginen.

- Zure bikote-laguna neu izango nintzen.
- Badakit. Zeu zinen nire lotura nagusia taldearekin.
- Horrek esan nahi du ...
- Horrek esan nahi du, aukeran uztea izan balitz, zeu hautatu izango zintudala.
- Orduan abadea nintzen.
- Erreparo puntu batekin, xarma erantsi bat gehiago.
- Dora! Zinez diotsut nire hautua ere zeu izango zinela.

– Baina ez zen gertatu.

– Baina hemen gaude, eta besarka gaitezke. Nahi al duzu?

– Zelan ez, ba?

Besarkada hasieran xuabea estutzen joan da. Luze. Hirurogei urtekoa. Nire begiak itxi dira, inork agindu gabe. Dorarenak ere berdin egongo dira. Hogeita hiru urteko neska bat besarkatzen ari naiz. Hogeita sei urte dauzkat. Ikusten dut! Ikusten dut Basakabiko logela. Ikusten dut ohea. Ikusten dut bera, kamisoia zabal, ukondo baten gainera erdi-etzana, pose piktorikoan. Sentitzen dut lehen aldiko zirrara, zerbait durditua. Sentitzen dut bularrak ferekatzen utzi didan unea. Sentitzen dut! Ez dut denborarik galdu nahi pentsatzen. Eta orain pentsatzen dut bera ere gauza bertsuak sentitzen ariko dela. Besarkada noizbait amaitu behar zen, eta begiak zabalik, elkarri begiratu diogunean, Dorak esan du:

– Orduan gertatu behar zuen honek!

– Orduan gertatu balitz –nik erantzun–, oraingoa ez zen gertatuko.

– Beste zerbait gertatuko zen.

– Baina nik hirurogei urte daramatzat hau pentsatzen. Pentsa nolako pilaketa!

– Horrela ikusita, merezi izan du. Hau ez nuen itxaroten, eta gertatu da.

– Esanda dago guztia. Orain segi dezakegu guztia sentitzen.

– Guztiaren jakinean.

– Musu bat, Dora?

– Zelan ez, ba?

Zenbat gauza gertatzen diren, gauza bat gertatu ez zelako!

SOTANA BAT BEHI ARTEAN

Sotana uzteko presarik ez hartzeko arrazoi handi bat izan zen erakustea helburu nobleagoen lehian genbiltzala, eta ez jende batek maisea zezakeen hartarako: gona bat utzi beste gona mota batzuen bila jotzeko. Arrazoi horren paraleloan, sotanaren beste estimulu ugarietako bat zen ezen, norbera batere ahalegindu gabe, presentzia bat biziro nabarmentzen zela, batez ere jantzi horrekin asoziatutako tokietatik kanpora. Trenean edo autobusean, beti aurkitzen zen apaiz edo fraideren bat, aulkia berari utzi beharrekoa, edo bere aldamen librea okupatzeak erreparoa emango zuena. Halako kasuetan, asko lasaitzen ninduen norbait ezaguna eta konfiantzakoa gertatzeak, «eseri hemen!» gonbita onarturik, hutsune inguratzailea beteko zidana.

Alderantziz, biziki atsegingarri zen norbere presentziaren inpaktua aurretik garantizaturik ikustea, batez ere, hala gertatuko zela jakinik, norberak hautaturiko tokietan. Adibidez, Markinako ganadu-ferian. Han sartu nintzenean, behiak eta txahalak baino gehiago aztoratu zirela uste dut jabeen buruak. Abereen izu-erreakzioaren beldurrez ere bai batzuk, sotana ondotik pasatzean, kate-hotsak bizitzen baitziren.

– Ez dakit sotana-barrenak pasiatzeko zorurik txukunena aukeratu duen berorrek.

– Kolorean ez dago hainbesteko alderik –lasarazi nahi izan nituen.

– Kontuz! Hauek txiza ere parrastan egiten dakite, atzean Jainkoaren ordezkorik dagoen begiratu barik.

– Zaila da, izan ere, Jainkorik ez dagoen tokian txiza egitea –tentatu ninduen batek.

– Berari ez egitea ere bai orduan! –beste batek.

– Zer dio abade jaunak? –hurrengoak.

– Entzuteak balio duela –nik.

– Mmaaa! –murruntza egin zuen behin nabar errapehandi batek.

–Ho-ho-hori ere entzutekoa izan duk! –erantsi zuen totel batek, lehen hitzeko oztopoa gaindituz gero, dena ilaran jaurtitzeko artea zeukanak.

Solasak euren artean jarraitu zuen, abade bat entzule edukitzearen atsegin morbidoan.

– Dotrinan ibilia hori ere. «Maaa...tusalen» esan nahi zian.

– Nahi gehiago, esan baino.

– Dena batek esatea ez duk derrigorra –gizon plantoso batek—. Gurean, oiloak hasten dituk «zer, zer, zer, zeeer?», eta batzuetan «zer... diozu?» izaten duk, eta beste batzuetan «zer... nahi duzu?». Gauza garbirik inoiz ere ez, eta arrautza nork jan duen, gutxiago.

– Jauna! –tentatu ninduen gizon adintsu samar batek—. Uste dut gaur, hemendik, domekarako sermoia eginda eroan behar duela berorrek.

– Gizaburuagara edo Amorotora bazatozte –ihardetsi nik—, gustura kontatuko dut Matusalenen historia.

–O-o-oosoa ere ez kontatu, ze 969 urteen la-lalaburpena egin behar badu, «egun handira» arteko ma-ma-maletarekin joan beharko dugu.

– Hainbeste urtean bizi izatea hirugarren egunean piztea baino zailago ez al da? –oiloen aipatzaileak.

– Ba-ba-bai zera! –totelak—. Hil eta gero hilezko izatea erraza duk.

Ateraldiari ez nion aurrekoaren jarraipen logikorik ikusi, baina polita iruditu zitzaidan. Banindoan ferian aurrera ganadu-lerro estuen artetik, ezagunak agurtuz, ganaduak

gurtuz, ezezagun harritu samarrei bidea eskatuz, atzean marmarrak utziz, eta pentsatuz ezen, sotana bati osoki esleitzekoa zen eszena malevichtar hartan, mezako jantzita sartu izan banintz, bi baino gehiago belaunikatu izango zirela, euren arimen bila nentorrelakoan. Baserrietan eraikitzen hasiak ziren belar-siloen kirats agresiboa, arrain-ongarrien sulfurikoarekin baturik, elizetara ere iritsia zen. Zaila baitzen kirats hura gorputzetik kentzea, garaiko detergente guztiekin ere. Intsentsua gehitzearen efektu ustez leungarria laster ikusi zen gehiago larritzekoa zela. «Izan zaitezte eurotako bat gehiago» gomendio apokrifoa aldarrikatzera nindoan, hirugarren pasilloan neure herritarren multzo batekin topo egin nuenean.

– Hara! Hemen nire kristau maiteak! –hots egin nuen solemneki.

– Bai gero! Zelan gure abadea hemendik?

– Zeuen bila nenbilen beren beregi, feria guztian.

– Gure bila? Bekorotz batzera ez baita izango!

– Ez uste hori ere egin gabea naizenik, ez zitzaidan askorik gustatzen baina.

– Hauxe abade konpletoa etorri zaiguna!

– Jatorriz baserritarra, baina ez dakit jatorriak egiten duen ofizioa – diot, sotana goitik behera seinalatuz

– Jakin al liteke baserritar sotanadun batek ganadu-feria batean zer behar izan lezakeen?

– Ba, hara! Behitxo bat erosi nahi nuke, bakardadea erdibanatzeko.

– Gazte samarra nahiko du berorrek.

– Konforme naiz neu baino zaharrago ez izateaz.

– Hemen badaude horrelakoak, baina jaten dakitenak guztiak.

– Abade bat gobernatzen duen herriak –tentatu nuen ingurua– behi eta guzti ere goberna dezakeela pentsatu dut.

– Ondo pentsatua, jauna! –hots egin zuen oratore plantako gizon handi eta ahots sendodun batek–. Hala ere, hemendik berorrentzako behi bat eroan dezagun nahi badu, gora begira egoten dakiena aukeratu, handik datorrela diote eurok eta. Ea arraza horixe zabaltzen zaigun herrian.

Feria lekutik kanporatutakoan, neu ere irabazle edo airoso sentitzen nintzen, bai bainekien Markina inguruetan nobedadea zabalduko zela ezen abade «txorimalo» bat ibili zela ganadu artean, predikatuz: «Utzi abereei nigana hurbiltzen». Hori ez dakit inork esan izango zuen, baina aholku ebanjeliko on bat iruditu zitzaidan.

GATZATU - JAN BAT

Goizean, ordu izendatuan, nesken barbaroa dantzut abadetxe aurrean, eta mutilen eupadak eta ugiak. Sorgin-ikusi bat ere egin dut atearen behatxulotik. Denak elkartu arte ez dut irten nahi, gero, etorri ahala, hainbeste «ene!» eta «jesus!» banan-banan ez entzutearren. «Irten egin behar duk!» –diotsot neure buruari, baina erabakia atzeratzen. Batetik, denbora astiro doa, taupadak banan-banan entzuten baititut; bestetik azkar, taupadok azeleratzen baitoaz.

«Hauxe duk, ba, unea, inoiz ez zela helduko etsita bizi izan hintzena!». Unearen intentsitatea zenbat osagai ezberdinek, gurutzatuk, kontrajarririk, atabikok, immediatok egituratzen duten sentitu nahian dihardut, baina intentsitateak berak ez dit uzten analisiak eskatzen dituen banaketak egiten. Kanpora irtendakoan, badakit ez dudala izango modurik sentitzen ari naizena bereizteko eta, beraz, bizikiago gozatzeko. Badirudi garunak une dohatsu edo dohakabeen osotasuna euren antelazioan edo oroitzapenean gauzatzeko aurreikuspena izan duela, horrela une bikain gutxi batzuek bizitza oso bat edertu ahal dezaten. Lastima, proportzioz, une madarikatu bakar bat nahikoa izatea, bizitza oso bat hondatzeko. Ez dakit neure kabuz irteterik erabaki izango nukeen, ate joka hasi ez balira:

– Don Jabier! Zer esperantza dago, ba?

– Banator!! (Irten egin behar da! –diotsot neure golkoari). Egun on guztioi! –diot kanpoan, neure burua erreberentzian entregatuz—. Ecce homo!

– Zer da hori? –batek.

– Zuen abade berria –nik.

– Berria ala beste bat?

– Hori zeuek erabaki beharko.

– Lehengoarekin konforme baginen, berau ere ez da txarra –dio mutil batek.

– Txarraaaa? –beste mutil batek, enfasi nabarmenez.
– Gu baino guriago zegok hau!

Ateraldi probidentziala, nobedadearen tentsioa barre-
algara kolektiboan apurtu baita, bat-batean olatua haitzean
bezala. Oraingoan, neu nago olatu barruan, entzuten dudala:

– Geure modukoa! Abadeak aingirak dituk ala?

– Orain horrengana joan behar al dugu konfesatzera?

– Egin barre, egin barre! –pentsatzen dut neurekiko,
erakusketako irribarrez.

– Eta orain –ausartzen da lehen neska–, gehiago ez al
dugu berori sotanaz ikusiko?

– Ezetz dirudi –darantzut erdi ahopean.

– Pena da, alde batetik.

– Nahi baduzue, berriro jantziko dut. Oraintxe gaude
garaiz.

– Ez, ez! Baina noiz edo noiz... –neskak–. Irudia
gordetzeko beste!

– Sotana ez da ken-ipiniko prenda bat –diot–, txaleko
antibalak lez.

– Ene! –hots egiten du albotik pasatzen gertatu den
emakume batek, taldeko hiru neska-mutilen amak–. Gure
abadea prakekin?

– Ama! –alto ematen dio alabak, zerbait gordinagoa
jaurtiko duen beldurrez.

– Zer nahi zenuen? –galdetzen diot etsipen gisan–.
Praka barik irtetea?

– Jesus! –emakumeak–. Goazen martxan, horixe ikustea
ere igual egokituko zaigu.

– Eta zer? –dio Sastripo kanpai-joleak–. Ez al dugu Jesukristo ia biluzik ikusten gurutzean? Abadeok zer dira, ba, hura baino gehiago?

– Gutxiago! –berresten dut–. Gu gurutzeratzen bagaituzte, gerri bueltako zapirik ez dagokigu.

– Azkenean hemen –Sastripok berriro–, zaharrak bueltan, aurrera gindoazelakoan.

– Konsumatum est. Amaitu da nobedadea! –aldarrikatzen dut, meza amaierako tonu aproposkoan–. Abiatuko al gara Urrusolarantz?

Sotana uzten nuen lehen eguna zen. Saiatzen nintzen ahalik naturalen jokatzeko, baina naturaltasun saiatua zaila da. Ezin nuen ekidin ihes egiterik begiraden gurutzaketari, zeintzuek hitzek baino askoz gehiago eragiten baitzidaten. Behetik gorantz, zorutik aurpegiraino, astiro-astiro begiratzen zidanari kasik erruki hartzen nion, neuk sarritan sentitutako zalantza, lotsa, beldurra sumatzen bainuen berarengan. Begirada horrek aireratu egiten ninduela ematen zidan. Begietatik zuzen hasirik, goitik beherantz, oin puntetaraino zihoan eskanerrak, osterak, ehorte sentsazioak eragiten zidan. Geldian inebitableak ziren begirada haietaz ohartzetik abioak libratzen ninduen, eta bagindoazen. Elizaldea galdu genuen bistatik, mendian gora igo ahala, berriro bistartzeko.

Helburua Urrusola baserria zen, Gizaburuagako etxerik urrunena, Nabarniz mendiaren magalean. Gizaburuagako gazteriak, neska eta mutil, ohitura zuten udaberrian gatzatutako bat egitea mendi-baserri hartan. Ardi-gisatua eta gainetik gatzatua, handitu arte. Bazkal ondoren, hango jaia amaiturik, Urrusolatik Nabarnizera, hemendik Aulestira jaitsi eta buelta Gizaburuagara, herri bakoitzean geldialdiak eta erromeria txikiak eginez. Ia bi urte neramatzala sotanarekin, pentsatu

nuen egun huraxe izango zela egokia mundura «prakadun» agertzeko.

Haiekin harreman etengabea neukan Gizaburuagako neska-mutilentzat nobedadea izan bazen, pentsa beste lekuetako jendearentzat, inguruan izen ezaguna bainintzen. Askok bertsotan ere ikusia ninduten sotana eta guzti. Urrusolako baserria Gizaburuaga izan arren, joera handiagoa zeukaten Nabarnizera. Etxeko jauna zen bakarra, Gizaburuagako elizara maiz etortzen zena. Urrusolako etxekoandreak eta alabak bazekiten Gizaburuagan bazela abade gazte bat, entzutetsu samarra, baina ez ninduten ezagutzen. Gizaburuagako gazteek bazekiten abade «prakadunaren» nobedadeak egoera bitxiak sortuko zituela, lekuan-lekuan.

Urrusolara heldu ginenean, atarte zabal batean eupadak eta harrera. Etxekoandrea hasi zen ezagunak agurtzen eta unean gogoratzen ez zituen batzuen jatorriak identifikatzen. Zu Eresakoa, ezta? Zu Bengolako ... Zu Okamikako ... Zu Goikoetxeko ... Zu Laizko ... Halako batean dio nigatik:

– Honixe ez diot hartzen inongo antzik.

Gizaburuagako gazteek barre-algaran askatu ziren, une horrexen zain baitzeuden. Bata eta bestea, mutilak batez ere, hasi ziren zirika:

– Hau ez duzula ezagutzen?

– Gizaburuaga aldera gutxitan jaisten zara ta!

– Ez dakit, ba –andreak–. Ezagutu behar al nuke?

– Behar, behar ez, baina komeni bai.

– Gizaburuagako abadea ez al duzu ezagutzen?

– Ba, egia esan, oraintxe-oraintxe, ez dakit. Entzunda daukat azken aldion abade entzun samar bat dabilela hortik, baina ez zait ikusterik egokitu.

– Baten bati ez al diozu hemen eliza usainik hartzen?
–sartzen naiz solasean, gazteen barre artean.

– Zeuri, beharbada? Ze besteak ezagutu ditut.

Gazteei irten zitzaien atartea beteko barretik, Urrusolako andreak susmatu zuen zerbait arraroa, eta eraso zuen:

– Nik asmatzea baino errazago ez al da zeuek esatea?

– Ba, begira! –diotsot–. Usainik bai edo antzik ez, neu naiz zure abadea.

– Jesus, Maria eta Joserren bakea! –Urrusolako andreak–. Sotana bako abadea?

Hortik aurrera, azalpen batzuk eta barre ugari, harmonia airosoan joan zen Urrusolako gatzatu-jana. Gazte artean bestelakorik ezinezko den moduan, egun alaia eta sorpresiboa izan zen alde guztietatik, abade «prakadunaren» nobedadeak, usterik gutxienean, deskojono berriak sortzen baitzituen bazterretan. Urrusolatik Nabarnizerantz, Goierriko baserri baten ondotik pasatzean bezala. Zenbat Goierri ote daude munduan? Berbaroa entzunik, bidera irten zen etxeko gizona, Gizaburuaga ondo ezagutzen ei zuena. «Hemen gatoz Gizaburuaga osoa» entzutean, gailenki zuzendu zuen:

– Gizaburutarra... denak ez hor! Betaurreko ilundun hori ez, behintzat.

– Hau geure abadea dugu.

– Zergatik ez gotzaina? –gizonak burlaize gangarrean.

– Edo Aita Santua! –gure arteko mutil batek.

– Horrek gehiago koadratzen dik –gizonak, arrazoikor–. Fedea martxan ipintzekotan, hobe duk handiak sinestea.

– Zertarako, ikusten duzuna sinetsi ezin baduzu?

– Ikusi zer? –gizonak, apur bat noraezean.

– Aurrean daukazuna. Geure abadea! –gure arteko neska batek.

– Gizaburuagako abadea al haiz hi? –begiratzten dit, akusatuz bezala.

– Zu, inoiz, nirekin konfesatuta zaude.

– Dedio! Banengoan, ba, esku guri horiek zerbaitetik ezagutzen nituela! Gure andreak hau ikusiko balu! Benita! Ea gizon hau ezagutzen donan!

– Gizonak «Gizaburubagako» herrian? –hots egiten du andreak atarira irtetea, Gizaburuaga izenaren jatorri burlosoari barrez.

– Beno, gizona edo... elizgizona! –zehazten mutil batek, niganantz seinalatuz.

–Fabiolaren keridoa izateko itxura hobe zeukak horrek! –andreak zorrotz.

– Ez zaude zeu gutxi jakinean goiera honetan! –jaurtitzen diot neuk ere.

– Semeak Afrikatik irratia zoztor bat ekarri zuenetik, printzesak eta bailarinak ugariago zebiltzak hemen ere oilasko gizenak baino.

– Azkonarra uxatzeko ona ei da irratia muna bazterrean –jakinarazten diot.

– Eta auzoak erakarri, irratia debalde entzutera? Ez, ez, ez! Eros dezala bakoitzak berea, edo bidal dezala mutilen bat Afrikara.

– Kontatu horri guztia beldur gabe! –animatzen du senarrak—. Neu ere, inoiz, berorrekin konfesatuta nagoela zion.

– Ez zegok zail zerua, horrek barkatutako bekatuekin zabaltzekoa bada.

– Benetan abadea naizela gerta baledi –sartzen naiz jokoan–, etorriko al zinateke nire konfesatokira?

- Nik ez diat bekaturako astirik.
- Hartu zuk astia bekatu on batzuk egiteko, eta neuk barkatuko dizkizut guztiak.
- Bekatuak barkatzeko baino egiteko itxura hobe daukak hik.
- Egia da, ba, Benita! –esan zion mutil batek, izen eta guzti–. Hauxe da gure oraingo abadea.
- Ai, ai, ai! –hasperen egin zuen andreak. Eta tarte bat nigana zuzen begira eginik, esan zuen:
- Banengoen, ba, ni ez zela berori santu-santua, betaurreko ilunak eta esku guri finak.

Gizaburuagako neska-mutilek, gero eta gerora ere maiz gogoratuko zutenek, sekulako barre-asea izan zuten emakume haren gordin puntuarekin. Eguna aire horretan joan zen Nabarnizko elizaldean ere, gero Aulestin eta, azkenik, berriz Gizaburuagan, gazteen gozamenerako eta nire oroimena betiko markatzeko. Baldin gazteek, oraindik zuka-ra jaisten ausartzeke, berorika egiten zidatena edozein bazterretan hika hartzen zutela entzutea motibo esplosiboa bazen, pentsa zer izango zen zorroztasun gordinerantz lerratzen ziren gizon eta andreekin. Zenbat eragin dezakeen soineko solemne batek, jantzitik erantzira edo alderantziz!

Gauean, abadetxeko sukalde zaharreko erloju neu baino altuagoaren aurrean, zurrumbilo guztia oraindik belarrietan, oroitzapenen bakardadean gelditu nintzenean, ez nengoen ziur helburua betea izan zen, ala bete gabe gelditu zen, ala beteezintzat hartu behar nuen. Kontua da ezuste paradoxikoa inondik ere aurreikusi izango ez nukeen aldetik etorri zela: herritarrei nire itxura berrira egokitzea askoz gutxiago kostatu zitzaien neuri baino. Areago oraindik, esango nuke ia iraingarri egin zitzaidala jendeak hain azkar asimilatzea itxura berria, hortzore-alda soil bat izan balitz

bezala. Uneka, larritzen ere hasia nintzen, sotana-mina sentitzen nuela ikustean.

Bakardadea bera, sotanapean natural egin zitzaidana, arraro iruditzen hasi zitzaidan. Ispiluek errezeloz begiratzen zidaten, muzinti ere bai sarritan. Ez nuen irudi haietan neure transfondorik hautematen. Figura moldagarri, orrazgarri, jantzigarri, biluzgarri, esperimentagarri bat nekusan, pertsona bat baino areago. Hamabost urtean zeharreko identitate figuratibo bat ezin zen ordu batetik bestera liberatu. Goizean, herriko gazteen aurrera lehen aldiz sotana gabe agertu nintzenean, larrua utzi berri duen sugeaz oroitu nintzen. Ez dakit sugeek une delikatu hori nola bizi duten, baina horixe pentsatu nuen. Uste dut sugeek laster ahazten dutela larru zaharra. Niri kostatu zitzaidan sotana zaharra ahanzte, penazko aldikadak ere izateraino. Pertsona errealagoa nintzen, baina autoritatean apalagoa.

MARKINAKO MOJETAN

Moja ondo uniformatu batek, koroï formako kofia eta guzti, zeinaren irribarreak ez baitakit mojakotik ala apaizei eskaintzera behartutik daukan gehiago, gela karratu txiki baina nabarmenki altuan utzi nau. Honek zerura kasik nahitaez begirarazten dizu, zerua goian delakoak egia izaten badarrai. Nire eliztar ikasleak berehala etorriko direla, hots, ekarriko dituztela esanez aldendu dira mojak, adeitsu. Ez dira hain berehala agertuko. Neure seminarioko etorrerak berritzen dihardut, pabilioi erraldoi baten auskalo zein mutur eta zenbatgarren solairutik abiatzen nintzenean. «*Présentese en la puerta principal*» agindua jasota, beti arnasestuan eta sarritan hautseztaturik iristen nintzen, zer edo nor izango ote zen larritasunez. Hamabost-hamasei urtera arte, seminarioan iristen zitzaidan dei oro ezin nuen suposatu zerbait beldurgarria izango ez zenik.

Oraingoan, hor aurkezten zaizkit, noizbait, hamaseina urteko bi neskabila irrikatsu, irribarretsu, nonbait iragarri baitzaie «*des espera su párroco*». Agur-hitz nire aldetik txeratsu eta eurenetik urdurietan, harriturik nago nire presentziak horren aztoramen espektantea sortzeaz. Ahots tonua golkoraino jaitsi dute buruarekin batera, nondik begiradak, kameleoiaren miztoa bezala, azpitik zeharka disparatzen baitira, begiak puntan dituztela. Bat eledun nagusi dela, bestea lantzean eranskin indargarri batera mugatzen da.

- Don Jabier! Ezin dugu gehiago aguantatu hemen!
- Jesus! Mehatxua dirudi horrek! –diot susto plantan.
- Mehatxua baino gehiago.
- Horrenbesteko desesperazioan al zaudete?
- Berorrek ez daki hau zer den!

- Infernua?
- Txarragoa!
- Probatu al duzue bera, konparazioak egin ahal izateko?
- Hemen ez dago «Polentiño»-rik –bigarren neskak–, ez deabruz beteriko pipontzi alairik, berorrek kontatzen zigunez.
- Egidazue zuka, mesedez.
- Mojaren batek entzun eta asteburuan etxera barik zigortu gaitzan? –lehen neskak.
- Ba al da moja euskaldunik hemen? –nik.
- Ez dakigu, baina edonor da kapaz txibatazoa sartzeko –bigarren neskak.
- «¡Madre! La compañera Antxiñe trata de tú a su párroco».
- Hemen egia da hormek belarriak dauzkatena – bigarren neskak.
- Salaketa ekarpen amoroso bat zela esaten ziguten seminarioan ere –nik.
- Amoroso? Baleki berorrek! –lehen neskak.
- Tira, egidazue zuka, mesedez. Ezer gerta baledi, neu egongo naiz mojekin, edo etorriko naiz hondeagailu batekin, horma belarridunok eraistera.
- Bai helduko bagina zergatik zigortu gaituzten jakitera!
- Baina, neskatoak! –hots egiten nik–. Hori ezinezkoa da. Zelan zigortuko zaituztete, zergatik esan barik?
- Hemen edozer da posible, jauna –bigarren neskak.
- Atera begaitza berorrek, edo ihes egingo dugu –lehen neskak.
- Zorakeriarik ez egin niri, e! –agiraka egiten diet.
- Ba, atera gu hemendik! –neska biek batera.

– Ez dakit zelan, bahitzaile bihurtu ezik, zuekin tentagarria litzateke baina. Barre?

– Negar ere egiten dugu, ez gutxi –bigarren neskak.

– Zer nahi duzue nik egitea? Nik ez daukat zuengan aginpiderik.

– Aurkituko du moduren bat. Berori argia dela diote –bigarren neskak.

– Gure gurasoekin berba egingo balu –lehen neskak–, ziur haiek berorri jaramon egingo lioketela.

– Eta egunero joan-etorrian ibili? –nik–. Hori badakizue oso zaila dela.

– Mutilak etortzen dira, ba, Lanbide Eskolara! –lehen neskak.

– Ai, neskatxoak! Bekaitz al zarete mutil jaiotzearen akatsa leuntzeko uzten zaizkien abantailez?

– Beste kontutxo bat ere badaukagu –lehen neskak–. Entregatuko al lioke berorrek gutun hau Lanbide Eskolako bati?

– Gutuna edo... –bigarren neskak.

– Ez daukazue zehaztu beharrik. Kosme Baglieto... Kosme, Kosme... Hau ez da nire ikaslea, baina konponduko naiz.

– Eskura eman, e! –lehen neskak–. Ahal bada, bakarrean.

Parke bazterreko urki zartatu bati lotuta zeukan Guzzi motorra arrankatu ezinean harrapatu dut gutunaren hartzailea.

– Ez al dik nahi? –galdetzen diot.

– Nahi beharko du, lehenengoan ez bada azkenengoan.

– Horiek adinarekin temoso jartzen dituk –nik.

– Erreta ere bai, baina tiratu beharko du, suak hartu arte. Gure aitak opari honexekin izorratu ninduen, nik Sanglas berria nahi nuen baina.

– Hara! Azkenean ere! –nik, arrankea entzutean.

– Beti azkenean, tarratero honek!

– Hi Kosme haiz, eztuk?

– Kosme Baglieto.

– Kosme askorik ez diat ezagutzen, eta Baglietorik gutxiago.

– Ba, biak batera, atera kontua! –mutilak.

– Zorteko hago. Hauxe eman zidatek hiretzat.

Gutun-azal eskuratuari begiratu dionean, matrailak Guzziaren depositua bezala gorritu zaizkio. Gutun-azalari buelta eman dio, baina bidaltzailearen izenik ez du aurkitu. Horrek lasaitu egin duela dirudi. Behin gutun-azalari, behin niri begiratzuz, erabaki bat hartu ezinik dirudi, neuk lagundu arte.

– Bakarrean zabaltzekoa dela uste diat.

– A! Eskerrik asko!

– Neu nauk eskertzen duena hain bitartekotza politak egin ahal izatea. Erantzun nahi izanez gero, fida hinteke bideak berdin balio duela bueltarako ere.

– Eskerrik asko! Eskerrik asko!

Eskertzearen errepikak hunkitu ninduen, interpretazio asko abiatu baitzitzaizkidan, denak samurrak, baina berehala baztertu nuen kasuko protagonista neu bihurtzeko tentazioa. Kasukoa, ezen ez egoerakoa, laster hartu beharko bainuen protagonismo uste gabea, apaizengan ofizio atipiko batean: amodioaren postari. Zehazki esanda: lehen amodioen postari klandestino. Izenburu zoragarria nobela baterako, edukiz betetzen jakinez gero. Papertxo haien eraman-ekarriak azken oleazioek baino emozio handiagoa eragitearen kezkarik ez

izatera errazago egokitu nintzen beti inoren bekatu gozoak barkatzen jardutera baino. Mezu-idazleek hain desio sinestezinak bidaltzen zituzten, imposibleak ere bai (suposatzen dut, ez bainuen edukiak irakurtzeko bezain ustela eta baldarra izan nahi) ezen batzuetan iruditzen zitzaidan mezuak euren kabuz zebiltzala joan-etorrian, jabeak ere aldatuz bidean, nire golkoa edo sakelak aztoratzeaz beste grina gabe. «Martxa honetan, kasik praktikoago izango dut eskolatik komentura tunel bat egitea». Esan banuen, esan nuen! Neskei zoragarri iruditu zitzairen, eta mutilek, balentria loriosetarako beti gertu, lanean hasi nahi zuten.

– Erraz-erraz! Kalea eta ibaia azpitik pasatzea besterik ez legoke.

– Jauregi baten jardina ere bazegok bitartean –objektatzen nik.

– Horiek ez dute ezer igarriko, txakur pare mutur-motz batek gau osoan zaunkaka ekiten dio eta.

Gauza bat ez zitzaidala gehiegi gustatzen gaineratu nien, hots, ez nuela dudarik plana arrakastatsu burutuko zela, baina gero, lurpeko «harreman» inprebisibleen berotasunean, denborak deskubrituak izatea ekarriko zuela, eta orduan Infragantzio txakilen batek kantatuko zuela erlijioko irakaslearen ideia izan zela. Hasi hadi gero atzera zuloa betetzen! Handik urteetara, kartzelako tunelgintzan izango genuen esperientzia aurreratzerik ez neukanez gero, jakinarazi nien, lehenago ere, zenbait lekutan, zerbaitegatik egiten zirela fraideen eta mojen komentuak bata bestetik hur, tunel ezkutuen bitartez elkarrekin komunikatzeko. Baldin, Ziortzako monasterioan bezala, agintaritza zibilaren aldetik lortzen ez bazuten lizentzia ezen: «Beuka bakoitzak bere ohaidea, auzoen bake eta segurantzarako». Argudio mediebal horrek zaputza bezalakoa ekarri zuen tunelaren ideia ez ote

zen hain originala. Lasaitu nintzen Kosme Baglietok erabaki zuenean:

– Lehenengoak ez izatekotan, ez du merezi lorrinean hasterik.

Mojen ikastetxeko nire neskatila «desesperatuei» desesperatzen jarraitzeaz beste irtenbiderik ezin izan nien aurkitu.

HELENAREN HIRU AGERPENAK

Sinonimo seminariotarrak: apaldu, makurtu, birbaitaratu, hilduratu, gurutziltzatu, ezereztu, haustu, hustu, biluztu (et! hori ez!), gogo-biluztu (A!), trabestitu (Tra... zer?), trabestu (A!). Gehi sinonimo kartzelario guztiak. Nire lehen oporretako uda zen, eta seminarioaz baino gehiago pentsatzen nuen, urtebete lehenago, muna hartantxe eserita egoten zen neskatoaz. Helena. Ni baino urtebete gazteagoa. Zornotzan bizi zen eta maiz etortzen zen gure auzoko izeba baten baserrira, eta handik gurera, inguruan ia bakarra zen etxera. Harik eta seminaria bidali ninduten arte. «Bakarrik apaiz, beti apaiz, denean apaiz». Horretara joan banintzen, beste guztia amaitua zen.

Lehen agerpena. Seminariotik bueltako lehen uda-oporrak. Hamabi urte nituen. Arratsalde batez, behizain ari nintzela, Helena agertu zen. Hamaika urte. Neuk batere itxaron gabe etorri zen, eta batere mentalizatu gabe harrapatu ninduen. Ia alferrik, beraz. Denbora bat gure etxean eginda, berriz etorriko zela esanda joan zen. «Nigatik izan ote da?». Ez zen guztia alferrik izan, nire burua abiada beroan jarri baitzen. Baina ez zen etorri, eta bai iritsi zen seminaria itzultzeko eguna. «Tokatzen dena», pentsatu nuen. «Bai tontoa ni!». Hori ere pentsatu nuen, baina askorik estutu gabe. Tonto deitua izatea mingarriago zitzaidan izatea bera baino, neuk bakarrik jakina izanez gero. Nire orduko itxaropenek beso luzeak zeuzkaten, eta iruditu nuen etorriko zela hurrengo urtea ere, non beste agerpen batek nire uda bakartia transfiguratu ahalko baitzuen.

Egia esan, ez nuen sentitzen berriz agertuko zen itxaropenik. Neskekin tratatzea debekatua genuen. Oporretarako instrukzio batek zioen: «Kontuz arreben lagunekin». Helenari ere esan izango zioten ez hurreratzeko

apaizgaiengana. «Zergatik?» galdetu bazuen, «hargatik» erantzun izango zioten. «Zer da huraxe?», eta «huraxe dun huraxe eta esana dun esana! Gainera, apaizgaien gerizak zorte txarra ekar lezaken». Beharbada, era astoagoan esan izango zioten: «Horiek, seminaria sarreran, irenduak izaten ditun. Ez al dun ikusi Torreburuko mutikoak nolako kandela-aurpegia ekarri duen?».

Seguruenik, Helenak ez zuen ezer galdetuko, eta ez zioten ezer abertituko, portaera sozialen arauak, harreman mistoen moralitatera hurbiltzen zirenean, era mutuan transmititzen baitziren, inork azalduak edo aldarrikatuak izateko premia gabe. Izurri inbisible horiek bezala, hain menperatzaile isil eta bizkorrak ezen gauez eta lotan atzeman gaituztela baitirudi.

Nago nire amodio potentzialek, egiazko bezain apasionatuek, zaintzen aritu nintzen behientzat balio zutela gehien. Nire balizko zoriona, izate atmosferikotik inoiz lurreratzen ez zena, oso era materialean baliatzen zuten haiek, nahi zuten lekura eskapatzeko. Eguneroko larrealdiak aldatuz joan behar ziren, baina nik beti etxe azpira mugatu nahi izaten nituen.

«Gaur ere etxe azpira behiak?», haserretuko zen ama, baina nire amodio potentzialak alde hartatixe etorri behar zuen, baldin bazetorren. Eskerrak gure amak ez zuen iruditzen horrelako ezer bere seme apaizgaiarengan. Zerbait susmaturik ere, nire asmakeria amorosoez baino gehiago arduratuko zen behiek artatzen egin zitzaketen kalteez. Mendi hartan, amodioak ez zuen balio artoak adina.

Bigarren agerpena. Bigarren urteko uda-oporrak. Nik hamahiru urte. Helenak bat gutxiago. Arratsalde batez, etxe azpiko sagastitik basora bitarteko sorondoan behizain nengoen, behin sagar-adarretan abildadeak probatuz, behin behe urruneko Zornotzara begira fantasiatuz. Bat-batean,

barreneko pinudi ertzetik, ostertz inpenetrabletik ezinezko iruditze moduan, agerpen miragarri bat bistaratu zen. Tximeleta ikusgarria, tamainak hegatzeara eragozten ziona, baina koloreek airean zekartena. Oraintxe ere, oroimenaren eliminazio gupidagabetik iraule, koloreak nabarmentzen zaizkit pinu-masa trinkoki ilunaren kontra, hori-zuri-gorrien artean banatzen zirenak. Itzaletik eguzkitara iristean, giza-figura batean taxutu ziren. Helena zen. «Ama Birjina inoiz ez duk behetik gorantz agertu!». Pinudia eta artasorua banatzen zituen munan gora, haren etorrera astirotu gura nuen, pentsatuz hurreko ikuspen direktoa gozatzeko baino urduriago egongo nintzela. Bizkorregi gertatu zen etorrera, eta oraintxe ohartzen naiz zergatik. Hain neukan barneratua nire ofizioari zegokion porrot inebitablea ezen ezin izan bainuen moldatu era bat, hiru-lau minutuko aurre-lilura hura eternitate bihur zedin. Eta hura zauskada, eternitatea neure ondoan eseri zenean!

Sagastiaren angelu baten erpinean geunden. Bekaturik eta aurkikunderik ospetsuenak eragiteko gauza diren sagarrek urrunera bidaltzen zuten usaina. «Behiak artotzan dauzkak», esan zuen Helenak. Ez kosta gabe, baina afantsu eta kezkaz itzuli nituen bazkaleku segurura. Itxituraz kanpoko basora. «Ea zer topatzen duzuen hor, oportunista alaenok!». Soluzioak aurreikusi gabeko ondorio dohatsua ekarri zuen, pinudian une bat geldi ezin egiteko ernegua hartu zuten animaliei atzetik jarraitu beharrak bisitaria ere neurekin baitzekarren, basoan geroz barrurago. Saiatzen nintzen behiei urrunegi joaten ez uzten, neskari ez zekion erreparoren bat sor, «banoa etxera» edo «banoa zuen amarengana». Batzuetan txakurra harrapatzeko plantak egiten nituen, oilarkeria eutsiezinak pizten zidan exhibizio grinaz. Eta neure koloreen gorritzea disimulatzeke. Nire

golkoan zebilen erreboluzioa une batez harentzat gardena izan zitekeela pentsatzeak desarmatzen ninduen.

Helenaren geriza pinupeko beste gerizen gainetik pasatzen ikustea berari zuzen begiratzea baino kilikagarriago zen, gerizari hutsik gabe segitzen zion gorputzaren leialtasuna neuganantz ulertzeko seinaleztat hartzen bainuen. Nire gerizak behiei jarraitzen zien, nik neure gerizari, Helenaren gerizak nireari, eta Helenak bere gerizari, edo nireari, edo neuri. Hura nirekin zebilen denbora etorkizuneko eternitate bat zen, oroimenak nahikara luzatuko zuena. Eta neuk nahi baino lehenago, «behiak etxera eroan behar ditut» esan nion, edozein unetan berak «banoa» esan zezan beldurretik libratzeko.

Gero gurean egin zuen denbora neugatik luzatu zela pentsatu nuen. Eta zorionez, azkenean, arrazoi kontundente batek erabaki zuen erromantzearen abiapuntutzat ez jotzeko motibo garbirik ez zegoen bisitaren amaia. «Etxera joan behar dut, gautu baino lehen». Neuk laguntzea ere eskaini izango niokeen, plan lar amestiarri ezezko bat hartzeko arriskua ikusi ez banio. «Hurrengoan ere etorri honelaxe» esanez agurtu amak, nire desioa transmititzen ari bailitzan. Uda guztian ez zen gehiago agertu, baina nire gogoan oso-osorik gelditu zen posibilitate maiteminkor bat, zeinaren izatea, intimitate librean, mugagabeki edertuz joango baitzen seminarioan, batez ere, neure kondaira fantastikoki handitua kontatu nionean begi-bero eta sinets-gogoz entzungo zuen ikaskide erromantiko bati. Kontatu eta kontatzen, behin eta berriz entzun nahi izaten baitzuen. Seguruenik, ez nion beti berdin kontatuko. «Zergatik ez duzu kontatzen esperientzia hori ikaskide guztien taldean?», esan zidan behin. Ezetz esan nion, pentsatu bainuen haren intentsitate mailaz ezingo zuela entzun taldearen batez-besteak. Beti dago norbait kontaketa xarma lorrintzen duena. Hortik aparte,

orduantxe hasi nintzen konturatzen amodiozko literaturak hainbesteko arrakasta izatea ez dagokiola beste ezeri, ez bada, amodioan, kontatzea zoragarriago dela bizitzea baino, oraintxe ari naizen moduan.

Hirugarren agerpena. Iritsi zen beste urte bat ere, eta beste uda-opor batzuk ere. Hamalau urte nituen. Helenak bat gutxiago. Neurekiko nioen, desiatzen nuen, Helena agertuko zela, beharbada behin baino gehiagotan, orain bera ere garatuago egongo baitzen. Garatuegi, beharbada, apaizgai batez interesatzeko. Iluntze batez, behizaintzatik etxerakoan, kexatu nintzaion amari, ernegu itxuran:

– Behi hauek ez dakit zer ikusten duten Etxanosolon!

– Etxanosoloko iloba bisitan izan diagu –esan zuen amak, nik izen horrekin nahi nuen asoziazioa asmatu bailuen.

– Zein iloba? –galdetu nuen ergel plantan eta ergelki.

– Bakarraz besterik ezagutzen al duk?

Ez zen premiazko izan nik amari «ez al du nitaz galdetu?» edo «hurrengo noiz etorriko dela esan du?» ekitea. Nire gogoan intuitu bide zuen nire buru makurrean, erantsi zuenean:

– Gautu aurretik jaitsi behar zuela esanda joan duk.

Amak, ez dakit nahita, datu prezindible horrekin nire eraikuntza fantastikoa berrabiatu zuen. Gauaren beldurak moztu zuen, beraz, nire zain jarraitzea. Biharamunean Etxanosolotik pasatzeko aitzakia bila hasi nintzen. Auzo eta ahaide izan arren, orduko nire gogoan arrazoi on batek joan behar zuen aurretik, asmo inkonfesableren bat tarteko zenean. Arrazoi bat, adibidez: «Gure behi adar-makoa ikusi al duzue?». Ez! Hori ezin nuen galdetu, haien soroetako kalteen eta, beharbada, euren etxeko animaliek egindakoen errezelo guztiak gure behi makarren bizkarrera jausi ez zitezen. «Badaezpada, zeuena ez den oilo bati ez zenioten hemendik erreparatuko, ezta?». Arrazoi hori ere baztertu

nuen, ez oilo hura bide galduagoak egiteko gauza ez zelako, baizik ezinezkoa zelako haraino iristea, bidean txakur edo piztiaren batek harrapatu gabe.

Banekien zer egin! Labanarekin ebakitxo bat, oso haurra nintzela, etxe hartan atenditu nindutenean bezala. Neure ustean ebaki txiki bat izan zenari neuk uste baino odol gehiago zerion. Kateko txakur intratablearen zaunketara irtena zen Leari, neskatoaren izebari, ebakiaren kasu «fortuito» azaldu nion. Gezurra, baina odola egiazkoa zen. Etxe hartan gurean ez bezalako bendak zeuden, eta marmelada poteak ere bai, inbidia melankolikoz obserbatzen nituenak.

– Odol gorria daukak gero! –hots egin zuen Leak, zauritxoa bendatzean.

– Nolakoa eduki behar da, ba? –kezkatu nintzen apur bat.

– Sano hagoela esan nahi nian –berak, eta nik, albora begira eta datu kasual bat bezala:

– Atzo bisita izan ei zenuten.

Senak ziostan konstatazioa susmagaitzago izango zela galdera baino, esakune baten arabera: «Galdetzen duenari libre da gezurra esatea». Leak, malezia zerbait igarri balu bezala, jaulki zuen:

– Txoritxo berritsuak gehiago dituk, antza, kantariak baino.

– Bera izan zen txoria, gurera etorri zena, nik ez nuen ikusterik izan baina.

– Bazegok nork ikusi, batek huts egin arren.

Nik «ikusiko duk gainekeo egunen batean» edo horrelako zerbait entzun nahi nuen, baina eman zuen argitasun gorena izan zen: «Hor beheko kaleetan beti ez diate jakiten, antza, zer egin». Horrekin ulertu nuen, ez logika

osoz, zerbaitetik ihesi baino, zerbaiten bila etorri zela. Badaezpada, ez nintzen ausartu Learen mihiari gehiago tiratzen, iloba neskatoa uda guztian ez zela gehiago etorriko entzuteko beldurrez. Edo zuzenkiago esanda, posibilitate zirrarakor bat bere hartan gorde nahi nuelako. Hala, itxaropen gozoan geratu nintzen edozein egunetan errepika zitekeela behin dohatsuki gertatu zena. Horrelaxe bizi naiz ni, zoriontsu izateko nahi beste okasioarekin.

TALITA I

Hitzaldi animoso baten ondoren, Bilboko auzo bateko apaizaren eta bion inguruan osatu zen korruan, emakume batek jaulki zidan:

- Ezertarako laguntzarik behar bazenute, hemen gaude.
- Artista duzu hori orriak multiplikatzen, Jesusek ogiak eta arrainak bezala –argitu zuen Don Kanutok. «Puten abadea» deitzen zutenak bazuen ospe erreberentziala ere.
- Ba, egia esan –gaineratu nuen onarkor–, ogiek eta arrainek baino falta handiagoa egiten digute.

Kontua da, une batean, Don Kanutok emakume prestari «Talita» deitu ziola. Izen horrek erraiak gorgoilera igo zizkidan. Talita! Irrika bizia sentitu nuen emakume harekin bakarrean hitz egiteko. Eta irrika asean izan zen. Denok elkar agurtu eta zorterik onena opa ondoren, San Frantzisko kalean ibairantz nindoala (gaua zen, eta kalearen argiztapena nahiko misteriosoa), Talitak atzetik harrapatu eta esan zidan:

- Orriak kopiatzeko arazoak al dituzue?
- Ez hainbeste oraindik, baina arriskuan gabilta.
- Nahi al duzue neuk ateratzea?
- Ez dakit. Gero, jasotzeko, auzo honetan ibiltzea...
- Kale hauek kezkatzen bazaituzte, goazen geure etxera, lasaiago hitz egitera. Atari horretantxe bizi naiz.
- Oraintxe bertan?
- Zergatik ez?
- Ordu hauetan?
- Zergatik ez?

Erabakia finkatzerako, portale barruan nintzen. Ez dut esango nahi gabe ekarria izan nintzenik, ezta nahita izan zenik ere. Soil-soilik, nahimenetik deskonektatu nintzen,

gertatzekoa bere kabuz gerta zedin. Poz enigmatiko bat sentitu nuen ezen bulkada zehazgabe baina sakon bati jarraitu niola.

Ettxera sartzean, berrogeita batzuk urteko emakume batek hartu gintuen sukaldean. «Hauxe da gure ama, bera ere Talita. Ni Talita bigarrena naiz». Laster jakin nuen amak berrogeita sei urte eta alabak hogeita sei zituela. Gorgoiletik jaisten hasiak ziren erraiak ahoraino etorri zitzaizkidan berriz, ama ere Talita zela entzutean. Honek alde egin zuen, irten beharra zeukala esanez, non nik diskrezio bat baizik ez bainuen ulertu, etxea libre uzteko bezala. Hitzalditik ere ohartua nintzen emakume gazte hura benetan eder eta grinagarri zela, baina Talita zela entzun nuenetik, eta areago ama ere Talita zela jakin nuenetik, edertasuna zorabio bilakatu zen. Ez zen nire errealitate mentaletan fenomeno berria, baina oraingoan, sentimenduen intentsitatea handitu zen, kolore bakarreko arkuan ostarkua ikustera pasatzea bezala. Neska, ama bezala, kolonbiarra zen, eta azaltzeko batere erreparorik ez zuen moduan, sexu-lan garesti eta hautara dedikatzen zen, harritzeko ere ez zena gorputz paregabe eta sinpatia liluratzaille harekin.

Hitz egin genuen orriez, apaizez, bere lanbidez, Kolonbiaz, amaren handik hona etorreraz, bere hemengo jaiotzaz eta bizitzaz, eta estimatu nion atera zuen urdaiazpia eta Kolonbiako edari nahiko gogor bat, botilan Kalipa Colombiana jartzen zuena. Ez nuen jakin nahi orriak «nahi beste» ateratzeko zer azpibide zeukan, baina berak baietz; emateko orria edo orriak, eta berak eroango zituela behar zen lekura, baita seminaria bertara ere, nahi bagenuen. Prekauzioak agintzen dituen pentsakizun txar guztiak bururatu zitzaizkidan, kinada karnaletik txibatotzeraino.

– Lasai! –esan nion–. Zerbait pentsatuko bagenu, jakinaraziko dizugu Don Kanutoren bitartez.

Izatez, nebulosa batean galdurik nenbilen, zorioneko Talita bide. Ez zitekeen, bai zitekeen, haluzinaturik nengoen, beldurturik ere bai, kasualitate delirante bat izan litekeenaz. Bat-batean diost:

– Beste kolaboraziorik finkatuko ez bagenu, zurekin harreman bat izan nahi nuke.

– Harreman «bat» hori zer da, mugagabea ala mugatua? –galdetu nuen, neure noraeza zehazpen gramatikal txotxolo baten azpian ezkutatuz.

– Mugatua eta bakarra nahikoa litzateke.

– Bakarra zer baina?

–«Mesalina» batek zer harreman eskain lezake, bere lanbidezkoa besterik?

– Talita! Nire kontzientzian ez dago harririk, baina ez nazazu horren kolpera atzitu nahi, bestela ere nahiko egoera konplikatuan gabiltza eta.

– Ez diot gaur bertan. Itxialdia amaitzen duzuenean, edo...

– Amai hori kartzela izan daiteke, batzuentzat behintzat.

– Orduan, edozein bitartetan. Gaur etorri zaren moduan, ez daukazu beste behin etorri ezinik. Edo neu norabait joaterik.

– Zer nahi duzu, Talita?

– Gure amak beti esan du, lanbide honetan zortea izateko, lantzean «padresito» baten intimitatea behar dela. ¡Deme suerte, padresito!

Kalera irtendakoan, banekien apaiz batentzat oso eremu arriskutsua zela. Begi hostile batek egundoko kalumnia bat zabaldu ahal zidan, edo neure eliztar batek hauteman ahal ninduen. Hala ere, ezin nuen berriutu gabe utzi hamabi urte lehenago egin nuen ibilbide kasik irrealak, hamasei urte

errukarriekin. Seminariotik etxeranzkoan, kale mitiko hauetatik pasatzera grinatu nintzen, neu bakarrik, sekretuki, nahiz eta bakartasunak beldurra, eta beldurrak misterioaren hondoa handitzen zuen. Kale literalki mitikoak, zeren, Greziako eta Erromako jainko-jainkosen promiskuitate infinituaz neu sekula garbi ezin jabeturik, analogia ulergarri bakarra Bilboko «gorteetan» kokatzen bainuen. Hau ere ez bainuen ezagutzen, mitoak mitoekin ernaltzen ziren nire buru-ganbarako gordelekuetan, eta emaitzak geroz antsiosago ziren. Fenomenoa apaizgai adinkide guztiongan burutzen baitzen, gure azpi-solasak maiz lerratzen ziren kale lanbro hauetara, nahiz eta inor gutxi ausartuko zen zelaia in situ zapaltzen, bertan uste gabeko desintegrazioren bat jasateko beldurrez.

Banindoan kalean behera, astiro, arreta zoli bezain disimulatuan, eta aurpegi guztietan hautematen nuen zerbait anormala, halako neurriraino non guztiek niri begiratzetik ulertzen bainuen neure normaltasuna zela hango destonu bakarra. Inozoa ni, hainbesteko urduritasun eta sentsazio arraroz, ahanzten bainuen janzerak sobera salatzen zuela nire izatea. Orduan traje eta gorbata beltzak apaiz-kume edo fraide-kumeen bereizgarri ia eskusiboak ziren. Erabaki hain temerarioa eta arauetikiko immorala hartzea hainbeste kosta ondoren, kolorean eta merkean lehiatzaile ziruditen idazkunekin jositako errealtate hura atxikitzeke nire ahalegina hain zen intentsoa, hain gogotsua, non ezin bainuen gainditzea lortu guztia irrealak zelako sentipena. Neure zorabio morbidoan nindoala, emakume bat hauteman nuen, neuganantz zuzen. Ihes-senak, batetik, eta tankera hartako emakume egiazko baten lilurak, bestetik, zoruan taket atxiki ninduten, kontrako soke tiraturiko moxal-burua bezala.

– To, mutiko txit guapo! Nahi al duk neurekin etorri?
–Besotik heldu zidan eta nik ergelki galdetu:

– Nora?

– Imaginatzerik ere ez duan zeru batera.

– Nik ez dut oraindik zerurik nahi. –Horizonte mugagabeetan hazitako nerabe menditar batentzat kale berez ere estua eta altua zena, bat-batean, irteera gabea iruditu zitzaidan.

– Nora hoa?

– Atxuriko autobus geltokira (Nrrr! Ez nion esan behar!).

– Mutiltxo txit gozo! Egidak mesede. Emaidak zortea.

– Nik ez dakit horretan.

– Ez duk ezer egin behar. Neuk ipiniko haut Jainkoaren altzoan.

– Ez daukat dirurik.

– Nork aipatu dik diru zikinik?

– Ez daukat astirik. Autobusak ordu laurden barru irten behar du.

– Lagunduko haut. Hik ez duk inguruotan maiz ibiliaren antzik.

– Egia esan, bidea erratuta nator hemendik. Nondik joaten da San Antongo zubira?

– Ikusten? Neuk eroango haut zuzen-zuzen.

Egin zuen irribarre zimurretik atera nuen bide erratuarena ez zuela sinetsi, baina gustatu zitzaiola. Elkarren ondoan gindoazen, ama-semeak bezala, eta nik, derrigorra zenez gero, bera mintzo zenean, gizalegea baliatzen nuen, aurpegira begiratzeko eta bere edertasun enigmatikoaz zirraratzeko, Dione, Sedna, Euridize... Ez nengoen ziur mitologia haragitu zitzaidan ala neu disolbatu nintzen bertan, baina San Antongo zubia han zegoen, beti bezain antzinako,

eta inoiz ez bezain berri, nire ikuspena inflamatzeko baitzuen beti beste aldetik irrika misteriosuz begiratu izanak.

Zubia zeharkatu baitez, harritu ninduen, ia ikaratu ninduen distentsio supitu bat nabaritu nuen, blaust jaustear, gorputza haustu zaion trajea bezala. Zubiaren beste aldean nengoen. Eremu onestean. Esku batean neraman maletatxoa zoruan utzi eta bestera aldatzeko aitzakian, atsedena hartzeko planta egin nuen, ahurrak igurtziz. Hori, nonbait, ez zitzaion laguntzaileari lar zintzo iruditu.

– Beruna al daramak? –galdetu zuen, atsedena arrazoiak sinesgogor.

– Liburuak astun dira –erantzun nuen siku.

Baina berriz ere, irribarre mustelido hartatik atera nuen nire maletako aldagarriak adibinatzen ari zela, galtzontzilo higatuak barne. Nire bat-bateko laxotzearen arrazoiak ere ohartu zela esango nuke, neu ere areago ohartu bainintzen bere aurpegitik, nire sentipenetik baino. Orain, edonork ikusita ere, ez neukan kezkatu beharrik kalean gurutzatu zitzaidan emakume ezagun bat ez zela pentsa zezaten. Zubiaren haraindi libertinoan berehala susmagarri izango zen, agian neuk bilatua, gainera. Berriz maletarekin abiatu nintzen, berak eramango zidala eskatuko ote zuen beldurrez. Eta bat-batean, pasarte neurekiko hain intriganteki mundanoan, amorratu nintzen konturik inoportunoena aipatu zidanean:

– Apaizgaia al haiz?

– Igartzen al zait? –etsi nuen dezepzioz.

– Jantzera horrekin zer besterik izan hinteke?

– Kondenaturik gaude diskriminazio ezkutaezinera.

– Zoragarria duk! Traje horrek exzitatzen naik.

– Ni lotsatu egiten nau.

– Baina traje horren azpian mutiltxo gozo bat zegok!

Ikaraz nengoen helduko ote zidan, nahiz ez zegoen gehiago desio nuenik. Inpasibletasuna simulatu nahian nindoan, belaun dardarak eta gorputz hotzikarak ez zirela igarriko pentsatuz. Atxuriko Inkarnazio Plazako autobus geltoki txikira iristean, ikarak izaera arruntagoa hartu zuen, gizon ezagun bat hauteman nuenean. Bilboko masa anonimoan ere, noranzko jakin batera zihoan autobusak beti aurkitzen zuen subjektu izendunen bat, piztia zaurituak harraparia bezala. Oraindik ordu eta erdi falta zela esan behar izan nionean (denbora zokomiran pasatzeko asmoa neukan), emakumeak adeia izan zuen ez gogorarazteko lehen gezurra esan niola. Taberna guztiak luze eta estu diren edozeinetara sartzea besterik ez zidan eman senak, emakumeak bere bideari jarraituko ziola pentsatuz. Batetik penaz, bestetik premiaz, ziur baitzen, ordua hurbildu ahala, ezagunak (beharbada, ahaideak) gehituz joango zirela. Emakumea ere barrura zetorrela ikusirik, ez nuen beste erremediorik izan esatea baino:

– Kafesne bat ordaintzeko beste diru badaukat.

– Ez, aharitxo! –darantzu intonazio teatrale. Hain taberna estuan, balakuak ikaratu nau, tabernari orobelarriak ere (beharbada, elkarren ezagun dira) begirada ohartua jaurti digula iruditu baitzait—. Ez nauk hain lizun, apaizgai lumagorri bati dirua kentzeko—. Eskerrak hau belarrira diostan, gerritik heldurik disimulu onean, baina gozo-gozo—. Neuk gonbidatzen haut kafesne bero-berora, eta barrako opilik gozoenera.

– Nik ez dut kafesnerik gura.

– Ez al duk oraintxe esan kafesne baterako beste diru bahuela?

– Zeuretzat esan gura nuen.

– Ene aingerutxo! Ni hire kontura eta hi mahaiepe?

– San Antongo zubia topatzen lagundu didazula eskertzearren.

– Neu nagok hiri esker zor, sumatzen baitut zortea ekarri behar didaala. Beraz, opilik gozoena...

– Derrigorra bada, gurago dut laranja-kas bat.

– Nola ez, ba? Gozokia alazo zetorrek kasarekin.

– Nik kasarekin nahikoa dut. Pastela zeuk jan.

– Horixe egingo diagu. Ez hadi ezeren beldur izan –xuxurlatzen dit berriro belarrira–. Nik bazekiat hi bezalako oilaskotxoak ondo tratatzen, apaizgaiak barne.

Ezin dut, ba, beldurrik gainditu, nahiz aldi berean sentitu bizitzako pasarterik haluzinatuena gertatzen ari zaidala. Hau guztia lagunei kontatzen diedanean, begiak hain neurrigabeki zabalduko zaizkie non ez baitute aurkituko itxierarik. Baina ez nago ondo. Norbaitek deskubritzen banau, nireak egin du. Begoñako ama laztan! Zergatik utzi nauzu honen airean? Badakit neu sartu naizela behar ez zen atakan, baina zuk, neure ama faborito horrek, permititu behar al duzu nire ahultasun txoriburu bat hondamen bihur dadin? Traje beltza komunetik jaurti eta azpiko mudan irteteko gogoa damait (zelakoa ote zegok bera!), behintzat apaizgairik inork ez ikusteko. Bitartean, emakume ezagun bat sartu da.

– Basurtuko ospitalean koinata bat bisitatzetik bueltan –dio–. Hil hurran, gajoa, zer egingo zioagu, ba? Hemen datorrena albotik bidaltzeko modurik ez zegok. Hi seminariotik etxerantz, eztuk?

Banekien hitz hori irtengo zena. Zenbat gustatzen zaien emakumeei seminarioa aipatzea!

– Bai, etxerantz pozago joan ohi gara bueltan baino.

Emakumeek ei duten begiarekin, ikaraz nago Kontxesi honek (hala du izena) zerbait susmatuko ote duen, halaxe begiratzeko baitio nire laguntzaileari.

– Hau izekoren bat izango duk.

Erantzutera nindoan: «Bai, Bilboko bigarren izeko bat, aita partetik, gerran ibili zenean». Ez dakit gerra kontu hori zertara justifikatuko nuen, baina, zorionez, ez da premiarik izan, nire laguntzaileak berak hartu baitzuen aurrea, esateko:

– Izeko espiritualak. Seminarioko zerbitzaria naiz, lekaime sekularretakoa. Han ezin dugu apaizgaiekin tratatu direktorik izan, baina kanpoan arauak ez digute hitzik debekatzen, enkontra kasualen bat izanez gero, oraingoan bezala.

Kontxesi joan denean, esanez bere senarra beste taberna batera sartuko zela –gizon hauek, beti andreagandik galdu guran!–, laguntzaileari ez diot gutxi eskertu nire aldeko kapotazoa, ez adierazi gabe ez nauela gutxiago harritu nola dakien seminarioko berri hain zehatza.

– Mundu txikian kontu handiak eta mundu handian kontu txikiak.

– A! –erantzun dut, ulertu-buru eginez, eta agian zerbait ulertuz.

– Tori kasa, laranja-kolore melankolikoa. Nik nahiago diat kafe bat, bizi-bizia.

– Aizu! –ausartu naiz noizbait–. Lagun egin garela dirudienez gero...

– Dirudi ala gara?

– Beno, lagun egin garenez gero, elkarren izenak jakitea ez legoke txarto, ezta? Nirea, Xabier.

– Eta nirea, Talita.

–Talita? –irten zait barru-barrutik. Uste dut taberna osoak entzun duela.

– Zerk ikaratu hau?

– Izen hori ebanjelioan agertzen baita. Jairo izeneko aberats baten alaba hil berriari Jesukristok «Talita kumi!» agindu zion («jaiki, neskato!»), eta neskatoa piztu egin zen. Talita izenak «neskato» esan nahi du.

– O, zer polita! Banekian hi zortegarri izango hintzena.

Berbaldi suabe eta kilikagarri baten ondoren, begirada ferozki ederreko Talita honengan ere, San Antongo zubiaz hemendik, beste emakume bat baizik ez ikusten hasia naiz. Geltoki plazara begiratzean, berriz, geroz ezagun gehiago ageri zait, edo denak ezagun iruditzen zaizkit. Zerbait erabaki beharrik edo nolabait atakatik libratu nahirik, ahalik umilen eta erregukorren diotsot ezen, honelako itxaronaldiak eliza baten ondoan egokituz gero, agindua dugula arrosario bat errezatzerara sar gaitezen, hala Ama Birjinaren debozioz, nola disipazio luzeegia saihesteko. Hau ez diot hitzez hitz horrela esan baina. Topaketaren amai ziurtzat neukanaz bestera, gutxien itxaroten nuen Talitaren erreakzio hau:

– O, aingerutxo! Buruera bikaina horixe, eskatzen ausartu ez naizena! Biok batera errezatuko diagu. Horrek zorte ona ekarriko zidak urte osorako.

– Jainko jauna! –hots egin diot neure kautan Ahalguztidunari–. Zer egin dezaket? Emakume hau ere zeuk egina izanik, ni hautatu al nauzu bera zугanatzeko bidetzat?

Ez zen Inkarnazio Plazako elizan sartzen nintzen lehena. Batzuetan, Txit Santuari bisita labur bat egitera, inoiz freskura bila, eta behin, hilabete lehenago, bizitzako atsekaberik handienetako baten negarra ezkutatzera, Bilboko etxe batean gertatu zitzaidan errakuntza angustios baten ondoren. Oraingoan, elizan sartze triumfala iruditzen zitzaidan, Jainkoari gerra-trofeorik bikainena banekarkio bezala, inkarnazio satanikotzat gaitzetsia zen emakume haren gorputzean.

Inolako elizkizunik abian ez izanik, eliza ia iluntasun totalean zegoen, aldare nagusiko Txit Santuaren argitxoaz eta aldare lateral bateko kandela piztuen multzo debotoaz beste. Bazen absidearen gorenari inkrustaturiko bonbillatxo bat ere, zeinak, argi egin baino gehiago, argitasuna handik gorantz bilatu behar zela esan guran baitzirudien. Atze aldetik eskuin ilarako bosgarren bankura sartu nintzen, iluntasunik handieneko gunera. Kanpotik barrurako ilun-kolpea pitin bat argitu zenean, beste aldeko ilarako aurreneko bankuan, emakumeak diruditen bi bulto beltz ageri ziren beste kandela multzo baten argiaren kontrara, eurak ere piztu berri zituzten kandlei erreduan. Elizan ez zegoen beste inor, edo ez zen ikusten, sakristiatik aldare ingurura lantzean inkurtsio llabur bat egiten zuen mamu bat baizik, apaiza ala sakristaua zen bereizi ezin zena.

Belaunikatu nintzen ukondoak banku bizkarrean-da, eta hura nire bihotz-ikara, Talita neure ondoan belaunikatu zen. Ondo-ondoan esango nuke, nire besoak bere ukitu arina nabari baitzuen. Burua esku bilduen kontra bermaturik, otoitz jarreran kontzentratu nintzenean, seminarioko egoera berdina gainetorri zitzaidan, non, mutil «kutun» bat ondoan gertatzen zenean, nik, otoitz plantarik adienean, arnasaren edo eztularen dilatazioak baliatzen baintuen, ukondoa pixka bat lerratu eta estukiago marruskatzeko ondoko besoa. Honek, bien sotana eta azpiko soinekoen oztopo eta guzti ere, haragi baten kontaktua sentiarazten zuen, gorputz osora dardara edeniko bat zabalduz. Orain, delako mutil «kutuna» haren ordezkapen bat baizik ez zen emakumea bera neukan ondoan. Ez ordezkapen orotan kontzibitzen nuen emakume generikoa, batzuetan atrebentzia sakrilegoz, Ama Birjinarengan konkretatzen nuena, baizik emakume guztiz erreal bat, guztiz emankor bat, zeina nik bera konkistatzea kimeratzat nukeelarik, bera baitzen ni bere emetasunean

irentsi nahi ninduen. Haluzinazio totala benetan! Ez neukan ukondoaren lerratze disimulatua antolatu beharrik, bere beso biluzia itsasten baitzitzaidan, zeinaren karnaltasunak aise zeharkatzen zituen nire jaka beltz higatua eta alkandora zuri mehea. Oraingoan, gorputzean zehar barreiatzen zitzaidan dardarak ez zirudien fenomeno elektrikoa, likidoa baizik, zerbait urtzen ari zitzaidala nabari bainuen, begiak haietarantz finko nituen kandelak bezala. Dardararen itzuli batean, ikarak jo ninduen, egoera sinestezin hura zertan amaituko ote zen.

– Eseriko al gaituk? –xuxurlatzen dit Talitak–. Belaunak mintzen ari zaizkidak.

– Ez zaude ohituta, ezta?

– Eroso egon behar diat, ferborez errezatzeko. Sufrimendua artifizialki eragitea bizitza profanatzea duk.

– Nork gidatuko du arrosarioa? –galdetu nion eseri ginenean.

– Heu haiz ofizioko. Nik agurmarien kontaduria eramango diat, hire hatzekin. –Eta esku bat hartu zidan bere altzora.

– Honela ez dakit errezatzeko gauza izango naizen.

– Egon isilik orduan. Iluntasunari isiltasuna zetorkiok ondoen.

Eskua esku biekin behin ferekatzen, behin marruskatzen zidan, aldizka bere izter baten kontra edo bien erdian pasatuz. Soinekoaren fintasun labain eta freskoan, haragiaren berotasuna nabari zen. Alde batetik, ez nintzen errekonozitzen neure eskuan, eta bestetik, eskua zen nintzen guztia.

– Beldur haiz? –galdetu zidan, pultsua dardaratzen zitzaidala oharturik.

– Apur bat ikaratuta nago.

– Nola uste duk nik hiri txarrik egitea? Fida hadi ez duala pairatuko heuk nahi ez duanik.

– Hauxe ez dakit nahi dudan.

– Inoiz ez al duk antzeko pentsakizunik egin?

– Pentsatzeko askatasunera iritsita nago, baina hau ez da pentsakizuna.

– Egiok, behingoagatik, ekintzari leku, pentsakizunek mami bat izan dezaten.

– Lurrun totalean nago.

– Ekardak beste eskua.

Ekartzeko esan, baina hartu egin zidan, eta esku biak bere izter artean estutu zizkidan. Igurtzi lento eta sakatuek gonak bilduz zekartzatela ohartzen nintzen, izter artea biluz gelditu arte. Kuleroek oso doiak izan behar zuten, bilokiribilak sumatzen baitziren. Eskuak beroan urtzen nabari nituen. Hatzak beldur gabe askatzeko zioetan, dena neurea balitz bezala, baina ez nengoen erabaki instintiborik ere hartzeko moduan. Esku bat hartu eta zabal-zabal eginik (ez zegoen erresistentziarako ahalmenik), bularren kontrara atxiki zidan. Eskotea gerriraino askaturik zegoela ohartzen nintzen. Astiro-astiro, bere eskua laxatzen du, mugimenduaren ekimena neuk hartzera gonbidatuz. Saiatzen nintzen aginduak eskura bidaltzen, baina eskuak ez zuen obeditzen. Ausart hadi –diost. Ezin dut –darantzut. Eta orduan berak egiten du dena, nire eskuarekin orban bat ezabatu nahi bailuen. Inoiz ez dut bularrik izan eskuan (amarenik ere ez, ezaguera dudanetik), eta neuk uste baino handiago dira. Ez zaizkit ahurrean kabitzen, beti imajinatu izan dudan moduan.

Denborari joaten uzten zion, ikaratik atseginerantz lerra nendin-edo, baina kontua zen ikarak handitu egiten zuela nire zirrara, emozio ala kommozio zen ez nekiena. Bat-batean, nire zangoak bankura luze altxatu eta buelta laurden

emanarazirik, altzoan hartu ninduen, burua beso batean, bularra emateko bezala. Eta horixe egin zidan, aurpegia bular bien kontra ezkutatu, estutu, esku librearekin jaka-alkandorak askatu, eta paparra eta sabela igurtzi, gerrikoaren toperaino. Eta ezpain mardulekin musukatu, eta mihiarekin belarria kilikatu. Indarka nabari ninduen, nonbait, jarein nahian bezala, eta diost:

– Ez beldurtu, aharitxo! Hau amodioa duk. Amodio gardenena. Zeruaren aurrerapen bat.

– Baina hemen! Elizan!

– Jainkoa bat bera duk elizan zein ohean.

– Harrapatzen bagaituzte!

– Lasai, aharitxo! Eliza guztia zainpean diat. Inork ezin dik hurbildu ni ohartzeke.

– Honenbesterik ez nuen behar.

– Ez behar, ez zor! Hi eta ni gaituk, Jainko omnipresentea lagun. Laxa hadi. Neu nauk erantzule. Utz hadi eramaten.

– Non sartu nauzu, ene Jainko? –hondoratzen naiz neure pentsamenduen zuloan–. Badakizu apaiz baten eskakizun kartsuak errefusatu ezin izan nituena. Orain, neure desiozko aukeran paratu nauzunean, zer egin behar dut?

– Hik ez duk ezer egin behar –darantzu Talitak, harriturik neu, nola igarri duen nire pentsamendua–. Gogoari eta gorputzari jarein bakarrik.

Jainkoarentzako galdera isila Talitak entzuteko moduan irten zitzaidan, antza, aztia ere ez bazen. Nahasmen kafkar baten sentipenez, ezin nuen modurik aurkitu Talitaren amaraunetik irteteko, hari bat libratzen nuenerako, bera bi aurrerago baitzihoan. Jainkoarekin teman niharduen bitartean, gerrikoa eta galtzak askatu zizkidan, eta aurpegia bere bular eta musu artean ehorzten didala, bere eskua

bazebilen nire sabel barreneko zizaretxoaren bila, zeina, uste gabeko seismoaren totalaz kikildurik, atzeranzko metamorfosian babestu baitzen. Engainatu nahi zuen, balientetu nahi zuen, neuk ere nahi nuen engainuari segi ziezaion, bai bainekien engainua baino gehiago zela. Baina aurpegitik belaunetaraino, elizaren itzala barne, elementu gehiegi zebiltzan batera, koordinazio minimo batera bil zitezen. «Lasaitu egin behar duk. Ez zegok inolako arriskurik. Ez duk ezer pentsatu behar, egia dela besterik».

Egiarena sentitzen nuen, baina ez arriskurik eza. Azkenean, hau ridikulua!, logika idorrean aurkeztu zitzaigun silogismo fosildu batek erreskatatu ninduen: sentipenak ez du objektua aldatzen. Kasu honetan, arriskua. Baina subjektua sentipenen mende zegoen. Arriskurik eza sentitu ahal banuen, objektuaren izaera –arriskuarena– ez zen aldatuko, baina subjektua salba zitekeen. Eta niri subjektua interesatzen zitzaidan. Silogismoa ez zen, beharbada, zuzena, hain gutxi argia, hain gutxiago gure irakasle antilibertinoak onartzeko moduan formulatua, baina balio zuela zirudien, elementuak ari baitziren koordinatzen, seguruenik Talitaren eskuaren ahalmenez.

Zizaretxoa bazetorren tamaina jasoagora, nahiz laburki oraindik, zulotik irteten hasten diren kume horiek bezala, argiaren lilura ukitu baikoz ilunpera itzultzen direnak. Egia esan, koordinazioa baino areago, ez dakit elementuen autonomia ez zen arrakastaren eragile, zeren, nire gogoa bularretan galduriko aurpegiak absorbitzen zuen bitartean, bazirudien behealdea bere kasa zebilela. Ez zegoen dudarik Talitaren bularrak eta eskuak, ezpainak eta mihia artistak zirela batera zein bereiz jotatzen, komenentzien arabera. Kontua da, arnas kolpeak eta konbultsioak geroz jarraituago sentitzean, hots egin nuela: «Zeruaren aurrerapen bat zenion?». Talita bere zain zegoen seinale bat izan zela dirudi,

zeren, ni bankuan eserarazirik, aurrean belaunikatu zitzaidan, neuri begira.

Geroztik urteetara, esperientzia esplosibo hura hobeto sentitzeko gai naizela esango nuke, zeren orduan, dzangada bertikal faszinagarri bat baino gehiago, labar batetik erortze supitua izan baitzen, urpeko zorabiotik bueltan, bazterra non zen ere ezin asmatuz. Bere gorputza nire belaun artean sarturik, ukondoekin izterrak eta eskuekin gerria estutu zizkidanean, bete-betea pentsatu nuen konfesioa eskatzen ari zela. «Hori ezin dut egin» –esan nionean (konfesioa, alegia), aurpegia ezkutatu zuen nire altzo inarrosian, non ez bainengoen seguru galtzak goian ala behean zeuden, galtzontzilo jaitsien presioa nabari banuen ere.

– Hik ez duk ezer egin behar! –murmurtu zuen berriro, haserre tonuan–. Edo bai! Orain heu hago goian, eta heure kontu bigilantzia.

Bigilantzietarako moduan nengoen! Egia esan, ez nekien nola nengoen, nire gogoan ez baitzen konparaziorako erreferentziarik. Turbinatik harako ur turbulento bat nintzen, ubideari entregatzen zitzaiona, bere egoera barera itzul zedin. Baina, horretarako, astindu batzuk falta ziren oraindik. Nire eskuak bere bular beroei eusten jarri zituen, eta aurpegia nire tripa barrenean hondoratu zuen, zizare galduaren, ehortziaren bila. Une batez iruditu zitzaidan ahoan zerabilela, txikle baten moduan. Ez nuen ulertu, baina ez nintzen harritu ere, zerbait zerrikeria iruditzeke mugetatik harago bainengoen. Bakarrik nekien izterrak estutzeke gogoa neukala, eta horixe egiten nuen, bere besoen laguntzaz. Bularrak estutzeke irrika ere egin zitzaidan, baina jabetzen nintzen gai bigunegiak zirela gogor heltzeke. Ohartzen nintzen txikle bazihoala ahoa beteez, eta honek irentsi egin nahi zuela, baina hori ez zitzaidan posible iruditzen. Bere eskuek gerria eta giltzurriak estutzen, igurzten zizkidaten,

bere mihia ere nabari nuen, baina nire gogoa ez zen gauza hainbeste fronte batera atenditzeko.

Exzitazio orokor baten barrutik, zirrara-kolpe bortitzak sentitu nituen, baina ezin nuen esan plazera zenik, nire oroimenean ez baitzegoen konparaziorako terminorik. Bakarrik nekien larritzen ari nintzela, gelditu nahi ez duen eta bere balkoixora ere irten ezin zaren trena bezala, eta aitortu behar izan nuen: «Talita! Uste dut txiza irten behar zaidala». Harritu nintzen berak hartara bultzatu ninduenean, aginduz: «Jarein lasai, aharitxo! Ez duk ezer bustiko». Emakume honek urteetan injektaturiko mistika guztia atera behar al dit? Bera ere konbultsioan hasi zen, eta esku biekin nire gerria besarkaturik, histeriazko atake batean bezala, gorputz osoz estutu ninduen. Beldurtu nintzen estrangulatuko ote ninduen, baina jada grinatua nintzen horrelakoxe zerbait gerta zedin, ea «zeruaren aurrerapena» noraino iristen zen.

Trena gelditu zen, egon zen, joan zen. Talita eta biok, jada bankuan eserita, geure itxurak taxutzen ari ginen, lehoi ama-semeak fakokero baten deboramendutik txukundu ohi diren antzera, eta hara non iruditu zitzaidan konfesatoki baten gortinatik buru bat irten zela, betaurrekoak ken-ipiniz. Talitak ez zuen ikusten ezer, konfesatokia doi-doi baizik, baina nire esanean edo irudipenean fidaturik, zutitu eta bazihoan bertarantz, esanez:

- Laster jakingo diagu zer ikusi duen eta nork.
- Mesedez, Talita! Ez horrelakorik!
- Errespetu apur bat utzi behar diat hemen, hurrengo batean etorri behar banu ere.
- Ni kanpora noa!
- Hi ez haut ezertan nahasiko.
- Banoa. Agur!

Irteeran, elizako sarreran gelditu naiz, laster hartu beharreko autobus gorriari begira, eta disimuluan, ateko iragarkiak eta propaganda erlijiosoak irakur plantan, Talitaren zain. Ez dator. Autobusaren motorra berotzen ari da, burrun-burrin, eta azken bidaiariak sartzera doaz. Une batetik bestera abiatuko da. Ezin dut itxaron. Gaur ez dago beste autobusik. Autobusaren bigarren solairura igo naiz, beti gustatzen zaidan moduan. Goiera hauxe da nire aukera zilegi bakanetako bat, mundu ezberdin bat ikusi ahal izateko. Leiho baten kontra eseri naiz, elizako atera begira. Plaza koxkor honetan dena dago hur.

Agertu da Talita elizako sarreran. Alboetara begiratzen du, bila bezala. Leioa jaitsi eta burua erakusten dut. Hauteman nau eta agurka ari zait, eskukada musuak bidaliz. Nik ez darantzut, dagokiona ez banintz bezala. Talitak ez duela ulertzen dirudi nire jaramonik eza. Ez dut nahi bidaiariak (batzuk ezagunak) emakume deigarri horrekin lot nazaten. Kexuz bezala adierazi nahian dabil ez zuela merezi honela banatzerik. Egia izan dela zorte onarena, nik emango niona. Autobuserantz hurbildu da, ia neure leihoperaino. Bidaiariak buru biraka dihardute, emakumea nori zuzentzen ote zaion. Ziur nago neugan pentsatzen dutela gutxien, eta halaxe hobe, beldur bainaiz autobuskada guztiak badakiela edo igarri duela zer emakume mota den. Ni, bidaiari begiluze bat gehiago bezala, irritsu nago Talitari begira, arreta osoz, finkotasun kartsuz, bere airea eta gorpuzkera gogoan atxiki nahirik. Aurpegi karratu xuabeki luzangan, bi masailezur sendo eta arean zabal, bitarteko edertasunaren zain-garidak bailiran. Kolore berdintsuko ilajeak enkoadraturiko azal ilun-beilexkan, begi eta bekain beltzaranak indarrez nabarmentzen dira, sudur zorrotz, ez luze, pixka bat gora eginean. Ezpain arinki mamitsu eta gorrixkek ahoari lore jangarri baten itxura damaiote, kokots sentsualki erdibituak

osotasunari oinarri seduktiboa eskaintzen diola. Sorbalda tente eta zabalak kono perfektuan estutzen dira gerrirantz, zeina berriz mokorretara zabaltzen baita, kurbadura obalatuan. Apaiz egin nadinean, silueta horixe aginduko dut neure kalizarentzat, urre, zilar nahiz brontzezko izan.

Deliratzen nago neure inkomunikazioan, pentsatuz eta sinesteari eustea kostatuz nola horrelako edertasun batek nigandik atera nahi izan zezakeen bere «zorte ona». Etsi du, nonbait, edo agian susmatu nire ez-jaramonaren arrazoia, eta bere espresioa ere begiratze soil bihurtu da. Aurpegi hori betiko gorde nahi dut, eta lortuko dudala uste dut, oroimenean harrak egiten ez bazaizkit. Esku batekin agurkeinu nagi, erorkor, pendular bat egin du, hutsean orban bat ezabatzen bezala, eta badoa. Autobusa abiatu da eta berari darraiola uste dut. Neure aulkian bakartu eta erlaxatu naizenean, konturatu naiz nire arnasa ez dabilela berdin. Birikak zabaltzen eta ixten nabari ditut, akordeoi bat bezala. «Hauek ez dira aharrausiak», pentsatu dut.

TALITA II

– Emakume bat zure bila dabil.

Berri hori seminarioan entzutea shock bat bezalakoa zen. Kosta behar zitzaion behar zuena aurkitzea, informazioan eta telefono orokorrean zeuden mojek muzinka transmititzen baitzituzten heretikotzat ikusten zituzten apaiz itxienganako mandatuak. Mila lagun atzera-aurrera zebiltzan eraikinean, aurrenengo topatzen denari galdetzen hastea, berriz, mandatua bidean galtzeko edo deformatzeko modu segurua izan zitekeen, batez ere, gurea bezalako talde intrusoa zenean, inon egonleku arauzkorik ez zuena. Mezua konkrezio intrigante honekin iritsi zitzaidan: Emakume bat «zure» bila dabil. Ebanjelioko aipu bat zirudien. Non? Nondik? Nora joan behar nuen? Azkenean, garbiena zen norberak bilatzea bilatzailea, nondik hasi edo norantz mugi zitekeen kalkulaturik. Itxaroten ez nuena zen, sarrera nagusirantz bidean, barne pasillo handietako batean topo egingo nuela berarekin, apaizgai aztoratuen artean aurrera zetorrela.

– Talita! Nola zu hemen?

– Don Kanutok esan dit goizez, normalean, seminarioan egoten zaretela.

– Ez nioen horregatik, tokiagatik baizik. Emakume baten presentzia oso gaitzetsia da gune hauetan.

– Inork ez dit biderik moztu.

– Non galdetu duzu?

– Harmailadi zentrolean aurkitu dudan bati. «Alde horretan egoten dira», esan dit.

– Beharbada, ikasle soil bat izango zen. Beharbada, alukeriaz esango zizun. Goazen kanpora.

Ezin nuen esan Talita, apaizen itxialdia Bilbon zabaltzen lan itzela egiten zuena, nire bila etortzeak losintxatzen eta exzitatzen ere ez ninduenik, baina seminarioan bestela ere bagenuen aski tentsio, emakume baten sarrerak alterazio berriak ekar zitzen. Norbaitek bere «ofizio» eta guzti ezagutzea besterik ez genuen behar, litekeena hori ere, egia bada «bezero hautak bakarrik» hartzen zituela.

– Orduan, non bilatu behar zintudan, zurekin egon beharra banuen?

– Zeure auzoan, edo Bilboko edonon, baina seminarioan ez.

– Eta Bilbotik irteteko gogoia badut?

– Nire abadetxeko atea zabalik egoten da beti.

Eta zabalik aurkitu zuen. Seminarioko itxialdia amaitu eta bizimodu normalera itzulirik, Talita niretzat oroitzapen exotiko bat besterik ez zenean (erotikoa ere bai, nola ez), abadetxeko pasilloan topo egin genuen, hura ateko aldaba jo eta barrurantz, ni sukaldetik kanporantz, deiari erantzunez. Ilunabarra zen, bi neska ziren, Lekeitiora zihoazen.

«Zerbitzuren bat egitera», pentsatu nuen, baina ez. Talitak laster argitu zuen bigarrena bere lagun bilbotar bat zela, «ofizioz kanpoko». Honek Lekeition pisu bat zeukan, eta halaxe ei zetozen, lagunaren autoan, egun bat kostaldean pasatzera, «atsedenean». Talitaren aurkezpenek hitzak markatzeko ohitura handia zuten, «ofizioz kanpoko», «atsedenean»... Aurrera pasatzera gonbidatu nituenean, bilbotar lagunak esan zuen eskertzen zuela, baina berak joan beharra zeukala, beste lagun batzuekin gelditurik baitzegoen. Eta joan zen. «Honek beste plan bat ematen dik» –pentsatu nuen, eta apur bat intrigatu nintzen, baina intriga zukugarria iruditu zitzaidan.

Talita, zoko guztien ikusmiran, harritu zen etxeaz, adeiak, «zahar» ordeztu, «antigoaleko» esanarazi zionaz. Dena zen beretzat «lindoa», «txit lindoa», «bai lindoa!». Hitz egin genuen bere auzo San Frantziskoz, Bilboz, bere ofizioaz, nireaz, jorratu genuen kostaldean, Lekeitioko «atsedena»... Afari xume bat prestatu genuen (neskame gabeko abadetxe batean izan zitekeena), bagindoazen kafean, kanpandorreko erlojuak gaueko hamarrak ia gure buruen gainean jo zituen, eta galdetu nuen:

- Zer ordutan etortzeko esan diozu lagunari?
- Nire laguna ez da etortzekoa.
- Motorrean eroan beharko zaitut, orduan? Hemendik pasatzeko azken autobusa antzina joan da.
- Beldur al zara neska bat atzean-da ikus zaitzaten?
- Gaez ez da probableena, gonak airean ez badoaz, baina guardia zibilaren kuartela baino lehenago jaitsi beharko duzu, ze han bestela ere badut nahiko fielato.
- Hmmm...
- Urrumatxo horrek pentsakizunen bat ezkutatzen al zuen?
- Nju-nju!
- Jun-jun horrek baietza dirudi.
- Berton gelditzea konpromiso handia al litzateke?
- Talita! Zure ofizioa eta nirea ez dira hain inkompatibleak distantzia batera, baina abadetxe batean eta eliz kanpainen azpian, zer esplikazio eman behar dut?
- Nik uste nuen bi pertsona ginela, ez bi ofizio.
- Bai, bereizketa hori geure esku bakarrik balego. Herri bat ere bizi da inguruan.
- Nork daki ni zer naizen?
- Hemen ere izan daitezke zure bezeroak –beldurtzen naiz zerbaiten jakitun konfesioetatik.

– Nire bezeroak burges aspertuak dira, ez baserritar nekatuak.

– O! Egun aberats eta atsedena...garri bat edonork ordain dezake –zuzendu diot, neuk ere «atseden» markatuz.

– Don Xabier! –dio intonazio minberaz–. Gure auzora ez duzu etorri nahi, fama txarrekoa delako. Seminariotik bidali ninduzun, toki konprometitua zelako. Edonorentzat atea zabalik ei zenuen etxetik bidali nahi nauzu, inguruan herri bat bizi delako. Infernuari itxaron behar al diot, zurekin egon ahal izateko?

– Talita! –amore ematen dut, gero ere irremediabiltzat sumatzen dudana aurreratuz–. Horren aurpegi polit batengandik ezin dut hitz gogorrik jasan. Abadetxean lo egingo duzu, eta goizeko meza-kanpaiak itzartuko zaitu. Karta-jokoan ba al dakizu?

– Briskan bakarrik.

– Gehien gustatzen zaidana, hain zuzen.

Ez nuen gezurrik esan, nekez asmatuko zuen zergatik baina. Beste kasu batzuetan ere gertatua zitzaidan moduan, aurpegira zuzen eta luze begiratzea gaizki pentsatzeko izan daitekeenekin (apaizon kasuan, emakume guztiak), karta-jokoa aitzakia naturala, eroso, oparoa da. Elkarrengandik hain hurbil egon beharra duten begiei nahi duzun intentzio eta intentsitate guztia ezarri ahal zaio. Jokoaren ohiko hitz eta esapideak eurak ere bigarren eta nahigarren esanahian jaulki eta uler ditzakezu, inolako muzin edo irain kezka gabe. «Larri al zaude? Jan behar zaitut. Nitaz abusatzen ari zara. Etor, etor! A zer pasada datorkizun oraingoan! Ezin dizut barkatu! Desarmatu nauzu». Jolasa atsegin bazaizu, luzapena eska dezakezu, edo amaitzea, nekatzen hasia zarela argudiatuz. Denbora luzea egin dezakezu aurreko aurpegi desiatua ikertzen, kontenplatzen, gozatzen, berak ere

zurearekin berdin egiten duela pentsatzeko analogia guztiekin.

Talitaren kasuan, bera eta bere ama ikusten nituen batera, ez dakit gain-jarriak ala azpi-jarriak, baina bikoiztasun zehatz eta batuan. Eta bera eta ni, neure baitan, bi sentipen bortitz eta izankide ginen, elkarrekin fusionatzeaz ziren une delizios batean. Berak nire ustezko bikoiztasun horren berri ez jakiteak, imajinatzerik ere ezin izateak, nire pentsakizunei lilura eutsiezina zemaiei. Norbere sentimendu oro menderatzen duen sekretu bat modelaturik agertzea bezala laku baten azaleran, non zure izaki kutunek zeure uhintxoekin zurrustaka ari baitira.

Okerrenean, banuen koartada: ezezagun bat ate joka, gordeleku bila. Motiboak ez zuen, zoritxarrez, esplikazio beharrik (kasu honetan, zorionez), mundu guztiak baitzekien ezkutatu beharreko egoerak ebidenteak zirela. Haurrek ere bazekiten, abadetxean aurpegi ezezagunik ikusten bazuten, ez zutela nor zen galdetu behar; eta galdetzen deskuidatu zenari, haurrengan bidezkoen denez, «Nordenbat» erantzutea nahikoa zela, berak «a!» asentitu behar izateko, informazio guztia jaso balu lez. Beraz, lasai egon nintekeen. Lasaitasuna segurua bazen, sentitzen nuen emozioari osoki jarein ahal nion. Zer besterik nezakeen, baldin laster, txarreanean zein onenean, kartzela izango baitzen gure terminala?

Kanpandorreko erlojuak gauerdia jo zuenean (hamabi danda bider bi berdin hogeita lau), Talitari berea izango zen logela erakutsi nion, eta leihoa zabaldurik, ibaia entzunarazi. «Hots horrek loari uraren ziklo guztia dakarkio, itsaso, hodei, euri, itzulera». Talitak esan zuen berak ez duela, lo egiteko, hainbeste poesia behar. Nik pentsatu nuen zergatik jartzen ote nuen poesia beti iraganean, sentimendu alferreko bat bailitzan. Hormetan goitik behera ageri ziren pitzadura xumeei begira hauteman nuenean (bat, egia esan, nahiko

beldurgarria), marra haiek egituraren originalak izan behar zutela esan nion. Hortxe daramatzate hiru bat mende. «Ziur mamurik ez dela bertatik sartzen?». Mamurik ziur ezetz, erantzun nion. «Gehienez ere, saguzarren bat. Baina horiek berehala aurkitzen dute leihoa. Saguzarrei sar-irtena gustatzen zaie».

Orain badakit zeren beldur zirudien, horma bat dezente sabeldurik hauteman baitzuen. Ez kezkatzeko esan nion, alde bietatik baitzegoen sabeldun. «Etxegileek ez zuten astirik izan materialak berdintzeko, eta harri handiagoak euren hartan utzi zituzten». Nire logela ere berdina ote zen galdetu zidan, eta baietz suposatzen nuela erantzun nion, dena etxe bakarra edo, gutxienez, teilape bakarra baitzen. «Suposatu?». Baietz esan nion. Nire aurreko abade bati, gerra aurrean, hormak papereztea otu zitzaiola eta, harrezkero, lantzean kolore mota bat aldatu izan zela, baina ni ez nintzela ausartzen eliztarrei horretarako dirurik eskatzen. «Behin honezkero, aurrezteko asmorik ere ez daukat». «Behin honezkero» horren esanahiaz noraezean bezala gelditu zen, baina ez zuen aurkitu galdekizun argirik, eta neuk ere nahiago izan nuen azalpenik ez eman, eskatu gabeko hitzek nahi gabeko jarraipena izan ez zezaten.

«Gau on eta ondo lo egin» –esatera nindoala, entzerraturik utzi behar dutela igarri duen animaliaaren begirada errukarriz galdetu zuen:

– Zure logela ikus al nezake?

– Jakina! Zergatik ez? –onartu nuen, beharbada intonazio gehiegizkoan, eskaerarik naturalena zela sentiarazi nahian.

– O! Logela ala bulegoa da berau? –hots egin zuen bertan sartzean.

– Biak, alboko gela jan zenetik, aretoa osatzeko.

– Orduan, lan eta lo eta dena egiten duzu berton?

- Dena, lan-itxura eta lo-itxura barne.
- Lan-itxura?
- Apaizok ez dugu langile famarik, eta nik probexten dut fama. Jendeari arrazoia kentzen hastea ez da prudentea.
- Lo-itxura ere esan duzu.
- Aurrekoaren ondorio da hori. Apaizok astia sobera izateko fama dugu, baina dena ezin da benetako loan erabili. Nahiz eta jendeak nahiago lukeen apaiza lo egotea, ikusmiran ibiltzea baino.
- Lo-itxurak ezin al du izan esanahi jasoago bat?
- Adibidez?
- Amets politak edo?
- Ba, ez dakit –diot–. Batzuetan, ametsa egia izan ohi da, oraintxe bezala, baina ikasita nago egia amets bezala tratatzen. Zure ofizioak ere beharko du hori, jasangarri izan dadin.
- Zugana ez naiz ofizioan etorri.
- Horregatik prestatu dizut logela bat.
- Nik ezin dut gaua logela horretan igaro. Ikara ematen dit.
- Talita! Ez dakit entzuteak urtuko nindukeena esateko beldur zaren, baina hau ez da ordua eta tokia, kuika ibiltzeko. Zer nahi duzu benetan niregandik?
- Gure amak dio, behin edo behin, «padresito» batekin egon behar dela, Jainkoak zortea eman deigun. Gu kolonbiarrak gara. ¡Deme suerte, padresito!
- ¡Tiene cojones la cosa!
- Ez dizut okerrik egingo, eta bai zuk niri mesede itzela. Sinesten dut Jainkoarengan.
- Nik ez dut, ba, hainbeste sinesten.
- Ez duzu ezer egin beharrik. Ondoan egoten utzi bakarrik.

Nahi nuen zerbait gerta zedin, beldur nintzen zerbait gerta zedin, eta «zerbait» hura, nire buruan, inoiz ez zen izan logela hartan gertatzera zihoana. Baina batetik eta bestetik, ez nekusan era duinik, zerbait gertatzea saihestekorik, eta ez dakit adimenak, grinak ala kamustasunak, laster moldatu zuen arrazoibidea ezen «derrigorri» ahalik ondoen burutzen utzi behar zaiola. Ohazal gorria atzeraturik, zainjarrera totalean etzan nintzen, Talita amarena ezin burutik kenduz, hamasei urte nituela, Atxuriko elizan. Ez behingoan, baina logela ikusmiratu eta haztatu ondoren, ertz guztiak ongarri bihurtu guran bezala, Talita alaba nire ondoan luze etzan zen, eta hasperendu nintzen: «Aita! Ahal balitz, aldendu kaliza hau nigandik, baina ez bedi egin nire nahia, zurea baizik».

Astiro-astiro, haur lo bat maneiitzen bezain kurioso, Talitak biluztu ninduen, belaunak tolestu eta zabalarazi, eta begiak ixteko agindu, berak esan arte. «Ireki begiak» –agindu zidanean, neure belaun artean belauniko zegoen, ukondoak nire aldaken kontra eta aurpegia nire sabelaren gainean. Atxuriko elizakoaz geroztik, lehen aldia nuen antzeko egoeran aurkitzen nintzena. Orduan ez nintzen ohartu zer gertatu zen, eta oraintxe ere antzeko sentipena dut. Orduan txizalarria neukala esan nion Talita amari. Orain teoria zerbait ikasia nengoen, aierutua gehiago gure moral-ikasgai erdi kabalistikoetan, baina praktikan eta benetan, ez nekien zer gertatu behar zuen. Handik urteetara ohartu nintzen Talita alabaren metodo jakintsuaz. Pentsaturik larri, lotsaz, prekozegi desegingo nintzela, xurgaldi bortitz batez hustu ninduen, eta ohol bat bezala gelditu nintzen. «Zorteak neurea izan behar duela dirudi» –esan nion, arnasa itzuli zenean hitz egiteko erritmora. «Zu lasai! Etorriko da nire zortearen txanda ere». Luzaro egon ginen, hitz bakanak tartetuz,

iradokizun urrunak eta deslaiak eginez, harik eta berriro ukitu xumeak, abstraituak bezalakoak egiten hasi zen arte.

– Zuk zirkinik ere ez! Objektu totala izan behar duzu.

– Irribarrerik ezin dut egin?

– Ezingo duzu. Gorroto aurpegia jarriko zaizu, baina hori geroago.

Nire gorputza amilduratik goratzen hasi zenean, hots, «txoria» bere buruari eusteko lain suspertu zenean, Talitak lore amorosoak eta esklamazio poetikoak debekatu zituen, eta berriro «zirkinik ere ez esan dut!!» –mehatxu mortala eginik, bere arte guztia garatzen hasi zen, neurea ala alienazio batena ote zen bereiztea kostatzen zitzaidan «objektu» baten gainean. Nahiz esperientzia pertsonalaren gidarik neuk ez izan, abstrakzioak haragitzeko nekarren trebetasunetik eta analogia zailenak fusionatzeko irudimenetik, garapenari, atzeragotik bazen ere, jabetasun nahiko oso eta erogarriro gozoan jarraitzen nion, harik eta, artea ferozitate bihurturik, Talitaren aurpegian otseme frenetiko bat hauteman nuen arte. Ikaratu nintzela sumatu bide zuen, oihu egin baitzuen jardun guztiko hitz bakarrokin: «Bihur hadi otso! Txano Gorritxo jan behar duk!». Niri areago iruditu zitzaidan oihan osoa jaten ari nintzela. Hain denbora laburrean, noraino joan nintzen! Astiro-astiro, logela bazetorren bere ohiko formara, era miragarriro piktorikoan.

– Zenbat danda izan dira? –galdetu zuen Talitak.

– Ez nago kanpaien kontua eroateko moduan.

– Egunsentia ez al dirudi?

– Nire argitasuna beste denbora batetik dator –jaulkitzen diot.

– Bilboko gure auzora lehenengoz agertu zinena?

– Askoz lehenago. Duela hamabi urte.

– Ni oraindik Kolonbian nengoen.

- Baina zure ama hemen zebilen.
- Gure ama ezagutzen al duzu?
- Talita! Mirariak badaude. Banaka esplikagarri izan daitezke, baina biak batera, ez dago dudarik.
- Ez didazu esango deliratzten jarri zaitudala, ezta?
- Nahi al duzu konta deizudan?
- Ezetza, behin honezkero, coitus interruptus bat litzateke.
- Gogor samarra da gero!
- Apaiz deflora berri batek irakatsi behar al dit zer den gogor eta zer bigun?

Talita harri bezain hunki entzun zuen bere amaren eta apaizgai nerabearen elizako pasartea. «Gure ama izaki infinitua da!» –izan ziren bere lehen hitzak, pasarte hark amaren bizitza osoa argiztatu bailuen. Hurrengo hitzak berrespen oso bat bezala izan ziren ezen ez zitzaiola arrazoirik falta izan, bere zorte ona nirekiko harreman batetik itxaron zuenean. Nire gogoan, mirariaren kontzientzia guztizkoa bazen, haren fedean ez zen txikiago konbikzioa ezen inspirazio zerutar batek bultzatu zuela niregana. Pentsakortasun eta gorputzen barekortasun luze baten ondoren, bira erdi bere gainera eragin zidan eta hots egin zuen:

- ¡Blindemos la suerte, padresito!
- Talita! –erantzun nion–. Lortu duzu nire lehenengoa izan zedin. Azkena izatea ere lortu nahi al duzu?
- Indartuko zara saiatsu ahala, gozo-gozo. Egizu nirekin neuk zurekin egin dudana. Nire ofizioan hain zail dena! Pasibotasun dohatsua. Atsedan erotua gozatu nahi dut.

Saiatzeak merezi izan zuen Talita zorte onaren fede osoz aldendu zen, eta niri engainu bat gelditu zitzaidan ezen

laster pairatuko nuen espetxea, une batzuetan, zulo urdin bat
bezala sentituko nuela.

TALITA III

Ez espetxean, ez handik bueltan itxaroten nuena zen mirariaren atal handi bat falta zela, agian Talitaren zorte on osoaren zain. Uda batez, Iruñeko Larraona ikastetxean burutu ohi zen Udako Euskal Unibertsitatean nenbilen, gazte artean gaztetzeko gezur-ilusioz, baina ilusioz. Lortzen bainuen ahanztea zahartzen ari nintzela. Arratsalde batez, azken klasetik afarira bitarteko ordu libreetan, Nafarroako mendialde eternorantz ezabatzea pentsatu nuen, neu bakarrik. Belaterantz. Ikuspegia zoru erliebetsutik infiniturantz zabaltzen zen bihurgune mendatezko batean, zigarrotxo bat erretzeko irrika neraman, haren kearekin batera, neure buru dohatsua gehiago ezabatzeko. Naturak, batzuetan, betiko irensten zaitu, baina sarritan, itzultzen uzten dizu.

Iruñetik dozena bat kilometrora, oraindik errepidea pikotzen hasi aurretik, sua falta nuela ohartu nintzen. Ultzamako Bentaraino itxaron? Arteko herrixka batean gelditu? Hara! Errepidearen bazter batean benta moduko bat hauteman nuen. Hortxe erosiko diat pospolo kaxa bat, edo metxero bat. Sartu nintzen eta bai harritu ere eskailera estu eta ilun samar batek beheko solairura jaisteko aukera bakarrik uzten zuela, lurperantz bezala. Ez eurt, bai eurt, eskailerari obeditzea pentsatu nuen. Pospolo batzuk eskatzeko ez duk hainbeste koplara behar. Espazio txiki eta itzal-nabar batera jo nuenean, kanpo argitsutik sartzearen desbistaz, barran inor zebilenik ezin nuen bereizi. Ez nintzen berehala konturatu hura beste lokal mota bat zela. Pospolo batzuk eskatu eta ospa. Barran horma kontrara baztertu nintzen, eta adaptazioak iluna apur bat bisibletu zuenean, mutil gozo bat agertu zitzaidan zerbitzari, betieratik han egoteko gazteegi zirudiena. Beste mota bat, baina zein mota?

–pentsatu nuen, eta berehala aurreko gozotasunari matoi tinbrea hartu nion, galdetu zidanean:

– Hik zer nahi duk?

– Ez daukat erantzun erraza. Erraturik sartu naizela uste dut. Autoan nindoan mendirantz, eta surik ez neramala ohartu naiz.

– Horrenbeste azalpen behar al duk, eskari bat zehazteko?

– Ba, garbi esanda, pospoloak edo metxero bat besterik ez dut behar.

– Hemen ez diagu su mota hori saltzen. Nahi baduk, neure metxerotik emango diat.

– Eskerrik asko. Oraintxe bertan ez dut behar. Mendirako nahi nuen.

– Mendan sua arriskutsu duk, txo!

– Emaidazu zortea, lerdentxo! –entzun nuen garondoan sumatu nuen esku guri baten gainetik. Ahotserantz biratu nintzenean, neska bat hauteman nuen, irribarre limurkoiz irudi. Garondoko eskua nire gerrira pasatu zenean, hatzak banan-banan igartzen nituen, bakoitza bere saihetsaren bila. Lokal mota birkokatzerik ez zitzaidan otu, azken esaldiaren oihartzun sarkorregiak durditu baininduen. «Emaidazu zortea». Eskari hori bizitzan bi aldiz entzuna nintzen.

– Nire zain al zeunden, zortea lortzeko?

– Gaur astelehena da, eta beharrezko dut astea ondo hastea. Badakit probidentzia badela, eta zeuk izan behar duzu nire zorte. Emaidazu zortea, kurrintxo!

– Aizu, zail egingo zaizu ulertzea, eta lotsatzen nau azaltzeak, baina ni hona pospolotan sartu naiz.

– Baina hemen zaude, eta neu aurkitu nauzu. Zuk bihotz oneko gizon dirudizu. Eta gizon ere bai, suposatzen dut.

– Aizu, benetan ere neu naiz egoeraren errudun, baina ez naiz horretara sartu. Belaterantz nindoan, surik ez neukala ohartu naiz, eta tabernatxo batera sartzea pentsatu dut, horixe baitzirudien kanpotik. Barka! Errakuntza bat izan da.

– Zergatik ukatu behar zaio errakuntzari zorion bihurtzeko ahala, zorion bilatze berariazkoek hainbestetan huts egiten dutenean? Egizu neugatik bederen. Behar dut zure zortea.

– Maitagarri zara benetan, ederraz gainera, baina gaur ez naiz horretarako prestaturik etorri. Zuk errakuntza bat baino zerbait gehiago merezi duzu. Nahi baduzu, hurrengo batean etorriko naiz, berotasun osoz eta dezakedan zorte guztiz.

– Hurrengoan beharbada ez nagoke, edo okupaturik nagoke. Nik oraintxe behar zaitut. Zer kostatzen zaizu ahalegin bat egitea?

– Laztantz, egoera hau benetan sentitzen dut, eta penatzen nau. Gutxien nahi dudana da zu mintzea, eta are, arbuiatzea. Gauza bat egin dezakegu, ondo baderitzozu. Trago batera gonbidatuko zaitut, berbalditxo bat izanez, pertsonatik pertsonara. Niretzat atsegin handia izango da zu apur bat ezagutzea, hizkera eta tonu zoragarri horiengatik baino ez bada ere.

Dena ere txoko bat baizik ez zen lokalean, ez zen erraza zoko bat aurkitzea, baina horma-angelura akoplaturiko besaulki batean eseri ginen, geuk ere belaunekin angelu eginez, bertara erortzen zen argitasun more baten azpian. Hain elkarren hurbil, naturaltzat jotzekoa izan arren, nire belaunak ahalegintzen ziren haren belaunei ez ukitzen, tragoaz beste zerbaiteko baliatzen nintzen itxurarik ez ematearren, nahiz bera ez zen askorik saihesten, agian pentsatuz zorte onerantz erakarri ahalko ninduela. Nire begiei, atmosfera argi-ilun hartara jada ekanduei, barra

muturrak pasillo mehar luzexka baterantz tiratu zien, zeinaren bihurgunean argitasun bat nabari baitzen, naturala izateko baino zuriagoa. Beste bizpahiru neska barra inguruan zebiltzan, eta bat bihurgunean ezkutatu zen, atzean kokomarro bat zeramala.

Eseri ginenean, lanparatxo ongile hark neska oso gazte eta ezin xarmantago bat aurkeztu zidan, beilegi ilunkara, adats jareina, begien hezean dzistada etengabeak, eta soineko urdinxka libiano bat, lore xuabeki horiz ñabartua. Bere bizitzaz axolatu nintzen, esan zezakeela uste nuen neurrian, eta batere erreparo gabe azaltzen zuen kolonbiarra zela, Iruñea inguruan bizimodu oparoa aurkitu zuela, «errakuntzak» ere dohatsu gertatzeraino; ofizioa, batzuetan, atsegina ere bazela, eta ez zenean, ez zela horizonterik eza baino gogorragoa. Dena gezurra izan zitekeen, baina bera egiazkoa zen.

Neuk ere, esateko asmorik izan gabe, azkenean agertu nion apaiz ohia nintzela. ¡O, padresito! Bazirudien datu horrek entusiasmoa sortu ziola. «Banekien non eskatzen nuen zortea!». «Zorte» kontuak berriz ere inarrosi ninduen, baina ezin nion gakorik aurkitu. Denak ninderaman hain emana naizen amets hondarretara, zeintzuetatik, errealitatean euren inolako egiantzik ez aurkitzean, sentipen indartsu baten esplikazioa atera nahi izaten baitut, lausotasun etsigarrian beti. Argitasun bat atzeman uste dudaneko, ametsa ezabatua da.

– Oraindik batzuek Don Xabier diostate. Ez dakit badakizun, baina Xabier nafarra zen, eta orain Nafarroako zaindari da. Zeure zaindari.

- Bai lindoa! Benetan zortea eman behar didazu.
- Ez fida, preso ere egona bainaiz urteetan.
- Preso zu bezalako ogi-zopa bat?

– Ez zaitut azalpenetan nahasi nahi, beldur bainaiz arrazoiak zure ezagutzatik urrunegi gerta daitezen, baina jakingo duzu hemen ez dela amaitu zahar diktadura luze bat.

– «Kakanarruaren diktadura», esaten zuen gure amamak.

– Zeozer badakizu orduan, eta gaurko, nahikoa da hortik. Seguruenik, gehiago ez dugu elkar ikusiko, baina elkartze bitxi honetaz gogoratzean, hala izango baita bizi naizeno, zer izenez gogoratu behar zaitut?

– Talita. Talita Markez.

– Talita??? –irten zait ia oihuan.

– Bai! Zer du izen horrek?

– Egoeraren aurreko singularitasun guztiek txiki gelditu behar dutela uste dut oraintxe.

– Zer gertatzen zaizu? –galdetzen dit ikaraz, esku artean gorde dudana burua igurtziz.

– Inoiz ez nuen pentsatuko ez zitekeena bazitekeenik! –darantzut atzerapen handiz, areago neure golkoari. Burua jaso eta bekoz beko begiratzen diot, berari baino gehiago, berarengan zehar ageri zaidan atze-ikuspen luzeari.

– Zer da ez zitekeena?

– Badela susmatzen dudana. Zure amak Talita al du izena?

– Talita Markez, neuk bezala.

– Eta amamak?

– Talita Markez hark ere.

– Aitarik ez al dago bitartean, eskailera guztia Markez izateko?

– Gurean aitarik ez da konda.

– Bakarrik falta da neu izatea bera.

– Zu bera... zer?

– Historia luzeegia da labur kontatzeko. Zuk orain zeure lana dukezu. Bihar etorriko naiz buru hornituagoz. Etxetik irten al zaitezke?

– Egunero irteten naiz.

– Orduan, Belatera joango gara biok, solas lasaian. Denbora guztia ordainduko dizut, gain-sari eta guzti.

– Aurrerapen bat ezin al dut jaso?

– Txikia beharko du, nire sakelak une honetan zimel baitaude.

– Zertan ari zara?

– Ez al didazu eskatu...

– Kontakizuna! Nola iritzi didazu diruzko aurrerapena eskatzeko bezain...«emagaldu»? –hitza ferozki markatuz.

–Barka, Talita, barka! Niretzat aurrerapena... Barka, bai! Bihar etorriko naiz.

– Aurrerapena airean gelditu da.

– Barka hori ere, baina kontatzen hasi aurretik, neure baitan asimilatu behar dut.

Nik uste dut txiflatutzat hartu ninduela. Bat gehiago, lokal hartatik pasatuko ziren hainbesteren artean. Baina ni, biharamun arratsalde erdian, lautada hauts-zurian, izenik ere ageri ez zuen bide-klub zoztor hartan zintzo agertu nintzen, Talitaren sorpresa handirako. Berau autoan hartu nuenean, bahitzaile sentipen osoa neukan. Lantzetik pasaeran, hango inauteriak azalduz, tarteka galdera interesatuak ere eginez, bagindoazen Belaterantz, dena halako ezaxol airean, ia-ia kortesia «profesionalean», non batzuetan bera ez baitzen galdetua ere sentitzen. Aldi batera, berriro galdetzen nuen, eta orduan bazirudien erantzuna oparoago zetorrela. «A, bai, baina ez. Amama Kolonbian bizi da».

Mendatea gailurtzerako, banekien amama Talita Amazoniara itzulia zela, ama Talitak Bilbon zerraiela, eta

alaba Talita kopilotu nekarrela. Beheragoko Talitarik ba ote zen galdetzeari indiskretu iritzi nion. Bere zango luzangetan, belaun elkarrengana tolestuak niganantz xarmantki inklinaturik, alboan zetorren andereño elegantea, Proustek gurpen exhaustiboz deskribatuko zukeena, Henry Millerrek harraskapean bentilatuko zukeena, eta Mirandek erreformatiora bidaliko zukeena, ezin nuen sinetsi ofiziokoa izan zitekeenik. Ultzamako Bentan, ni kafea eta bera tea hartzen ari ginela, uztaileko eguzkiak argia eta beroa berdintsu banatzen zituen, baina pagadien ikuspegiak bazirudien gogoia freskatzen zuela, eta gogoari ezin zaio arrazoirik tematu. Talitak, inguru haietan eta antzekoetan gutxi ibilia zirudienak, nobedade handitzat begiratzen zion guztiari, edo hala zirudidan neuri, mirarirako aurre-jarreran nentorrelako edo. Paisaiak baino jendeak gehiago tiratzen zion, eta galdetu zuen:

- Alde honetakoa al zara?
 - Ezta hurrekoa ere!
 - Jende askok ezagutzen baitzaitu.
 - Atzo ezin izan nizun guztia aipatu, baina bertsolari ere banaiz.
 - Ofizio maitea izan behar du, jendearen txeratik dirudienez.
 - Ezin naiz kexatu. Gutxiago gustatuko litzaidake zu ezagutu zaitzaten.
 - Ez pentsa. Jendea berera etorri ohi da. Sarritan ez digu aurpegira begiratzen.
 - Goazen goiko lautadara. Pagoak entzule eta errekatxoak solaskide direla, era lasaiagoan mintzatuko gara.
- Azkenean, bazirudien nire kontatzekoa baino gehiago, bere erreakzioa axola zitzaidala. Hura entzuletik subjektu aztergai bihurtuz, neure urduritasuna obserbaziorantz

bideratu nahi nuen. Belar xehe eta leun-leunean, ardi- eta zaldi-gorotzak apartatu nahiak oinetara begirarazten zidan, eta xarmatzen nintzen haren zapatila hori, txarolezko, takoi-erdikoekin, nora zetozen antzik ere ez zutela izan nabarmentzen zutenekin.

– Amama Talitarekin hasiko naiz. Hamasei urteko apaizgaia nintzela, Bilboko San Frantzisko kalean nindoan, seminariotik etxerantz, gure erreinu moralaren alderantzia usnatu guran. Beno, handi-handika kontatuko dizut, xehetasunekin ez zorabiatzeko.

– Xehetasunak maiteago ditut funtsa baino, gure amamaren kasuan, batez ere.

– Ondo. Neu ere xehetasunen aldekoa naiz. Zure amama, orduan hogeita sei urte izango zituen...

Eta halaxe joan nintzen dena jaulkiz, bere isiltasun txunditua lagun, honela amaitu arte, begietara lehen aldiz begiratzen niola:

– Eskandalu suntsigarri bat izan zitekeena mutiko nerabe baten argiztapen bihurtu zen.

– Gure amama pertsonaia totala da!!

– Tonu konbintzentean esan duzu, baina zure amarena ez zen gutxiagorako izan. Apaiz talde baten itxialdi entzutetsu baten ordezkari eta informatzaile, Bilboko San Frantzisko auzora iritsi nintzen batean...

Eta halaxe, kondaira guztia. Berdegune zabal eta abereztatuaren hegaleko haitz leun batean eserita geunden, geure itzalak luzatzen ikusiz, bizkarra epeltzen zigun eguzki jada nekatuari esker.

– Amamaren alaba! –hots egin zuen kontaketa amaitzean, aire melankolikoan.

– Eta zu bien jarraipena.

– Eta zu hiruron albainua.

– Nork esan behar zidan hau gertatu behar zitzaidanik!
–neure harriduretan barrurago.

– Gertatu da –berak, xalo-xalo.

– Eta begira nolako ofizioen artean!

– Gure ofizioa ez da merkatu huts. Maitasuna ere badago.

– Azarerik ez zegoela erabaki genuen, eta hona kasualitateak ugaldtu!

– Batzuetan onezko izan daitezke. Ez al duzu uste?
–begietara zuzen begiratu.

– Hiru Talitok zerbaitegatik bat egiten duzue «emaidazu zortea» delakoan—. Burua makurtu nuen eta jarraitu, barrurantz bezala—. Nire kasuan esan dezaket zortetsu izan naizela. –Burua jaso eta tonu lagunkoian galdetu nuen: Abiatuko al gara beherantz?

– Nik ez daukat presarik.

– Baina zure denbora...

– Ez zara beldur izango denbora hau ordaindu beharko ote duzun, ezta?

– Tratua horixe izan da.

– Alferrik esan al dut gure ofizioan ere badela maitasuna?

– Talita! Mesedez! Nik ez dut horrela nahi. Zerbitzu arrunt bat baino mila bider pozago ordainduko dut nire bizitzako esperientzia miragarrienetako hau.

– Talita naiz, aizu! Talita Markez! –haserre airean.

– Barka! Ez dut zure adeiaz abusatu nahi. Goazen astiro-astiro.

– Inguru zoragarri honetatik alde egin behar al dugu, amodioari beste formarik eman gabe?

– O, Talita! Nik zorteari ez diot hainbeste ontasun eskatzen. Eman dizut kontakizun intimo bat. Eman didazu denbora eta arreta gozo bat. Utz dezagun horretan.

– Zergatik utzi behar dugu horretan hobeto uzteko modua duena?

– Talita! Neska ikusgarria eta exzitantea zara. Maitagarria ere bai, oso. Zuregana ekarri nauten aurrekariekin, utz nazazu posibilitate erreal baten sentipen ameslarian.

– Poeta, apaiz ala gnomo gisan mintzo zara?

– Zure amamaren iniziatu eta zure amaren kontsumatu gisan mintzo nauzu.

Burua makurtu zuen, eta zelai samurrean, autorantz abiatu ginen, isilik. Bidean, hatz mamiekin takadatxoak eman zizkidan eskugain esekian, galdetuz bezala: «Hau ere ez?». Eskutik heldu eta estutu nion. Uneka, begiak itxi eta ninfa baten izatea irudikatzen nuen, nire gaztaro antsioseko mitologiak bazuela sentitzeko alderantzizko bidea. Bere klub txiki anonimoaren aurrean, «agur eta zorte on benetan!» –opatu nionean, hauexek izan ziren azken hitzak, bereak eta nireak:

– Musu bat eman ahal dizut?

– Trena joanean uzteko era xarmanta litzateke.

Gehiago ez dut ikusi, baina musua ez da amaitzen.